Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA

[46]

Kurdistan:
herria, kultura, literatura

Elkarrizketa:
Helim Yusiv eta Berivan Dosky

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileburuordetza

Idazkuntza Kontseilua

Idazkuntza Kontseiluburua: Igor Estankona
Kontseilukideak: Elena Martinez, Xabier Mendiguren, Jon Martin, Juan Luis Mugertza.

Diseinua eta maketazioa: Berria.
Inprimaketa: Gertu Grafikak

Zemoria kalea, 25 behea
20013 Donostia
Tel: 943 27 69 99
Faxa: 943 27 72 88
Posta elektronikoa. eie@idazleak.org

ISBN: 1130-2445
Lege Gordailua: SS-359/90

Euskal Idazleen Elkarteak ez ditu derrigorrean beregain hartzen Hegats aldizkariko kolaboratzaileen iritziak.

Euskal Herria, Kurdistan, Euskal Herria
Ander Iturriotz Lauzirika, EIEko lehendakaria 9

Kurdistan. Ametsa eskura
Manuel Martorell 13

Iparretik Hegora, Kurdistan
Urtzi Urrutikoetxea 23

Kurduak elkarren kontra: Kaukasoko eredua
Karlos Zurutuza 47

Literatura kurdua: hurbilpen bat
Urtzi Urrutikoetxea 55

Helim Yusiv eta Berivan Dosky
Elkarrizketa: Urtzi Urrutikoetxea 83

Literatura kurdua: harribitxi batzuk
Hautaketa: Urtzi Urrutikoetxea 91

Euskal Herria, Kurdistan, Euskal Herria

Ander Iturriotz Lauzirika, ElEko lehendakaria

BIDAIATZEKO aholkua eman digute beti euskaldunoi. Itxikeria baztertu behar dugu, mundua ikusi, mundutik ikasi, mundu gabeak garenez, bertan ikasitakoa desikasi, kosmopolisean.

Eta, hain zuzen, bidaia bat proposatuko zaigu datozen orrialdeetan. Hegazkin arina hartu, Bilbotik Istanbuleraino, eta, handik aurrera, autobus geldoa, Anatoliako gainetan barrena. Leihoaren ondoan, begiradaren mugan.

Lekuak eta jendeak ezagutuko ditugu; hiriak, herriak; mendi zoragarriak —Ararat mitikoa, horien artean—, labirinto bat mendien artean; eremu elkorrak, aintzira lasaigarriak; harresiak, minareteak, gurutzeak; ilunsentiak eta ilunabarrak, zein baino zein ederrago; begi biziak, begi ilunak; erdeinua eta harrokeria; hizkuntzen borroka, isiltasuna, hiztunak atseden hartzen duenean; polizia, kontrolak, gerrarako armen presentzia itogarria…

Ez baitziguten esan, bidaiatzeko aholkatu zigutenek, gure bidaiak ezin zuela Kurdistan hartu helmugatzat.

Geografia erraldoi bat, Anatoliatik Irango mesetaraino eta Kaukasotik Mesopotamiako lautadaraino. Ia 40 milioi biztanle lau Estatutan banatuak, Turkia, Iran, Irak eta Siriaren mugen barruan, komunitate garrantzitsuak dituena Kaukasoko eta Asiako Erdialdeko errepubliketan, diaspora izugarria sortu duena munduan zehar. Inbasioak eta gatazkak. Ukazioa, asimilazioa eta anikilazio politika. Espetxea. Tortura. Heriotza zigor inmediatoa, kale-ertz batean. Genozidioa.

Erresistentzia, mendeetako erresistentzia setatia. Estatu propioaren aldeko borroka. Alderdi politikoak. Sindikatuak. Borroka armatua, 25 urtetan 40.000 hildako ekarri dituena, 4.000 herri eta hiri desagerrarazi dituena. Harrotasuna, bandera gorri zuri eta berdea, erdian eguzkia daramana. Erresistentzia jakintsua.

Kultura zahar bat, oinarrian. Hizkuntza bat, dialekto ezberdinetan banatua —kurmanji, sorani, gorani eta zazaki, nagusienak—. Musika, tradizio eta sinesteak. Jantzi tradizional koloretsu eta ikusgarriak, Rousseauri hainbeste gustatzen zitzaizkionak. Erituak eta jaiak. Alaitasun partekatua. Kontzientzia kolektibo objektibatua, Durkheimen definizioan.

Ahozkotasunean gorde den literatura bat: epopeia, kantu eta kondairak. Gai abertzaleak: batasuna eta askatasuna aldarrikatzen da. Gai sozialak: inperioak ekarri dien txirotasuna salatzen da, emakumearen bazterketa…

Oroz gain, kulturgileak diren poetak: kazetari, historialari, lexikografoak… Gizaki politikoak: zentsura, errepresioa eta kartzela jasan dute, heriotza bortitzarekin ordainarazi diete poetatasuna. Ondare kulturala gordetzeko beharra antzematen duten kulturgileak dira poetak. Itzulpenak bultzatu dituzte: Puxkin, Schiller, Byron… Kazetaritza sortzen ahalegindu dira... Berpizkunde nazional guztietan bezala: Herder eta Goethe; Azurmendi, orobat.

Herri normala nahi dute izan, hizkuntza normala: literatura normala nahi dute sortu, zentsurarik jasango ez duena, kartzelarekin mehatxatuko ez dituena. Itxaropena galdu ez duelako, etorkizunean argia ikusten duen herria: boterea eskuratzen hasi dira Iraken, eurena den petrolioa ustiatzen, ur-baliabideak kudeatzen…

* * *

ITZULI gara Kurdistanetik. Euria da, euri eskergarria. Hartu ditugu maletak, jarri ditugu oinak berriro ibilian, eta Kurdistan aurkitu dugu aireportuan: uso zuri baten arkitektura, Loiun, odolez zipriztindua. Herri txikiago bat, bi Estatutan banatuta, lau administrazio-esparrutan erakundetuta, hizkuntza gutxitu bat, borroka armatua…, arnasestu bat etorkizunari begira.

Ez dugu askorik ikasi, egia esan. Genekiena ikasi dugu, eta

hori ez zen bidaiatzea aholkatu zigutenek agindu zutena. Ikusi behar genuena galdu dugu kanpoan. Ez dugu jakingo, nonbait, ikusten, ikusi behar dena.

* * *

GIZA begiak ez baitu biltzen optika objektiboa, Wittgensteinek erakutsi zigunez: giza begiak ikasi egiten du zer behar duen ikusi, eskolan, etenik ez duen sinboloen arteko borrokan. Gutako bakoitzak era ezberdinean aplikatzen ditu bere itsutasunak.

Horregatik, hain zuzen, begi handia —inperio handia— duenak gidatu behar du euskaldunon begi txikia; itsutasunik ez duenak argitu behar du euskaldunon itsutasun neurrigabea. Bazter dezagun, behingoz, gure itxikeria.

Bidaia ezazue, madarikatuak! Bidaia ezazue, zuen begia utzita, begirada zuzena erabakitzen duen begi handiaren —inperio handiaren— barruan! Ireki ezazue zuena ez den begia eta ikusi, behingoz, ikusi behar duzuena!

Kurdistan. Ametsa eskura

Manuel Martorell

Martxoaren 21a iristen den bakoitzean, udaberria hastearekin batera, kurduak kalera ateratzen dira Kawa-ren legenda ospatzera. Anatoliatik hasi eta Irango mesetaraino, Kaukasotik lautada mesopotamiarretara, andre zein gizon, eskutik helduta, suaren bueltan ibiltzen dira dantzan, dultzainen eta danborren karrankari jarraituz. Turkia, Iran, Irak eta Siriako mugek banatutako 36 milioi kurduetatik oso gutxik ez du ospatzen Newroz, Lurrean den Estaturik gabeko herri handienaren Urte Berria.

Zohak munstroaren tiraniatik libratu zituen erementari honen balentria mitikoaren sustraiak antzinatekoak diren arren, medoek –kurduen aurrekoek- Asiriar Inperioa suntsitu zutenekoarekin lotu ohi da, gure aroa baino lehenagoko 612. urtean. Ordutik mendi zein haranetan, herrixka zein hirietan, kale zein baserrietan, kurduak elkarrengana biltzen dira ospakizun zahar honekin direna direla berresteko: pertsekin batera, Ekialde Ertaineko herririk zaharrena.

Newruz izango da beharbada kurduek konpartitzen duten nortasun ikur behinena, baina ez da bakarra. Arabiar eta turkoen jatorri etnikoa ez zuten indoeuropar tribu zenbait, orain dela 4.000 urte iparraldetik etorri eta Zagros mendilerroan kokatu zirenetik, habitat geografiko berberean bizi dira. Ingurune menditsua da, Iberiar penintsularen azaleraren antzekoa duena -500.000 kilometro koadro-, Mesopotamiako goi-lurren ertzetakoa. Espazio natural honetan hizkuntza indoiraniarra gorde dute, hiru dialekto nagusiduna -kurmanji, sorani eta zazaki-, eta baita tribuan oinarritzen den antolaketa soziala, berezko musika, tradizio eta sinesteak, haietako asko Zaratustraren ikaspenekin lotuak, horixe izan baitzen medoen erlijio nagusia lehenengo kristautasuna eta ondoren islama agertu aurretik.

Baina kurduak batzen dituena historia komun bat izatea da, inbasio eta gatazka belikoz josia, eta autonomia menpekotza feudalarekin konbinatu izana, Pertsiako shah-renganakoa zein Konstantinoplako sultanarenganakoa. Gaur egun ezagutzen dugun kurduen gatazkak, ostera, I. Mundu Gerrako potentzia garaileen eta Turkiaren artean 1923an sinatutako Lausanako Hitzarmenean du jatorria. Hitzarmen honek bertan behera utzi zituen Sevresekoan (1920) itundutakoak eta, beraz, Otomandar Inperioa desagertu eta geroko nazio berrien artean Kurdistan bat izatea galarazi zuen.

Ordutik aurrera kurduak Turkia, Iran, Irak eta Siriako mugek banatzen dituzte, barruti bi daudelarik bata Armeniako Errepublikan, Lachin hiriaren inguruan, eta Jorasango mendietan, Iran ipar-ekialdean, Turkmenistango mugan. Lausanako Hitzarmena indarren sartu ondoren, halaber, herri kurduaren historia matxinaden historia izan da, Frantziak eta Ingalaterrak marraztutako eta inork ukitzerik nahi ez duen Ekialde Ertaineko mapan lekutxo bat egiteko. Kurdistan amets ia bidera ezina bihurtu zuten lur azpiko petrolio poltsa itzelek, mendietako urak eta interes geoestrategikoek bertan bat egiteak.

Nazioartean balizko Estatu kurdu batek izango lukeen garrantziaz ohartzeko, kontuan izan behar da Turkia (populazio eta azalera osoaren % 28), Irak (ia % 20), Iran (azaleraren % 7 inguru eta populazioaren % 12) eta Siria (% 10) bezalako Estatu pisudunak zatitzeak suposatuko lukeena. Ondorio ekonomikoak ez lirateke txikiagoak izango, ez bakarrik herrialde berriak Turkia, Siria eta Irakeko petrolio zelai nagusiak kontrolatuko lituzkeelako, ezpada eskualde osoko ur-baliabide gehienak, labore-lurralde zabalak eta baratze eta frutazaintzaren zati handi bat, ia osorik basamortua den munduko zonalde horretan.

Turkiak dauzkan petrolio putzu nagusi guztiak (Batman eta Diyarbakir) eta Siriakoak (Derik eta Hasaka), lurralde kurduan daude. Iraken, Kirkukeko hiriak soilik, kalkuluen arabera, mun-

duko petrolio erreserben % 6 gordetzen du. Iranen ere gas eta petrolioan aberatsak dira Qasr-e-Sirin eta Kermanshah-ko eskualdeak. Beste horrenbeste gertatzen da Siria eta Irakeko "garautegiekin", Jazira eta Sinyar-eko probintzietan kokatuak, hurrenez hurren. Baina aberastasun potentzial hori gorabehera, kurduek ezin izan dute ia baliabideok kudeatu eta onurarik jaso. Alderantziz gertatu da: garapen programak, osasun-laguntza zein hezkuntza garatzeko gobernu zentralek izan duten utzikeriak eskualde kurduentzat atzerakada endemikoa ekarri du, lekuan lekuko administrazioek ez dutelarik gainera euren estatistika edo ikerketa makroekonomikoetan bazterketa hau onartzen.

Su sakratuaren jagoleak

Euren ekonomia, osasuna eta hezkuntza kudeatzeko izan duten aukera bakarra II. Mundu Gerraren amaieran egokitu zitzaien, ustekabean, joera filonazidun Pertsiako shah-k galtzaileen bandoan bukatu zuenean. Iran iparraldea Armada Gorriak okupatu zuen, eta hegoaldea britainiar eta estatubatuar indarrek. Probintzia kurduak, kontrolpetik kanpo, inorena ez zen eremuan zeuden. Kurdistango Alderdi Demokratikoa (KDP), patroi sobietarrak jarraitzen zituen erakunde sortu berriak, abagunea probestu zuen hiriburua Mahabaden zeukan Kurdistango Errepublika Autonomoa aldarrikatzeko, 1946ko urtarrilaren 22an. SESBk lagundutako mugimendu autonomiazale honen buru izan zen Qazi Mohamed autoritate musulmana, Urmie lakutik hegoalderantzako tribuen artean itzal handikoa.

Esperientziak urtebete iraun zuen. Iraneko Armadak autonomia zapaltzea lortu zuen Yaltako Hitzarmenak zirela-eta Moskuk Qazi Mohamed-i eskainitako laguntza erretiratu zionean. 1947ko martxoaren 31n Mahabadeko Errepublikako presidentea eta Gobernuko beste kide bi jendaurrean urkatu zituzten, eskoletan erabilitako kurduzko liburuak erretzen zituzten bitartean.

Existentzia laburra izan arren, Mahabad-ek kurduen kausari oihartzuna eman zion. Egundo lehenengoz kurduek alde batera utzi zuten betiko etsaigo tribala guztien proiektu batean parte hartzeko; egundo lehenengoz islama bigarren mailara igaro zen garapen sozial eta hezkuntza garapeneko proiektuak abiatzeko; egundo lehenengoz klanen egitura itxien gaindi jardunbide demokratikoan oinarritutako sistema politikoa ezarri zen. Merezi du berriro aipatzeak kleriko mahometar bat izan zela hain zuzen errepublika demokratiko honen buru jarri zena, kasu hau gaur egunera arte errepikatuko baita ez soilik kurduen kasuan, baita beste gutxiengo etniko eta erlijioso batzuen kasuan.

Azeri, turkomano, laze, lure, bakhtiari, Juzestango arabiar edo balutxeekin gertatzen den legez, kurdu izatearen sentimendua erlijio edo tendentzia ideologikoak baino sakonagoa da. Gauza bere gertatzen da islamiarrak ez diren erlijioetan (kristauak, drusoak, kakaiak edo yezidiak), islamaren korronte heterodoxoak denak (Turkiako aleviak, Siriako alawiak, naqbendiak edo gaderiak), Europako turismotik edo metropoli handietatik bizi diren eta bereziki mendebaldetartuta dauden guneetan. Eragin handiko jende hauek nahiago dute gutxiengo kultural eta erlijiosoak errespetatuko dituen sistema politiko bat, kredo ofizial jakin bat inposatuko lukeen edozein baino, integrismoa delako euren nortasun bereziarentzat arriskurik handiena.

Demografia eta azalera direla bide, Kurdistan Ekialde Ertaineko eremu anitzena da. Zentzu honetan, harrigarria da sakonki musulmana den jendearen artean alderdi kurduek duten eragin handia, ezkerreko joera izan duten arren. Hala gertatzen da, esate baterako, Kurdistango Langileen Alderdiarekin (PKK) Turkian, 20 milioi kurdu bizi diren lekuan; Irango Kurdistango Alderdi Demokratikoarekin (KDPI) edo Komala (Gizarte) taldearekin 9 milioi kurduko eremuan; edo Iraken (5 milioi kurdu) Kurdistango Batasun Patriotikoarekin (PUK), KDPI bezala Internazional Sozialistako kide.

Antzeko zerbait esan liteke ikur nazionalaz ere, zeinak, inguruko banderen kontrara, ez daukan erreferentzia islamiarrik. "Mahabad-eko bandera"ren koloreak –zerrenda gorri, zuri eta berdeduna, eguzki batekin erdian-, mazdeismo zaroastroarrarekin lotzen dira, eguzkiak eta suak irudikatzen dutelarik dibinitatea. Kurdistanen, hamarnaka mila miliziano "peshmerga" (literalki, "heriotzaren aurre-aurrean dabiltzanak") jakitun dira eguzkiaren sinbolismoa defendatuz, talde fundamentalisten monolitismoaren kontrako balore sistema ari direla gordetzen.

Integrismoaren kontra, kolorea

Kurduen eguneroko bizitzan, Newruz-aren ospakizunetatik hasita, eragin handia dute islamaren aurreko sinesteek. Jaio berrien izenetatik hasi eta aire konpainietaraino, argitalpenetatik zentro kulturaletaraino, arbaso medoen garaia eta filosofia ondratzen dituzte kurduek. Eragin mazdeista dauka eguzkia gurtzeak, eta oraindik alevien artean ohikoa da. Suniek heretikotzat dute hau, baina Turkian gutxienez hamar milioi pertsonak jarraitzen du korronte hau, batez ere kurduen artean. Kakaiekin ere beste horrenbeste gertatzen da: ehunka mila fededun dira Iran eta Irak arteko mugan bizi direnak. Antzeko zer edo zer esan dezakegu, halaber, hain ugariak ez badira ere, qaderi eta naqsbandi kofradietako kideez. Baina Zoroastroren eragina nonbait igartzen bada, vezidi erlijioan igartzen da. Benetako erlikia antropologikoa da, Laleshgo haranean daukana santutegi nagusia, Irakeko Kurdistanen.

Irakeko Kurdistango Gobernu Erregionaleko kide izan den Chinar Saad soziologoaren ustez, mazdeismoarekin lotuta legoke, baita ere, emakume kurduak gizartean jokatzen duen paper garrantzitsua. Kurduak desberdin egiten dituen protagonismo honek zerikusia edukiko luke Kurdistango mendiek osatzen duten labirintoan islama berandu eta indar gutxirekin sartu izanarekin, eta "mentalitate tradizionalean filosofia zoroastroarrak izan

duen eragin historikoarekin". "Mendeetan zehar gizarte kurduaren erlazioak zelakoak izan diren badakigu, eta emakumeari dagokionez Ekialde Ertaineko beste herriengandik desberdinak izan dira. Emakume kurduek produkzio-lanetan parte hartu izan dute beti, eta baita aginte-prozesuetan eta gerra-ekimenetan ere".

Emakume kurduak jantzi tradizional koloretsu ikusgarriak janzteko eskubidea, makillatzeko eskubidea, islamiar beloa kentzekoa edo Europako gustuen arabera janztekoa obskurantismo integristaren aurkako estandarte bihurtu du, Irango Errepublika Islamiarrean batez ere. Ezkontza eta jaietan emakumeek gizonekin batera egiten dute dantzan zirkuluak osatuz, eta herri poesiak garrantzia handia daukan euren literatura maitasun istorioz betea dago.

Pertsonaia historikoen artean Chinar Saadek Hamzad printzesa ospetsua aipatzen du, XVIII. mendean milaka gerlarik osatutako armadak gidatu zituena. Tribuetako gobernadore edo erreginen izenak ere ekar ditzakegu: Lady Adela –Halabjako eskualdea zuzendu zuena XX. mende hasieran-, edo Margaret George - "peshmergen" komandanate kristaua, 70eko hamarkadako kurduen sukaldeetan argazkia izan ohi zuena-. Gaur egun alderdi nagusiek emakumez osaturiko unitate militarrak dituzte, eta emakumeek zuzentzen dituzte sail tekniko ugari, polizia-etxeak edo epaitegiak, eta ekimen politikoaren zati berebizikoa dira. Gaur egun emakumeak, Iraken Chinar Saad bera bezala -edo Giza Eskubideen Sajarov Saria jasotako Leyla Zana, edo Turkiako Aizel Tuyuk, edo Irango Roya Toloui- lehen lerroan dabiltza eskubide kultural eta politikoen defentsan.

Mendia dugu adiskide

Dudarik barik, literatura kurduko obra gailena *Mem-u-Zin* (Mem eta Zin) epopeia da. Konposizio liriko luzea da *Mem-u-Zin*, gizarte klase desberdinetako gazte biren arteko maitasun ezinezko bati buruzkoa. Ahmed Xani autoreak Shakespeareren

*Romeo eta Julieta*ren antzeko argumentu hau erabili zuen XVII. mende bukaeran, ohartarazteko herri kurdua turko, arabiar eta pertsiarren biktima bilakatuko zela, ez bazen biltzen nazio propioa osatzeko.

Profezia baten antzera, Turkiak, Irak eta Siriako arabiar Estatuek eta lehengo Pertsiak tai gabe bilatu dute, modu batera zein bestera, Kurdistan desagerraraztea. Turkian cheik Saiden altxamendua gogor zapaldu zuten 1925ean, Araratekoa 1929an eta Dersimekoa 1937an. Izatea ere ukatzen zitzaielarik, laidotuak eta pobreziara kondenatuak, 1984an politikoki zeharo erradikala zen mugimendua jaio zen: Kurdistango Langileen Alderdia (PKK), 25 urtean 40.000 bizitza inguru –gehienak kurduak-, eroan dituen gatazka armatuaren protagonista, 3.000 herri baino gehiagoren suntsipena ekarri duena, eta ehunka mila pertsonaren desplazamendua.

Lehengo Pertsian, Irango Kurdistango Alderdi Demokratikoak (KDPI) –Mahabad-eko Errepublikaren jarraipena- ia lortu zuen autonomia irabaztea, 1979ko Iraultzaren ostean. Dena dela, Khomeini imanak, behin boterera iritsita, ez zuen Reza Pahlevi shah-ren kontrako borrokan agindutakoa bete. Areago, "gerra santurako" deia egin zuen kurduen kontra, fedegabekotzat jota. KDPIk, armak harturik eta Abdulrahman Ghasemlu-k gidaturik, 80ko hamarkada erdialdera arte lurralde zabala izan zuen kontrolpean. Kartzela erraldoi bihurturik, Irango Kurdistan askotan jalgi da Teherango boterearen kontra. 1997an Saied Mohamed Khatami erreformazalea presidentetzara iritsi zenean tolerantzia eta zabaltze aro bat hasi zen, Mahmud Ahmadineyaden gobernuarekin bukatu zena 2005ean. Errepresioa gogortu da ordutik eta gerrilla berriz aktibatu da, Turkiako PKKrekin lotuta dagoen Bizitza Aske Alderdiak bultzatua.

Iraken, KDPko buruzagi Mustafa Barzanik autonomia ituna lortu zuen 1970ean, hamar urteko "askapen gudaren" ostean. Autonomia apenas jarri zen indarrean, "Kirkuk-eko afera" zela eta. Bagdadek betidanik jarri du auzitan petrolioan aberatsa

den hiri honen kurdutasuna. Sadam Husseinen agintealdian, eufemistikoki bere Gobernuak "Anfal Kanpaina" deitutakoa heldu zen: 4.000 herri eta hiri desagerrarazi zituen genozidioa. Biztanlegoaren ia ehuneko hamarra gai kimikoekin bonbardatu zuten, eta 180.000 pertsona hil zituzten. 1989an Ramadan presidenteordeak nazioarteko prentsari adierazi zion hiru urteko epean kurduak Kurdistanen ez zirela gehiago gehiengoa izango. Eta hala gertatu zen ia 1991n, Golkoko Gerraren ostean, Guardia Errepublikarraren jazarpenak herri honek inoiz bizi izan duen exodo handiena ekarri zuenean.

Irakeko genozidioa eta Turkia, Iran eta Siriako garbiketa etnikoko operazioek aldaketa sozial, psikologiko eta politikoak ekarri dizkiete kurduei. Kurdu askorengan, bizi diren lekuan bizi direla, sentimendu bat hazi da: ez direla garbitu nahi dituen herrialdearen parte. Iraken, 70eko hamarkadan, Estatu arabiarraren barruko autonomiaren aldekoak ziren kurduak. XXI. mende hasieran, ostera, gehienak ez dira irakiar sentitzen eta Estatu propioaren alde egingo lukete, alderdi kurdu nagusien erreibindikazioak eurak gaindituz. Alderdiok, pragmatismoagatik, sistema federalaren aldeko apustua zuten egina, Irakeko mugak auzitan jarri gabe.

Kurduak harriturik daude genozidio eta garbiketa etnikoaren aurrean mendebaldeko herriek erakutsitako pasibotasunaz -inoiz kolaborazio zuzen eta zeharkakoaz-. Nazioarteak abandonatu egin dituela sentitzen dute, eta sentipen honek talde politiko militarren sostengua sendotu du. Taldeok, halaber, badakite nazioarteko babes desinteresaturik ez dutela izango. Hizkera gogorrean "peshmergek" esan ohi dute "gure lagun bakarrak mendiak dira"; horrek laburtzen du herri kurduaren babesgabetasun eta isolamendua.

Esperantzaren ateetan

Garrantzi geoestrategiko itzela duen munduko eskualde batean kokatua, Kurdistan ahaztu egingo genuela ematen zuen:

existitzen ez den herri bat, zatiturik daukaten Estatuek errepikatzen duten antzera. Eta hala ere XXI. mendeak aldaketak ekarri ditu munduko txoko honetara, esperantza bizituz. Turkia Europar Batasunera hurreratzeak arazoa argitara ekarri du, eta konponbidea aurkitu beharraz jabearazi. Sirian ere antzeko zerbait gertatu da, Bashar al Assad-ek presidentetza hartu duenetik. Irakeko anglo-amerikar inbasioaren efektu positibo bakarrenetakoa Arbilgo Gobernu Erregionala finkatzea izan da, 1992tik *de facto* estatu independente gisa funtzionatzen zuen berbera.

KDP eta PUK alderdiek sostengatutako Gobernuak "Anfal Kanpainak" suntsitutako herriak berreraiki ditu, eta azpiegiturak zein hezkuntza eta osasun zerbitzuak hobetu. Arazo handiekin bada ere, Irakeko Kurdistanen gutxiengo turkomano eta asirio-kaldeoen eskubideak aintzatetsi dira, eta alderdi nagusien hegemonia kritikatzen duten komunikabideak sortu dira. Honek ez dauka aurrekaririk: Irakeko kurduak euren petrolioa ustiatzen hasi dira, eta orain arte ezagutzen ez ziren gas eta petrolio putzuak aurkitu dituzte lurpean. Urari dagozkion baliabideak ere kudeatzen dituzte, eta euren kontrolpeko armada daukate. Garrantzitsua izan da, halaber, Arbil eta Suleimaniyako nazioarteko aireportuak zabaldu izana, irla baten antzera etsaiek inguraturik egotearen sentipena, madarikazio baten antzekoa, arinduz.

"Mahabadeko Errepublika berria" bihurtu da gisa honetan Erregio Autonomoa. Independentzia aro labur hartan gertatu zen legez, mundu osoan barreiatutako diasporatik eta erbestetik jende saiatua etorri da Kurdistanera, nazioaren jaiotzan parte hartzera: telekomunikazio konpainiak jarri dituzte martxan, telefonia mugikorra, jatetxeak, hotelak eta luxu handiko turismoko guneak. Kurduen zati handi bat Irakeko esperientziari begira dago.

Irango Kurdistango azken matxinada 2004ko martxoaren 9an hasi zen, hain zuzen. Poliziak gogor erreprimitu zituen Ira-

keko federalismoaren aitorpenaren aldeko manifestazioak. Hiru egun geroago, Siriako matxinada garrantzitsuena ere horrexek leherrarazi zuen. Bashar al Assad buru duen Errepublikan aurrekaririk ez zeukaten gertaerok martxoaren 12an hasi ziren, Qamiskiko futbol zelaian arabiar talde bateko jarraitzaileak Irakeko alderdi kurdu bien liderren aurka garrasika hasi zirenean: Jalal Talabani (PUK) eta Masud Barzani (KDP).

2010a bukatzean, politikoki, ekonomikoki eta kulturalki globalizatutako mundu honetan, nazioarteko interesek mendi artean itota zeukaten herri kurduaren madarikazioak lekua egin dio, apurka-apurka, esperantzari, eskura jarriz amets ezinezkoa. Irakeko Kurdistango esperientzia laburrak frogatzen du ura, lurra, baliabide energetikoak, lehengaiak, mineralak eta potentzial turistiko handia giltzarri izan daitezkeela garapen ez soilik ekonomikorako, baita sozial, kultural eta politikorako ere.

Ez dago dudarik: Kurdistan zatituaren alde batean besterik ez bada ere, amets hau eraikitzeak eragina izango du Turkia, Iran eta Siriako lurralde kurduetan eta Ekialde Ertain osoan. Baina Mahabad-eko Errepublikari gertatu zitzaion legez, dena ameskeria izango da aberastasuna ez bazaio biztanleria osoari iristen eta boterea euren esku duten taldeek monopolizatzen badute. Horrek eragotzi egingo luke pluralismoan eta aniztasunean oinarritutako Ekialde Ertain bat ahalbidetuko lukeen gizarte zibilaren sorrera.

Iparretik Hegora, Kurdistan

Urtzi Urrutikoetxea

Armeniarren bideetan

Haizea. Zutik dirauen harresiko zatitik pasa eta eremu hutsa irekitzen da bere osotasunean aurrez aurre, muinoek ebakitako belardi eskerga eta elurra han-hemenka. Han-hemenka halaber, harri multzoak. Behinola existitu zen armeniar hiriburuko aztarna ia eroriak dira, duela mila urte leku honek Konstantinopla eta Damaskorekin lehia egiten zuen garaikoa. Ani-n baina, ez dago inor. Hemendik kilometro pare batera daude jatorrizko biztanleen ondorengoak, ibaiaren beste aldean. Baina ibaia nazioarteko muga ere bada. Gerra Hotzean jarraituko bagenu legez eta NATO eta Sobiet Batasunaren arteko altzairuzko hesia erori ez balitz bezala. Harresitik urrundu naiz muinoen gorabeheretan zutik geratzen diren elizetako hormei begira. Lau harresik Aniko egitura zaharrena uzten dute agerian, eguzkia gurtzeko tenplu zoroastrotarra. Beroaren kremailera goraino igota belardian oinez jarraitu dut, lurrarekin berdindutako eraikinen harrietatik begirada kendu barik, katedralaren aurrietarantz.

Berandutzen ari du. Begirada hiriko harresira zuzendu eta Aslan (Lehoi) Atea ikusi dut, eta haren gainetik altxatzen den bandera gorria, ilargi erdia eta izarra harro haizatzen. Ia ehun urte dira hemen ez dela armeniarrik egon. 1993an muga erabat itxi zuten, Nagorno Karabakh eskualdeagatik armeniarren eta azerbaijandarren arteko gerra zela eta. Armeniarren eskutan dago lurralde hori, ofizialki Azerbaijango lurretan egon arren, eta azerbaijandarrak turkiar etniako herria izanik, Turkiak muga itxi zuen. Karsera bidean naraman taxilari kurduak laster irekitzea espero du:

– Karsen kurduok irekitzea nahi dugu, baita turkiar gehienek ere. Azerbaijandarrek ezetz diote, baina geu gara kaltetu bakarrak, muga ingurukoak. Istanbuldik hegaldiak daude Erevanera, zein bahimendu mota da hori? Bada ireki dezatela eta Kars eta inguru guztiak berriz ere har dezala antzinako ospea.

Karsen erraz barneratzen duzu munduaren amaieran egotearen sentipena. Hala gertatu zitzaion K-ri Orhan Pamuk turkiar Nobel saridunaren *Elurra* eleberrian. Pertsonaiak hiru egunez egindako autobus bidaia ordu pare bateko hegaldian burutu dut, Anatoliako lautada zuriak eta tontor eta mendi mazeletako elur geruzak miresten. Baina aldaketa handiena Istanbulen lilura kosmopolitatik Karseko isolamendura iristea da. Edo hori uste nuen. Ankaran egindako eskalan ordura arte baino buruzapi gehiago ikusi ditut, baita kurduen arropa koloretsuak ere, eta turkieraren hots txistukarien ondoan Asia Txikiko bazter honetako beste hizkuntza batzuk aditu ditut: kurdueraz diharduen familiak bereziki, baita euskararekin lotu izan duten georgieraren doinu zakarra ere. Armenierarik ez.

Kars armeniarra izan zen nagusiki Lehen Mundu Gerra amaitu arte, eta Errusiaren menpe egon zen 1879tik. Iraultzaren ostean Leninek laster onartu zuen Mustafa Kemal *Ataturk*ekin bake-hitzarmena, horrek hiria, sortzear zegoen Turkiako estatuaren barruan uztea ekarri arren. Boltxebikeek 1920 arte eutsi zioten gaur Turkiako bandera erraldoia nagusi duen gazteluari. Hiriaren eta 930 urteko eliza armeniarraren (gaur meskita bihurtua) gainean altxatzen da gotorlekua.

Gerokoak ezagunagoak dira: altzairuzko harresiak NATOko herrialdea eta Sobiet Batasuna aurrez aurre jarri zituen. Baina Berlingo horma jausi, Sobiet Batasuna desegin eta hesiak bere horretan dirau. Cumhuriyet Caddesi (Errepublikako etorbidea) eta beste kale garrantzitsu batzuek harro erakusten dituzte harri bolkanikoz eraikitako tsarren garaiko eraikin dotoreak. Kale izkinetan urtu gabeko elurra zikinez belzten ari da. Egun hotz eta eguzkitsuan jendez gainezka dago hiria, turkiarrak,

kurduak, azerbaijandarrak, georgiarrak, errusiar gizonak. Emakumeei *natascha* deritze. Eslaviar prostituta blondak iluntzean irten ohi dira.

Hegazkineko mendebaldeko atzerritar bakarra nire aldamenean etorri da eserita. Galeskoa zen, eta ezin izan diot eutsi galderari, neure buruari egingo banio legez, zertara etorri naizen.

– Meatzetako ingeniaria naiz. Georgia inguruko mendietara joan behar dugu, hango gas hodiko lanak nola doazen ikusteko.

Nabucco gasbidea Europako egitasmo estrategiko garrantzitsuenetakoa da, Errusiarekiko gas mendekotasuna arintzeko. Baina Kaspiotik Turkiara daukan bide laburrenaren ordez, Armenia saihestu eta Georgian barna dator Turkiara, Mediterraneotik Europara irits dadin. Asia Erdialdea eta Europa batzeko beste ahalegin bat, Zetaren Bideak mendetan egindakoa bezala, bazter galduenak bide zaharren erdi-erdian egon daitezkeela gogorarazten digute. Orhan Pamuken liburura itzuli naiz:

> *Behinola, Karsen, burgesia aski aberatsa bizi zen: beren etxe dotoreetan egunak irauten zuen dantzaldiak, eta festak antolatzen zituzten, Kari, lausoki bada ere, haurtzaroa oroitarazten ziotenak. Jende hark Kars garai batean Georgia, Tabriz, Kaukaso eta Tbilisi xede zituen bidean egon izanari zor zion bere boterea, baita merkataritzari ere, eta batez ere hiria azken mendean eroritako bi inperio handiren mugetako gune garrantzitsua bilakatu izanari, bi inperio horiek, Estatu otomandarrak eta tsarren Errusiak, armada handiena bertan ezarri baitzuten, mendien arteko toki hura babeste aldera.*

Karseko aireportuko irteeran furgoneta ugari daude bidaiarien zain. Pozof Georgiako mugako hiria da. Igdir, Iranera eta Azerbaijango Nakhixevanera joateko abiapuntua. Agri, eta beste hiri batzuetako kartelak ere ikusi ditut. Armeniako muga ordubetera dago, baina garraiorik ez. Hamabost urte daramatza itxita.

Nik Anira txangoa eta Karseko bisita egin dut. Hegoalderantz egingo dut, Karseko inguru hau, amaiera ez baizik dozenaka ibilbideren abiapuntu baita: Kaukasoko mendi eta herri nahastea iparrean, Iran eta Azerbaijanek osatzen duten islam xiitaren eremua ekialderantz, Anatoliako goi-lautada eta Itsas Beltzeko portu zaharrak mendebaldera. Eta hegoaldean? Mendebaldeko Armenia zena, eta kurduen lurraldea, Kurdistan, atzerriko bisitari gehienentzat horren arrotz. Eta horren abegikor bere herrixketan, urteotako sufrimenduaren gainetik beti tea eta irribarrea konpartitzeko prest, hasi hemen, negua maiatz amaiera arte luzatzen den lurraldeotan eta basamortu ertzeraino. Tigris eta Eufrates ibaien eta Zagros mendien artean kurduen lurraldera nator atzera ere.

DTP alderdi kurduaren kamioia pasa da Kars erditik. Musika ezaguna zait. Harritu nau Turkiako estatuan egun-argiz entzuteak, konfiantza handia lortutakoan bakarrik kantatzen zen doinua zen niretzat Oramar. Gerrillaren kantarekin dihardute bi aste barru izango diren udal hauteskundeetarako kanpainan. Hori kolorea da nagusi kurduen artean, gorria berriz gobernuan dagoen AKP islamista moderatuena, baita turkiar nazionalistena ere.

Turkiako autobus zerbitzua munduko onena dela esango nuke erratzeko beldur handirik gabe, Mexikorekin batera beharbada. Herrialde itzel honetako bazter guztiak lotzen ditu, erosotasunez, ordu luzetako bidaiak patxadaz eginez. Bakarrik bidaiatu behar dudanez gero, etxeko bizimodu bizkorrean atzeratuta geratu zaizkidan liburuak hartuta nator, fruitu lehor batzuk erosi eta, hegazkinetan legez tarteka pasatzen den zerbitzariari tea edo zukuren bat eskatuta, beldur gutxi Anatolia erraldoiko kilometro mordoari. Turkieraz zein kurdueraz berba batzuk bakarrik jakinda ere, ez da luze joango norbaitek jakin-mina piztu eta lagunen bat egiten duzun arte.

Karsetik mila metro jaitsi ditugu, Armeniako muga-mugatik ibilita, Igdir-eraino. Hiru orduren ostean puntualtasunez iritsita, autobusera bertara igo zaizkigu bidaian jarraitu gura badugu

abiatzear diren garraioetako arduradunak. Hemen egonda baina, gaua bertan ematea pentsatu dut, munduko bazterrik ezkutuenetako batera txangoa posible ote den ikustera.

Biharamunean, autobusean lagundu ninduten hiru azerbaijandar jatorrek eraman naute Asar hotelaren aurreko bulegora. Azerbaijango estatuko eremu nagusitik Armeniak bereizitako (eta isolatutako) Nakhixevango lurraldea, Igdirretik ordu pare batera, eta hirian bertan nabari da gehiengo kurduarekin batera azerbaijandar kopuru handia dagoela. Utziko zidaten itxaropena neukan, baina kale, ez daukat bisaturik, Nakhixevan Azerbaijango zati da eta hango arauak daude indarrean:

– Sentitzen dugu. Bisatua Karsen hartu beharra daukazu.

Eskerrak ez naizen mugaraino joan, gauza bera entzuteko. Baina Karsen posible zela jakinez gero... Leku arrotz eta ezezagunen zaleek badaukate puntu eszentriko bat ziur aski, eta Nakhixevanera bisita ez da ahuntzaren gauerdiko eztula frikien zerrenda horretan. Gerrak isolatutako lurraldea, armeniar etsaiaren itzala gainean, armeniarrik inoiz egon izana ukatzen duten mitoak, sobietar errezelo poliziala Irango kultura xiita abegikorrarekin nahasita. Erakarpen indarra ez du mundu guztiak ulertuko, baina orain ez bada hurrengo baten, bisita hori markatuta daukat.

Kalean aurrera nindoala, zorroa aldean, agure kurdua hurreratu zait, eskuko poltsa batekin laguntzeko. Eskerrak eman dizkiot, bera ere Dogubeyaziteko autobusaren bila doa. Bizpahiru etxe multzo baino ez ditugu zeharkatu, baina giroa arras ezberdina da, kurduen lurraldea da atzera ere.

Autobusa mendian gora doala, Kurdistanen gaudela gogorarazi digu Turkiako jendarmeak ere. Banan-banan hartu dizkigute pasaporteak kuartel militarraren aurrean ezarritako *checkpoint*-ean, berbarik esan gabe, fusila eskuetan. Asfaltoa garbi-garbi dago, baina gainontzeko inguru guztian zuritu du.

Halako baten agertu da Ararat mendia, harro bere bakardadean. Arnasa kentzeko profil maiestatikoa dauka. Eta Ishak Paxa jauregiaren aurrean daukazula miresten duzularik, negu amaierako eguzkipean, ahoko lurrun artean, izugarria da. Paxa edo buruzagi kurduaren palazioak haraneko jangelan biltzen du inguruko herrien nahastea: seljuziden harrizko triangeluek armeniarren lore erliebeei eta georgiarren zutabeei egiten diete leku.

Beti izan da bidegurutze Dogubeyazit. Eta orain ere hala da. Europatik Indiarako bide nagusian gaude, otomandarrek eta pertsiarrek ezarritako muga, Turkia utzi eta Iranera sartzeko abiapuntua da.

– Iranera doan autobusa?
– Ez, Vanera noa.

Autobusa abiatzeko ordu erdi falta da. Ez nuen pentsatuko, baina duela hogeita hamar urtetik itxura gutxi aldatu zaion geltokian wifia daukate. Skypetik deitu dut etxera, gero datozen egunetan bilduko naizen jendeei, hitzorduak lotzeko. Kaletik DTPkoen musika entzun dut berriz ere. Herriko kaleak banderatxo horiz josita daude alderik alde, kurduen alkategaia emakumea da. Karteletako askotan feminismoaren sinbolo morea ageri da.

Berriz ere autobuseko orduak. Musika, liburuak, lo-kuluxka, aldamenekoak pistatxoak eskaintzen. Jendarmeen kontrola. Autobusean datorren familia Irangoa da.

– Kurduak zarete zuek ere?
– Ez, azeriak. – Turkiarrak, beraz, baina xiitak. Emakumeak oso atzean darama buruzapia, ilea gustura agerian utzita. Azeriak Azerbaijango estatuarekin lotzen ditugu, eta sarri ahaztu Azerbaijan handiena Iranen dagoela, Irango biztanleen laurdena direla eta Azerbaijan independentean baino bost aldiz azeri gehiago daudela hegoaldean.

Vanen ohi baino ostatu dotoreagoa hartu dut herri erdi-erdian. Aholkatutako txokoa zen, eta halakoxea egin didaten harrera. Ibrahim zuzendaria kurdu abertzalea da eta berdin gainontzeko langileak.

– Zu ere euskalduna? Newrozera etorri zara?
– Bai, bai. Diyarbakirren egon nahi dut larunbatean.
– Mmm. Bikaina izango da Diyarbakirgo Newrozeko ospakizuna.

Udaberriko ekinozioari deritzate kurduek Newroz edo urteberri (eta Asia Erdialdeko herri iranio gehienek, hala nola pertsiarrek, paxtunek, tadjikek, baita turkiar batzuek ere, azerbaijandarrek adibidez), eta egun nagusi den islama baino lehenagoko eguzkiaren erritua du oinarri. Mendebaldean izan ohi den musulmanaren irudia oso urria da, eta Turkiako kasuan, eta kurduei gagozkielarik, okerra dela ere esango nuke.

Aparteko ezer egin gabe, autobuseko orduek nekatuta iritsi eta lo-kuluxka laburra egin dut. Altueraren kontuak izan daitezkeela ohartu naiz. Ez gaude Andeetako goi-lautadan, baina etengabe 1.700 metro inguruan ibiltzeak ere badakar nekerik itsas mailan bizi garenontzat.

Altuera horretan dago Turkiako mugetan dagoen aintzirarik handiena. Izotzezko edertasuna dauka bertara iritsi naizenerako, Vango gaztelua altxatzen den muinoaren azpitik. Laster gautuko du, eta egun-pasa etorri diren familiak etxera bueltan dira. Gotorlekuraino igo naiz, parketxo batetik gorantz eginda. Elurrak lokatzari egin dio lekua eta ez dago erraz oinez ibiltzeko zenbait lekutan. Eguzkia aintziran ezkutatzen ari da, bizkor. Hegoaldera, Van zaharra, I. Mundu Gerrara arteko hiria. Armeniarrek beren estatuko zati izateko borrokatu eta, errusiarren laguntzarekin, turkiarrak eta kurduak kanporatzea lortu zuten 1915etik 1917ra. Gero, mendekua etorri zen, Turkiak onartzen ez duen genozidioa, herrien suntsiketa, gizon

gehienen hilketa, milaka emakumeren bortxaketa eta egungo Siriarako deportazioa.

Iragan tragiko horrekin ere, gaurko Van (ordukotik lau kilometrora eraikia), hiri bizi eta modernoa begitandu zait. Neguak harro aldarrikatzen du oraindik ere hemen dagoela, baina giro bizia dago, hauteskunde kanpainan kurduek dauzkaten itxaropenek areago bizitua. Beti egin zait bitxia kurduen eta armeniarren arteko konplizitatea, ulergarria biek ere Turkiako estatutik jasan dutenaren ostean, baina zelan ez gogoratu otomandarren genozidioan esku hartu zuten kurduak? Funtsean, kurduen artean agintari feudalen bultzada egon zelako, herritar arruntena baino gehiago. Egungo kurdu askok gainditu nahi duten iragan feudal hori, hain zuzen ere, eta armeniar biktimek esan ohi zietena gogoan dutenak: "Hurrengoak zuek izango zarete". Baina nolabait, iragan izugarri baten ostean herri nagusiki musulman batek eta herri kristau batek elkarrekiko harreman ona izan dezaketela agerian uzten du. Zapalkuntzari aurre egiteko baino ez bada ere.

Azadiya Welat-eko erredakziora egindako bisitan ikusi dut elkartasun horren berri atzera ere. Hrant Dink kazetari armeniarraren argazkia daukate. Urtetako presio, epaiketa eta *Agos* egunkariaren behin-behineko itxiera eta zigorren ostean, eskuin muturreko gazte batek tiroz hil zuen 2007an Istanbulen. Gero negarrak, krokodilo malkoak behin eta berriz espetxeratu nahi izan zutenek. *Azadiya Welat*-eko banatzaile gazteak zailtasunak ditu, poliziak etengabe jazartzen du. Kurdueraz dagoen egunkari bakarra da, eta kurdueraz hazitako itzultzaile kurduak aitortzen dit kostatzen zaiola irakurtzea.

– Ez dugu ia inoiz ikusi kurduera idatzita.

Pentsa liteke beste garai bateko emakumea dela, baina 25 urteko filologoa da, bizi osoan kurdueraz ikasteko aukerarik eman ez diotena. Egunkariko zuzendariak diost beraiek ere

egunkarian lanean lortu dutela alfabetatzea. Eta debekuak debeku, aurrera egingo dutela. Ez zaie eroslerik ez iragarlerik falta, poliziak iragartzen diren enpresei mehatxu eginda ere. Baina honezkero ezer gutxik harrituko ditu.

– Nire aurka auzi mordoa ireki dituzte, berrogei urteko espetxe zigorra eskatzen didate. Lehen zuzendaria kartzelan dago, bigarrena erbestean eta orain nire aurka doaz. Baina nola ez dugu gerrillaren berri emango, egunkari kurdua izanik? – begietara begiratu nahi diot, baina kosta egiten da egunkariaren sarreran dagoen mural izugarria ikusita. Urteotan poliziak edo paramilitarrek hildako kazetari kurduen argazkiak dira. Hogeita hamar hil dituzte. Erdia Musa Anter dago, Welat-en sortzailea eta XX. mendeko poeta garrantzitsuenetakoa. Kazeta sortu eta sei hilera tiroz hil zuten.

Ibrahimek hoteletik Cumhuriyet Caddesin behera bidali nau. *Dolmus* furgoneta publikoaren geltokiaren bila nenbilen, baina Renault Kangoo pare baten aparkalekua baino ez dut ikusi. Kurdistango ekialdera garraioa ere eskasten da, jendearen harridura hazten den neurri berean. Autoan bertan, "*roj bas*" (egun on) eta kurduerazko beste bizpahiru berbak sortzen dute konplizitatea. Ni naiz jaitsiko den lehen bidaiaria, Güzelsu herrian, besteak are ekialderago doaz, Kurdistango bihotzera. Kontrolak kontrol, etxean sentitzen dira, turkiar jendarmeekiko mespretxuz mintzatzen dira harro, kurdueraz beti.

Halako baten ageri da Hosap gaztelua, turkieraz Güzelsu izena daukan herriaren gainean ezin irmoago. Kamioiek altxatzen duten hautsari bizkar emanda zubi dotore batetik pasa dut erreka eta mendian gora abiatu naiz elur eta lokatzetan. Zementuzko etxe batzuk daude, lurrezkoak besteak, eta ardiak. Mahmudi Suleiman buruzagi kurduak duela 360 urte eraikitako gotorlekuaren atarian bi lehoik babestutako armarri dotorea dauka.

Gazteluaren azpitik ardiak zelai berrietara pasa dira. Bide ertzean nengoela herriko bi mutil hurbildu zaizkit. Ez dakite ia ingelesik, baina kurduerazko berbek te-etxeraino eraman naute. Atetik hurbil geratu gara, barruan edadeko gizonak daude. Baina beraiek ere etorri dira herrian egin ditudan argazkiekiko jakin-minez. Bigarren te bat atera didate, eta beraiekin esertzeko eskatu. Elkarrekin argazkia eskatu didate, apuntatu dut helbidea. Diyarbakirrera iritsi eta berehala bidaltzea da onena, garrantzitsua da hitzari eustea eta, argazkia bidaliko diodala aginduz gero, bidaltzea.

Herriko dendan geratu den furgoneta berdea gerarazi dute niretzat, atzera bueltan eraman nazatela eskatu diote. Atzera begiratu du gidariak, eta bidaiariak baietz erantzun du. Turkieraz mintzo dira. Halaxe ekin diogu atzera bideari. Bidaiaria gizon gaztea da, erdi ingeles erdi aleman kaskarrez komunikatu gara. Izmirretik etorritako irakaslea dela diost, eta paraje hau Mediterraneoko bere etxetik zeinen desberdina den gaztigatu dit.

– Prestakuntza ere gurea baino askoz apalagoa da hemen. Baina kontuan izan behar da beraiena ez den hizkuntzan ikastera behartzen ditugula.

Cavustepen bide ertzean utzi naute. Errepidea zeharkatu eta muinoan gora noa berriz ere, oraingoa bide luze eta artezagoa da, eta erdian hustasuna nagusi. Urartu-ko herriak eraikitako jauregi garrantzitsuenaren arrastoak aipatu dizkit Ibrahimek. K.a. 725 urteko jauregi hau ei da Urartu kulturan ondoen gordetzen dena. Ikusgarria baino gehiago, gotorra begitandu zait, lautadaren gainean muinotik dena kontrolatzen, mendi garaiagoak atzean. Eta Urartu hitzak euskararekin duen antzekotasuna ezin ahaztu, ez eta Kaukasoko herriak eta gurea lotuko lituzkeen konexio galdu horren bila Urartu aipatu duten ikerleak ere.

Haizea gogor ari da. Muinotik behera, ez dago herririk, urrunean gasolindegia ageri da, eta autoak ziztu bizian pasatzen

dira. Urartuko Sardur erregea bere jauregitik begira irudikatu dut, lurraldeotatik pasatzekoak ziren herri eta hizkuntza mordoa imaginatu ezinik.

Vaneraino ekarri nau agure batek furgonetan. Hoteleko atarian, eskumuinak eman dizkit Ibrahimentzat, eta atzamar biak altxatu ditu agur egiteko, kurduen garaipenaren seinale. Bazkaltzera joan naiz, aldamenean DTPko kanpainaren doinuak entzuten dira. Oparitxoa egin diot neure buruari: *sütlaç* izeneko arroz-esnea postretarako. Gainerrea egoten da hemen, eta barrutik ere gozozaleontzat berariaz hartuta puntua. Kale nagusitik mendebalderantz abiatu naiz kalexka estuagoetan *dolmus*-aren bila; beste alderdi baten mitinean puxika urdinak ari dira banatzen.

Ordubete baino gutxiagoan, errepide bazterrean utzi nau *dolmus*ak, Van aintziraren ertzean, sakonera handiko elur geruzek estalitako mendien artean. Eta han erdian, uhartea. Ekialde Hurbileko lekurik magikoenetakoa da, eta hamarkada askotako utzikeriaren ostean, berriz ere dotore ageri du armeniar eliza (gurutzerik gabe, hori bai).

Akdamar da, armeniar arte erlijiosoaren eraikuntza bikainenetakoa, are zoragarriago Van aintziran daukan kokalekuan. Eta pentsatzea galtzeko zorian izan dela, edo zenbat Akdamar galdu ote diren, gorrotoak edo besterik gabe utzikeriak eraitsita. Txalupatik jaitsita zaindaria etorri zait txartela saltzera, tripodearekin ez dudala sartzerik gaztigatu dit.

– Ez dago erabiltzerik?
– Bai, uhartean bai, kanpoan, baina ezin da elizara tripodearekin sartu.
– Zerbait hautsi daitekeelakoan?
– Ez dakit, arauak dira.

Behinolako jauregia eta monasterioa hondatuta daude, eta inguruan barreiatuta harrietako asko. Elizak ere izan ditu kalteak, baina hormako erliebe zizelkatuak eder-ederrak dira. Tripodea

kanpoan utzita sartu naiz, zaindariak eutsi dit abegikor, inork ostuko ez duela adierazteko-edo. Bere lankidea eta ontzizaina baino ez gauden arren. Barrua oso kaltetuta dago, fresko batzuk berritu dituzte, baina izan zenaren itzala da. Flashik gabe eta tripoderik ez, arnasari eutsiz lortu dut argazkia. Zaindariak berak eskatu dit kamera, niri argazkia egiteko.

Uharteko muinotxora abiatu naiz Gurutze Santuaren elizak (Akdamar izenaren bertsio turkiar ofiziala, "Ai, Tamara" erabat absurdoa da) goitik daukan ikuspegiaz gozatzera. Teilatu erdia zuri-zuri dauka, mendebaldeko aldean urtu da elurra. Nahi besteko patxadarik gabe deitu dit ontzizainak, itzultzeko ordua da. Txalupatik begira harrotasun iraingarriz higitzen du haizeak Turkiako bandera elizaren gainetik.

Bi zaindariak gurekin datoz txalupan. "Police" esan didate, eta zalantzan nago ingeles kaskarrak poliziaren eremu semantikoa hedatu dien, edo benetan poliziak diren. Kurduak dira, inondik ere. Txaluparen kareletik barrura begiratu dut, dantzan ari dira, Newroz ospatzen-edo, atzamar txikitik helduta, lau pauso txiki aurrera (ez dago lekurik hor barruan), lau atzera. Sartzeko esan didate. Gero, lehorrean, euren autoan estututa joatera gonbidatu naute.

– Vanera goaz gu ere.

Eremu semantikoa hedatu izana espero dut. Oro har uniformerik gabeko jende arruntarekin bidaiatzea atsegin dut. Zer esanik ez, leku gatazkatsuetan, herritarren zati handi batek gerrillari babesa ematen dionean, estatutik datorren zapalkuntza eta bazterketaren erantzun gisa.

Udaberri kurdua

Van-eko egunetan oso gustura ibili naiz, eta gustura emango nituzke beste horrenbeste eta gehiago aintzira ertzeko paisaietan

eta hari bizkarra emanez Iranera bidean dauden artzain herrixka jatorretan. Baina bihar da Newroz, eta Kurdistanera etorrita Diyarbakirren ez egotea barkaezina litzateke.

Tatvan hiri griseraino joan gara, aintzirako mendebaldeko muturrera, urertzetik urrundu eta hegoaldera doan bidegurutzea hartzera. Iparrera Nemrut mendiko bidea dator. Sumendi ikusgarria da, baina ez hainbat postal turistiko bete dituen Nemrut Dagi.

Kurdistanera heldu nintzen lehen aldian bisitatu nuen Nemrut Dagi. Istanbul eta Turkiako mendebaldeko kostaldeko jai girotik misterioz eta beldurrez inguratutako eremu lauso honetara etortzeko abiapuntu ezin hobea izan zen. Kapadozian eman genituen aurreko egunak. Urgup herrixkako autobus geltokian motxiladun asko bildu ginen iluntzean. Gaueko autobusetan abiatzekoak ginen, Antaliara gehienak, beste batzuk Esmirna, Bodrum, Ankara eta baita Istanbulera ere. Baina inor ere ez zihoan ekialderantz, turismoaren ibilbideak Kapadozian zeukan amaiera. Ez zait behin ere damutu, horratik, Zetaren bideetatik kurduen lurralderantz hurbildu izana. Urfa hirian itzarri nintzen, ederra bezain beatoa, Abraham-en hilobia, plazer hutsa zen lorategi usaintsuetan galtzea urratsak, zer esanik ez gerora ohituko ginen mendebaldarrik gabeko bazarretan murgiltzea. Urfa da ziur aski Kurdistanera egon daitekeen pasabide atseginena, Turkiako goi lautada atzean utzi eta hiriko kaleetan bat egiten dute Mediterraneoak, Anatoliak eta Ekialdeak: turkiarren, kurduen, arabiarren eta kristauen nahaste gozagarri batean. Harrango arabiarrenganaino joan ginen, munduko eremu habitatu zaharrenetakoan solas pixka bat, tea hartu, eguerdiko gerizaz gozatu, eta domino partidatxoa Alirekin. Siriako muga Harrandik oso hurbil dago, harrandarrek haiekin dute turkiarrekin edo kurduekin baino antz handiagoa.

Baina Nemrut Dagiraino igotzeak murgildu gintuen bereziki Kurdistanen. Basamortu aurreko eremutik mendiko belardi eta artzain kanpamenduetaraino heldu ginen, gidaliburuetako hote-

letatik aurrera tontorra baino lehenxeago bide ertzeko ostatu txikian aterpe hartu eta Ismail eta Baris anaiekin barazkiz, arrautzaz eta bildots haragiz osatutako afari bikainaren abaroan lokartu ginen. Teak ere ez zigun eragotzi gaubeilako solas atseginean loak hartzea. Gau beltza zela jaiki eta tontorreko bidea hartu genuen, egunsentia dozenaka turistarekin batera ikusteko, bi mila urtez eguzkia jaikitzen ikusi duten harrizko buruen aldamenean. Ekialdeak eta mendebaldeak, Pertsiak eta Greziak bat egiten dute Nemrut Dagi-ko gailurrean. Zibilizazioa eta barbaroen mundua deitu zutena, elkar hartuta Kurdistanen. Eta egunsenti miresgarri eta eskulturen ederrarekin batera, Ismail eta Baris-en gaubeila eta geroko gosari oparoa geratu zaizkigu gomutan bereziki. Bidaietako memoria hautakorra da, eta onenarekin geratu ohi da. Etxean daukagu anaiei erositako zapi hori, gorri eta berdea.

Van aintzira atzean utzita ere, altuera galtzen goaz, paisaia elurtuari berdeak hartu dio lekua, eta berdeak ezinbesteko duen elementuak: euriak. Sei-zazpi orduko bidaia behar zuena luzatu egin da, eta errepideko geroz eta kontrol ugariagoek are gehiago mantsotzen digute erritmoa. Azken bietan autobusetik jaitsarazi dituzte gizon gazteak. Atzerritarra izan ezik: pasaportea begiratu eta berehala itzuli didate. Iluntzen ari du, Diyarbakirrera hurbiltzen ari gara. Airean nabari dut azaltzeko oso zaila den zerbait. Herrixka baten ikusi dut: sua. Gero hurrengoan. Batman hiri handitik pasa gara, ordubetera dago Diyarbakir. Batmanen euriari aurre egiten kurduak, beren banderak astintzen, oihuka. Eta sua hemen ere. Udaberria, urte berria, natura legez Kurdistango herria ere berpizten den eguna, eta sua berpizkundearen sinbolo.

Diyarbakir jai handia da iritsi naizenerako. Bîhar elkarteko lagunak ditut zain. Euskal Herriaren eta Kurdistanen arteko elkartasun taldea sortu berri da, baina indartsu dihardute lanean. Udaletxean cocktaila dago. Udaletxe alternatiboan, hobe esanda: Sur barrutiko alkate Abdulla Demirbas kargugabetu egin dute, besteak beste, turismo liburuxka bat turkieraz gain

kurdueraz eta beste zenbait hizkuntzatan argitaratzeagatik. Baina datorren asteko hauteskundeetan garaipena errepikatzeko itxaropena dauka.

– Ezkontza bat dago hemendik hurbil, eta benetako ohorea litzateke bertara agertuko bazinete. Ardura dizue?

Ezkontzara gonbidatu gaituzte, gonbidatu gaituztenez. Ez dut ukatuko hipokrisi puntua: etxean, Europan ezkontza batera gonbita konpromiso desatsegina zait gehienetan, eta kondeszendentzia puntu etnografiko batekin hurbiltzen naiz munduko beste txoko batzuetako zeremonietara. Zer egingo diogu. Hiriko harresietatik urrundu gara, Tigris ibaia urrunean, eta Alde Zaharreko kaleetan barna iritsi gara.

Ezteia oso jendetsua da, txalo eta oihuka hartu gaituzte. Ez hainbeste euskaldunak garelako, Abdulla gurekin datorrelako baino. Nora joan, etengabe geldiarazten du jendeak.

– Baina berriz alkate hautatzen banaute…
– Tira, tira, badakizu ehuneko 60tik gora lortuko duzula eta! – Esan dio Juanek, Bilboko aspaldiko lagunak.
– Ea egia den. Baina hala ere, Turkiako gobernuak ez digu barkatuko. Espetxeratzeko gogo handia dauka.

Arduratuta barik, irribarretsu jarraitzen du besarkatu eta txalo egiten dioten dozenaka lagunen artean. Dantza hasi da laster, eta altxatu gaituzte bisitariak ere. Argazkien eta bideo-kameraren aitzakian pixka bat bazterrean geratu naiz. Kurduen ohiko dantza aski erraza da zorionez, aldamenekoari atzamar txikiarekin helduta lau pauso oinarrizko jarraituz gero ez dago erridikulurako arrisku handirik. Baina aukeran, mahaitik jokaldiaz berbetan gusturago. Gizon-emakumeek nahastean dantzatzen dute, milaka urtean egin duten legez, bisitari askoren harridurarako. Aurreiritziak motxilatik kanpo utzi behar dira bidaiatzean.

Iritsi da. 2009ko martxoak 21, Newroz. Milaka lagun Diyarbakirren, hiritik kanpo zelaietarantz, eta gu uholdearen erditik. Poliziak geldiarazi gaitu, probokazio jokoan sartu gara. Zuzen, begirunez eta Estatu Batuetako akademiaren baten ikasitako azentuz mintzatu zaigu polizia. Gure konplizitatearen bila ari da, ea gustura gauden Turkian, zer bisitatu dugun, ea inork turkieraz dakien. Eutsi diogu, amore eman du azkenean.

Gorria, horia eta berdea. Eta oihuak, eta oihu gehiago. Kurdistanen aldekoak, gerrillaren aldekoak. Eta bibak "presidenteari", "Biji serok Apo", gora Apo presidentea, Abdulla Ocalan, PKK Kurdistango Langileen Alderdiko gerrillaren sortzailea, aurten hamar urte dira Europako ihesaren ondotik Kenian bahitu eta Imraliko uhartean preso dagoela.

Leku pribilegiatua gorde digute Europatik etorritako taldeoi, Abdulla Demirbas ere hurbil dago, dotore-dotore jantzi kurdu marroiarekin. Eta behean, milaka eta milaka lagun, milioi bat omen. DTPren banderen itsasoa da, ez dira falta PKKrenak ere, eta "martiri" batzuen argazkiak, baina Aporentzat dira berba gehienak.

Leyla Zana diputatu eta hamar urtez espetxean egonak, Europako Parlamentuko Sakharov sariaren irabazleak hartu du hitza. Xezal itzultzailea mareatu beharrean gabiltza, ea zer dioen Zanak, ea elkarrizketatzerik izango dugun, ea zer dioen jendeak eta abar. "Mam Jalal" egin du oihu, "Mam Jalal" berriz ere. Jalal Talabani Irakeko presidente kurduari zuzendu zaio Leyla Zana, ez dago isilaraziko duenik, hain gutxi asteon Turkiako agintariekin bildu eta gerrillari armak utz ditzala eskatu diona. "Nola eska dezakezu horrelako zerbait egunero-egunero zapaltzen eta jipoitzen jarraitzen dutelarik?"

Urrunean sua piztu dute, su erraldoia. Bizi nahi duen herri honen sua itzali nahi duenari,ederto kosta behar zaio.

– Ederra izan da. Baina ezin duzue imajinatu ere zenbat sufritu behar izan dugun, zenbat urteko debeku, jazarpen, hilketa eta

umilazioak azkenean milioi bat lagun biltzeko, askatasunean, kurduak garela aldarrikatzeko.

Hegoaldera

Mardin-en geratu da autobusa. Diyarbakirrek iradokitzen duen Ekialde Hurbileko giroak gainez egiten du muinoan gora eraikitako hiri zoragarri honetan: harresien gainetik Siriaraino hedatzen den eremu elkor beilegia, eta hiriko bazarrean, denetik, asto gainean astiro garraioan. Kurduera nagusi, arabiera ere erraz entzuten da, eta minareteen aldamenean ageri dira elizetako gurutzeak ere.

Mardinen ezagutu nituen Ekialde Hurbileko lehen kristauak. Deyrul Zafaran monasterioa Alemaniatik iritsi berri zen asiriar jatorriko mutilak erakutsi zigun, eta Midyat hiriko bisitarako dei egin zuen. Tur Abdin-eko goi lautada honetan kristau komunitate oso garrantzitsuak egon dira ia bi mila urtean, azken mendean desagertzear badaude ere.

– Arameeraz egiten dugu, Jesukristoren hizkuntza eta mezua daramagu. Horregatik, armeniarren gisan sarraskitu gintuzten, baina armeniarrez gutxi hitz egiten bada, gurea inork ere ez du aipatzen. Eta azken urteotako gerrak geratzen ziren ia kristau guztiak kanporatu ditu.

Gautu du Silopiko mugara heltzerako. Irak daukat aurrean. Ez da harrokeria: inoiz baino lasaiago nago, lagunak bisitatzera doanaren patxadan. Lehen aldiz hegazkinetik jaitsi eta *checkpoint*-ak ikusita, izan nuen sentipen arrarorik, Irakeko estatuko leku segurua izanda ere, atentatua egitea ez baita hain zaila. Baina lasai noa gaur, lasai noanez. Autoan aurrean doan bidaiariak aldamenekoari begiratu dio, gizon nagusia da, eta harrituta dago egunotan graduazio altuko militar bat atxilotu dutelako.

– Sekulako sarraskiak egin zituzten 90eko hamarkadan Silopin eta inguruko herrietan. Orain hasi dira agertzen gorpuak.

– Ergenekon kasua izan zen, ezta?– Irribarre egin dit kurduak, eta gero orrialdea pasa du. Azken bidaiaria turkiarra da.

Eskuin muturreko militar eta goi karguek eratutako taldeak estatu-kolpea prestatu eta ehunka hilketa burutu zituzten. Oraingo gobernuaren bultzadaz trama hura desegin eta erantzuleak epaileen aurrera eramateko ahaleginean dihardute. Baina kurdu asko mesfidati dira hauteskunde kanpainaren ostean ere berdin jarraituko ote duten.

"Ergenekon", "Ergenekon" diost aldamenetik ahapetik agureak irribarrez, autoa beste aldean miatzen ari den poliziari begira. Baina benetan ergelkeria litzateke poliziarekin arazoetan sartzea hau bezalako muga baten.

Tramiteak behingoan amaituta, Habur zubiaren gainetik goazela konturatu naiz, eta turkiar militarrei min handiena ematen dien kartela: "Welcome to Iraqi Kurdistan".

Zakhotik Dohuk-era doan taxia hartu behar dugu. Kurdistango eskualde autonomoko hiru probintzietako bat da Dohuk, eta besteak Erbil eta Suleimania dira. Aldaketa nabari da, noski, Kurdistanen jarraituta ere. Turkia laiko eta mendebaldartutik Ekialde Hurbilera egin dut jauzi berehala, alfabeto latinoak arabiarrari egin dio lekua, baina aldaketa nagusia debekatutako sinboloak hemen ofizial izatea da, eta sinboloak debekatzeko ardura daukaten polizien ordez sinbolo horiek paparrean eta besoan daramatzaten pexmerga soldaduak daude kontroletan.

Lasai noa, Kurdistan eremu segurua da, oraindik izua gogorarazten duen "Irak" izena aurrean izan arren. Baina lasai joanda ere beti geratzen da zalantza puntu bat, arriskua luzaroan agertu da errepide kontrol faltsuetan. Afaltzera geratu gara, leku atsegina da, gidarien ohiko geralekua. Dirua aldatzeko aprobetxatu dut, eta kurduerazko berba gehiago lantzeko. Gero, bidaiako bigarren zatia, Erbileraino, goizaldean. Lehen bide seinaleek beste hiri baten izena dakarte, horratik: Mosul.

Arabiar sunita saddamzaleen hiri garrantzitsuenetakoaren aldirietatik pasatzen ari gara. Hiriko iparra kurdua da nagusiki, baina hutsik dago beste aldea eguneko hainbat orduz, insurgentziak bere eginik. Azkenik Kurdistan autonomorantz egin du errepideak eta Erbilera goizaldean iritsi gara.

Biharamunean, azken txangotik agurtu beharrekoen zerrenda luzea daukat: el Messalla bakearen aldeko elkarteko lagun ausartak, Manuel Martorell kazetariaren bidez Kurdistango gobernuan harrera egin didatenak, Ainkawa auzuneko lagun kristauak, arameera liturgiarako ez eze kaleko hizkuntza arrunt gisa darabiltenak (nahiz eta, Bagdadetik ihesi etorri diren kristau askok arabieraz egiten duten). Lehen aldiz kalaxnikovarekin zaindutako mutil batek harrera eginda sartu nintzen elizara.

Erbilgo zitadelan ez da inor bizi eta etxe asko erdi erorita dago, baina heldu diote berritze lanei. Iaz alfonbra erakusketa batera ekarri ninduten zitadelako museora, afaltzera gonbidatu baino lehen. Abegikortasunaren zentzua oso garrantzitsua da kurduen artean, beste inon ikusi ez dudan eran. Autoa zabalik abiatu ginen afaltzera, eta berdin afal ostean Minaret parkean paseatzera. Sinestezina gertatzen da udaberriko gau batez gurasoak seme-alabekin paseoan ikustea, zukuak edaten, ur ertzean jarrita, solasean lasai, eta Iraken zaudela ohartzea. Eta berdin deritzozu sinestezina etxeko kamera garestia autoan uzteko esaten dizutenean.

Esana zidan Maria Sanchok, Erbilen urteak eman dituen madrildarrak:

– Madrilera itzultzean, kosta egiten zait tabernetan poltsaren zain beti egon behar hori. Badakizu, kurduak ez dira perfektuak, agian epaileren bat konbentzituko duzu libre utz zaitzan norbait hil baduzu, baina lapurreta egitea inoiz ere ez dizute barkatuko. Egin daitekeen gauza larriena da, lotsagarriena, guztiz zikina.

Hotelera itzulitakoan, sugearen argazkia ikusi dut eta yazidiak diren galdetu diot. Erbilgo hotel gehienetako langileak eta ugazabak dira zoroastrismoarekin lotutako erlijio horretako kideak. Urtetako bazterketaren ostean, kurdu askok onartzen dute yazidiak direla "benetako kurduak", inoiz islamiartu gabeak alegia. Lalesh-eko santutegi yazidiaren argazkia erakutsi diet, eta pozarren besarkatu naute. Beste te bat eta hizkuntzaren eragozpenak gaindituz yazidien gaineko gezurrak (deabruaren adoratzaileak direla eta abar) gogoratu eta benetako sinesmena zertan den nabarmentzen ahalegindu dira goizeko ordu txikietara arte hiru zerbitzariak, tea esku baten eta zigarroa bestean.

Suleimaniara bidean paisaia ez eze pexmerga soldaduak ere aldatzen dira. Bide laburrena Kirkuk hiritik pasatzen da, urrunean petrolio zelaiak agerian. Kurduentzat beren hiriburua da, Saddam Husseinek milaka kanporatu eta arabiar kolonoak ekarrita ere. Egoerak tentsiopean jarraitzen du, auzoak zatituta eta kurduen nagusitasuna nabarmena den arren, edozein unetan leher daiteke.

Orain artean Mustafa Barzaniren KDP alderdiaren lurraldean egon gara, eta Jalal Talabaniren PUKen eremura sartu berri gara. KDPrenean ez bezala, PUKenean Irakeko bandera ere ageri da kontrol guztietan Kurdistangoarekin batera. Buruzagietatik datoz desberdintasun nagusiak: Barzani kurdu tradizionalago gisa agertu ohi da, klanaren pisu handiagoa dauka, eta 90eko hamarkadan Saddam Husseini laguntza eskatzera iritsi bazen ere, egun bera da Kurdistango presidente eta tinko eusten die kanpoko presioei. PUK Jalal Talabanik sortu eta historikoki modernoagoa izan da, iparreko kurduek biei ere jatorri eta izaera tribala leporatzen dieten arren. PUK Internazional Sozialistako kide da, baina Talabani, estatu-gizon gisa agertzeko malabarismoetan, lotsarik gabe moldatu da Irani, Turkiari zein Estatu Batuei nahi zutena esateko. Askotan mugaz beste aldeko kurduei bizkarra emanda ere.

Suleimanian ditudan lagun eta ezagun gehienak ez dira bertakoak, horratik. Irandik ihesi etorritako kurduak dira, aiatolen erregimenak kanporatutako gazte bikainak. Ismailen etxean geratu naiz, banekien ez zidala hotelik aurkitzen utziko. Koinatua preso dauka, heriotzara zigortuta egon zen eta lortu dute urkamenditik libratzea, baina espetxean jarraitzen duen kazetari gaztea da.

Ismailekin ezagutu ditut inguruotako paraje garrantzitsuenak, Suleimaniako parke eta lorategi berriak, bazarra eta beste hainbat txoko. Familiako txangoa eginda joan ginen Halabjara ere, Saddam Husseinen bonbardaketa kimikoaren hogeigarren urteurrenean. Hantxe daude gasak hildako bost mila biktimen ondorengoak, eta hantxe herriko kanpoko aldean altxatutako monumentua, herritarrek eurek suntsitua duela hiruzpalau urte. "Gernika kurdua" deitu zion Fermin Muguruzak eta halaxe eraman izan dituzte agintari kurduek atzerriko bisitariak, herritarrek baina, Halabjan dauden arazo larriei bizkar ematea leporatu zieten politikari horiei, eta amorrua monumentura bideratu zuten. Udaberriko egun beroan bisitatu genuen, ostiralez,

Halabja moduko herri kontserbadorean inor aurkitzeko konplikatu samar. Baina hilobi bakar baten mila gorputik gora daudela irakurtzeak dena esaten dizu.

Goizaldean joan naiz Ismailenetik. Beste lagun batekin garraio terminalera abiatu eta Raniara doan taxi konpartitua hartu dugu. Ez daki ia ingelesik, baina egin dugu plana

– Historialariak gara, ados? Ez dakizu ingelesik, nik blablabla esaten dut eta zuk baietz, espainieraz ariko banintz bezala.

Plana irrigarria iruditu zait baina iritsi gara Rania herriraino. Mendi zoragarriek inguratzen dute, eta harantz bidean goaz. Kontrolak ugaldu dira, erraz pasa ditugu azken aurrekora arte. Orduan, autoa goitik behera miatu eta pasaporteak eraman dituzte. Zerbait esan diote lagunari, zakar, berak are zakarrago

erantzun die, ahotsa goratzen ari dira. Eta halako baten, aurrerantz jarraitzen utzi digute.

Beste auto bat iritsi da, laguna taxiarekin itzuliko da, eta ni gidari berriarekin abiatuko naiz. Azken kontrola geratzen da mendietara iristeko, baina herriko kaleetatik sartu da, kontrolari itzuri, eta mendi bideetan jarraitu dugu. Paisaia arnasa kentzekoa da, mendi garai eta berdeak, eta arroila estuak, han hondoan errekak doazela. Goi Pirinioen bihotzean egon ninteke, halako baten gerrillariak ikusi ez banitu. PKK dakar bere fusilak, baina PJAKekoa dela dio. Irratiz egin du berba, itxarotekoedo gaztigatu diote.

Aurrerantz jarraituta, nomada kurduen kanpamendua ikusi dugu, udako larreetara igo barik oraindik, ardiz inguratuta. Haranaren beste aldean herri bat dago, gure aldean borda bat eta dozena erdi gerrillari. Lekua paregabea da, baina inork ez daki ingelesik. Bazkaltzen eman didate, tea, te gehiago, eta beste bat. Orduak aurrera doaz eta erreportajerako lotu nuen kontaktuaren arrastorik ez. Kirmen Uriberen liburua amaitu dut, beti atsegin izan dut etxetik urrun etxeko kontuak irakurtzea. Irati Elorrietaren lehen ipuin bildumari heldu diot, Berlingo istorioetan murgildu naiz, te gehiago, iluntzen ari du Kandil mendietan eta ez da inor ageri.

Gerrillari batek generadorea piztu du, beste batek mantak jarri ditu leihoan eta gero beste errezel bat. Hotz egiten du kanpoan, baina hemen bero-bero gaude. Harik eta afaldu eta gizonok aldameneko gelara joan behar izan dugun arte. Linterna piztu dugu ohea paratzeko, apur baten bakarrik. Bonben hots lehorra entzuten da tarteka, Iranek bonbardatzen dituen posizioetakoak. Argia piztu barik, hobeto, baiki.

Kandilgo mendietan uraren isuriak eta txorien txorrotxioak esnatzen zaitu, Iranek bonbarik bota ezean. Atzo iritsitako familia badoa berriz ere mugaz beste aldera, semea bisitatzen egon dira. Amonak musu eman dio biloba gerrillariari, baita lau gizonen erretratuak dauden argazkiari ere, bosgarren baten aurpe-

giaren inguruan, Ocalan da bosgarrena, noski, eta martiriak dira beste laurak. Euretako bat hatzez adierazi eta bihotzera eraman du eskua, gero begiak gorritu zaizkio. "Sehid" da, martiria.

Eta menditik jaitsi berri direnak ere "sehid" izateko prest daudela esan didate. Ronahi Ahmed da PJAK gerrillako bozeramaile gaur. Kamera jarri eta elkarrizketa baino lehen Euskal Herriaz zerbait gehiago jakin nahi izan du, emakumeez eta borroka feministaz batez ere.

– Gurean borroka hirukoitza da, Irango estatuaren aurka, baina baita beste esklabotza tribal eta patrialkalen aurka ere.

Gerrillan emakumeak geroz eta gehiago direla dio, eta aginte postuetan gutxienez ehuneko berrogei izan behar dutela. PKK-tik aparte daudela esanda ere, ez du ezkutatzen Ocalanekiko lilura, paparrean bertan darama Apo-ren argazkia.

– Bai, noski, eragin handia izan du gugan. Baina bi erakunde desberdin gara.

Ahmedek berretsi dit ez daudela armak uzteko prest, ez Iranen demokratizazioa lortu artean, herrien eta giza eskubideak aitortu artean eta heriotza zigorra ezabatu arte gutxienez. Bazkaldu baino lehen azken grabaketak egin ditugu, eta zeintzuk ager daitezkeen eta zeintzuk ez jakinarazi dit. Ronahi Ahmed bera da ager daitekeen emakume bakarra.

– Gainontzekoentzat oso arriskutsua litzateke. Datozen orduetan muga zeharkatu eta gerrillari bizitzari ekingo diote Iranen aurka. Ezagutuko balituzte arriskutsua litzateke.

Ahoan korapilo sendoa askatu ezinik esan diet agur, eta mendian behera autoraino lagundu didaten gerrillariek besarkada sendoa eman diote elkarri. Badakite, agian, ez dutela berriz elkar ikusiko.

Kurduak elkarren kontra: Kaukasoko eredua

Karlos Zurutuza

"Kurdueraz hitz egiten dut baina kurdua ez, yezidia naiz", zioen Khudoyan jaunak Yerevan kanpoaldeko bere bulegoan. Armeniako Yezidien Elkartearen egoitza eraikin erraldoi eta zaharkitu batean zegoen, bigarren solairuan hain juxtu. Khudoyanen mahai gainean, bi gurpilezko telefono aparailua eta Stalinen busto txiki bat; bere gibelean, yezidien bandera; zuri-gorria, eguzki txiki bat goialdeko ezkerreko koadroan. Argi indarrik ez, eta ilunpetan eutsi behar izan genion errusiar vodkari. Gero, Khudoyanek bere pasaportea atera zuen bularreko poltsikotik eta leihorantz gerturatu zen. Azal gorriaren gainean, urre koloreko "CCCP" hizkiak bereizi zituen ilunabarreko argi apalak.

"Ikusten duzu? Nazio atalak yezidi dio, eta ez kurdua. 2004ko uztailean, Khudoyanentzat indarrean zegoen agiri eder eta zaharkitua.

Vodka ez ezik, galderak ere pilatu ziren nire buruan. Nortzuk ziren yezidiak? noiztik zeuden Kaukason? zergatik zioten kurduak ez zirela?

Adituek diote yezidismoak animismoan duela jatorria baina mendeetan zehar inguruko erlijioen elementuak onartu dituela, zoroastrianismotik islameraino. Yezidiek eguzkiari otoi egiten diote eta lau elementuak sakratutzat jotzen dituzte; areago, jainkoak (Khuda) giza arraza berauek zaintzeko sortu zuen. *Malak Tawus* pauma sakratuak "eroritako aingerua" ordezkatzen du, hortik deabrua gurtzea leporatu izana mendeetan zehar. Kurduen jatorriko erlijioa dela esan izan da maiz, hain dira antzinakoak erlijio honen sustraiak. Egia ala ez, gaurko kurduen %90 suni musulmana da baina kurduak dira yezidi guztiak. Zenbaki baikorrenek diote yezidiak milioi bat lagun direla mundu osoan, gehiengo handia Hego Kurdistanen dagoela-

rik. Han dago Lalesh, euren tenplu nagusia. Bere iturri sakratuak eta kono-formako kupulak ikustearekin egiten dute amets Armeniako 50.000 yezidiek.

"Nik ere joan nahi nuke. Momentuz, nire *berat* honekin konformatu behar", esan zuen Khudoyanek, bere mahai azpiko kajoitik lurrezko bolatxo bat ateratzean. Irakeko yezidi batek ekarri omen zion gune santutik.

Baina Armeniako hiriburuan ere bazen toki sakratu bat. Hurrengo egunean ordubete pasatxo eman genuen Khudoyanek eta biok Yerevan zeharkatzeko. *Marsrutka*z abiatu ginen, jakina, sobiet munduan ohikoa den taxi furgonetaz. Yerevan hiria asfaltorik gabeko kale hartan hiltzen zen, zaborrez beteriko mendixka batean. Yezidiena azken etxea zen.

"*Sheija* zain dugu", esan zidan Khudoyanek belarrira.

Hirurogei urte pasatxo izango zituen gizon altu eta dotorea zen; bibote zuria eta begi berdeak. Khudoyanek bere eskua hartu eta adeitasunezko musu bat eman zion. "*Herati*" ("ongi etorri" kurdueraz), erantzun zuen yezidi entzutetsuak.

Egur eta uralitaz estalitako etxe ttipi hura unibertso oso baten estalkia baino ez zen. Paretak irudiez josita zeuden: *Malak Tawus* pauma sakratua, Zoroastro-Zaratustra profeta, Jesus gurutzean, Ama Birjina negarrez... Jarraian, Lenin proletalgoari aldarri egiten San Petersburgon, Stalinek Roosevelt eta Churchillen artean barre egiten zuen bitartean. Baliteke huraxe izatea yezidismoaren biziraupenaren sekretua: errefusatu baino, berean integratzea inguruko siniemen, korronte nahiz ideologia oro. Burutazio hau *sheij*-ak berak baieztatuko zidan berehala.

"Sinesmen guztiek daukate egiaren zati bat. Funtsean, 72 tribu daude munduan eta guztien alde egiten dugu otoitz", zioen Yerevango yezidien buruzagiak.

Otoi gelako aldarean zetazko biribilkiak pilatzen ziren elkarren gainean. "Laleshetik ekarritako altxorrak" babesten zituzten. Zoritxarrez, *sheij*-ak urtean behin askatzen zituen eta hura ez zen eguna. Aurrealdeko pareta mural handi eta koloretsu

batek estalita zegoen: Ararat mendi gailurretik hegan zihoazen, iheska, bi hegazti-saldo, yezidi eta armeniarren diasporaren alegoria gisa. Lehen Mundu Gerraren hastapenetan, turkiarrek milioi bat armeniarretik gora akabatu zituzten. Ihes egitea lortu zuten armeniarrek eta yezidiek ekialderantz jo zuten, Kaukasorantz. XX. mendeko lehen genozidioaren bigarren ondorio latza, armeniarrek deituriko «Mendebaldeko Armenia» otomandarren eskuetara igarotzea izan zen. Ararat erraldoia barne.

Nolanahi, Transkaukasiaranzko (Georgia, Armenia eta Azerbaijan) kurduen migrazio mugimendu hau XIX mendean hasia zen. Orduan, Pertsia eta Errusiaren arteko hitzarmenek milaka kurdu mugiarazi zituzten euren jatorriko herrietatik. Yezidi kurduek kristauak ziren Georgia eta Armenia aukeratu zituzten babesteko, eta Azerbaijan aldera jo zuten kurdu musulmanek.

XIX. eta XX mendeetako migrazioak itzelak izan arren, kurdu herria eta Kaukasoren arteko loturak ehunka urte zituen jada. Erdi Aroko kronikek kurdu leinu boteretsuak aipatzen zituzten; Najichevango eskualdean (Azerbaijan) kurdu herrixkak aipatzen dira X. mendean, eta poema nahiz kanta ugarik jaso dute, besteak beste, sheik Sanan kurdua eta armeniar mojaren arteko erromantze eskandaluzkoa edo zenbateraino miresten zuen Mirza Mahmudek bere georgiar emaztea. Hau guztia gutxi ez, eta kurduek gertuko senideak dauzkate osetiarrak. Kaukasiar herri hau, hain juxtu, alaniar zaldun eta gerlari trebeen ondorengoa da. Izan ere, Ipar eta Hego Osetiaren arteko mendi igarobideak "Daryal" izena du ("alaniarren atea" pertsieraz), bai eta "kurduaren igarobidea" ere.

Ez dezagun denbora galdu mendeek horitutako mapetan. Toponimoak baino, agian esanguratsuagoak dira antroponimoak, pertsonen izenak: "Gurco" (georgiarra), "Chachane" (txetxeniarra), "Cherkez" (zirkasiarra)… Kaukasoko kurduen artean erraz aurki daitezken izen-deiturak dira. Yerevango sheijak buruan zeraman *papaja*k ere (Kaukasoko hegalik gabeko larruzko txanoa) txetxeniar gerlariak ekartzen zituen gogora.

"Armeniarrei asko zor diegu, beraien laguntzari esker gaude bizirik egun", zioen sheijak, bere begirada berdea Andranik jeneralaren irudian josiz. Otomandarrei gogor aurre egin bazien ere, armeniar jeneralak Kaliforniako erbestean eman zituen bere azken urteak. Hauxe izan da, hain zuzen, armeniar askoren patua XX. mendean.

Anatoliako "periferian"

Georgiak eta Azerbaijanek ez bezala, Armeniak ez du ukitzen Kaukasoko mendilerroa. Urruti daude oso Kazbek, Elbruz edota Skararen gailur zuriak. Bere orografia, eguraldia eta kokapen geografikoari erreparatuz gero, errepublika txikia Anatoliar ordokiaren jarraipen hutsa izan zitekeen. Ekialdeko bazter honetan nekez marraz liteke kurduak eta armeniarrak banatuko zituen marra zehatzik, bi herriok elkarrekin bizi izan baitira milaka urtez eskualde idor hauetan. Bada, hein batean, armeniarrak aitzindari izan dira kurduen kultura ikertzen eta bultzatzen. XVII. mendean Simeon Leais-ek (Ukrainako armeniarra) kurduei buruzko txosten baliagarri bat osatu zuen Ekialde Hurbila bisitatu ondoren. Ararateko Artemiok ekimen berari jarraitu zion, eta XIX. mendean, Khachatur Abovianek, armeniar idazle ospetsuak, kurduen eta bere herriaren arteko antzekotasunak zerrendatu zituen ikerketa sakon batean. Armeniar ikerlari guzti hauen ahaleginak, "kurdologia" izeneko hizkuntzalaritza diziplina berriaren hastapenak izan ziren.

Sobietarren garaian kurduen kultura eta hizkuntzarekiko interesak bizirik iraun zuen. *Riya Taza* ("Bide Berria"), Armeniako kurduerazko lehen egunkaria, Yerevanen plazaratu zen eta *Sovietski Kurdistan* ("Sobiet Kurdistan") geroxeago. Kurduerazko irratsaioak ugaldu ziren Armenian, hizkuntza bereko liburuen argitaratze oparoarekin bat. Nolanahi, agian kultur pizkunde honen pasarte esanguratsuena *Kurdistan-e sorkh* ("Kurdistan Gorria") distritua dugu. Azerbaijango 5.000 metro koadro har-

tzen zituen non 25 herri kurdu zeuden, Armenia eta Nagorno Karabaj eskualde autonomoaren artean. Hiriburua Lachin herria zen, eta bizirik iraun zuen zazpi urteetan zehar (1923-1930), *Kurdistan-e sorkh*-en baino ez zeuden kurduerazko eskolak eta hizkuntza bereko argitaletxeak munduan. Distritu honen sorrera nahiz amaieraren nondik norakoak ez dira inoiz gardenak izan. Tamalez, "Arkadia kurdua"ren azkenak aro berri eta ilun bati bide eman zion. Eskolak itxi, liburuak debekatu eta Kaukasoko milaka kurdu Asia Erdialdeko errepubliketara bidali zituen Stalinek, txetxeniar edo zirkasiarrekin ere egin zuen legez. Baten bati atentzioa eman badio egun Kazajistanen edo Turkmenistanen dagoen kurdu mordoak, hementxe arrazoia.

80ko hamarkadan kurdu askok Ipar Kaukasorantz jo zuten, erortzear zegoen inperioaren gaineko krisia itzela baitzen. Edonola, kurdu "gorri"ek euren urte gorrienak ikusi behar zituzten aurki. 1988an, Nagorno Karabakheko auziak Azerbaijan eta Armeniaren arteko gerra piztu zuen, eskualdeko gehiengo armeniarrak Azerbaijandik banatu nahi zuen. *Kurdistan-e sorkh* gurutzatutako suaren erdian harrapatu zuen gatazkak. Zazpi urte iraun zuen gerra hartan, armeniarrek ez zuten bereizi azeri eta kurduen artean; denak "musulmanak" ziren. Kurduen Kelbachar, Lachin, Zengilan eta gainontzeko herri guztiak erraustu zituzten Errusiaren laguntzaz. Paradoxa mingarria da oso horietako asko yezidien esku hiltzea. Gelditu ziren kurduek heriotzarekin ordaindu zuten euren ausardia; alde egindako gehienak, aldiz, Azerbaijango errefuxiatu guneetan bizi dira oraindik.

Egun bost ordu behar dira Yerevango kanpoaldeko auzoetatik Lachingo pasabideraino iristeko. Hala du izena Armenia eta Nagorno Karabajeko enklabea lotzen ditn karreterak. *Hayastan Fund*ek (armeniar diaspora) ordainduta, hauxe da, zalantzarik gabe, Kaukasoko errepiderik onena: erdian bi karrilak bereizten dituen marrak dauzka, burdinezko babestekoak alboetan, eta asfaltoa leuna bezain sendoa da. 30 minutuko txangoan zehar, inguruko isiltasun gordinak baino ez digu gogorarazten

bertan duela 15 urte bizi izandako drama. Lachin hiriburu ohiak "Berdzor" du izena gaur. Eta Armeniako yezidi kurduak, "yezidiak" besterik ez dira. Gatazka bukatu eta berehala, Armeniako 1995eko Konstituzioa sinatu zen, herrialdeko gutxiengoen honako zerrenda hau jasoz: "errusiarrak, kurduak, yezidiak, greziarrak, judutarrak eta asiriarrak". Honela, "banatu eta menderatu" esamoldea lege bilakatu zen Armenian.

Failak

Yerevango yezidiek hainbat opari eman zizkidaten nire bisitaren bukaeran. Oraindik etxean daukat fotokopiez egindako koadernotxo bitxi hura, "Armeniaren alde bizia galdutako yezidien omenez" argitaratutako alea. Batzutan orriak pasa eta hainbat gazteen aurpegieran harridura sumatzen dudala iruditzen zait. Anaien kontrako borrokan hil ziren, gerra arrotz batean, Europa eta Asiaren arteko mugek talka egiten duten lur zatian. Zaila da jakiten zein neurritan lagundu zuen Torgom, Zaven, Gurco eta gainontzekoen sakrifizioak Karabakheko "askapenean". Edonola, gorpu nerabe hauen bilduma eskuan dutela, yezidiei ezin leporatu armeniar abertzaletasun eza, edo azerienganako atxikimendua. Eskelarioa izan ala ez, Armeniako Aragats (eta ez Ararat) mendiaren inguruko kurdu artzain eta baserritarrak ere, yezidiak denak, aurki desagertuko dira. Yerevanek haien lurren desjabetzeari ekin dio jada. Bai, Aragatseko yezidi askok lau hizkuntza menderatzen dituzte (kurduera, errusiera, armeniera eta azeria) baina gehienek ez dakite bakar batez irakurtzen. Burokrazia osatzen ari da gaur, duela 15 urte bonbek eta metrailadoreek egindako "garbiketa" lana.

Yerevango edozein tokitan gaudela ere, izugarria da beti Ararat mendiaren bista. Kutsadura laino batek estaltzen ez duenean, bere gailur elurtuak koroa dirudi egunsentiko lehenengo izpiekin, eta miresgarri altxatzen da Anatoliako erraldoia. Mendia hiritik 60 kilometrora egon arren, paseotxo ba-

tean iris litekela pentsa genezake erraz, hain da handia mendiaren lilura. Tamalez, ezinezko txangoa da. Mendetan kurdu eta armeniarren lurra izan zena Turkiaren esku dago gaur. Alanbre hesien beste aldetik, Araratek etengabe gogorarazten die armeniarrei atzo bertan galdutako guztia. Bi herrialdeen arteko mugak itxita jarraitzen du, oraindik sendatu ez den zauri sakon eta mingarria legez.

XXI. Mendean, Turkiak, Irak, Iran eta Siriako mugek 40 milioi laguneko herri oso bat banatzen dute oraindik. Haustura, baina, saminagoa liteke Armeniako kurdu komunitate ttipian.

Literatura kurdua: hurbilpen bat

Urtzi Urrutikoetxea

Kurdistan herri ezaguna eta era berean aski ezezaguna da. Estaturik gabeko munduko naziorik handiena da, eta planetako lekurik arantzatsuenetako batean bizi izan da milaka urtez. Egun, 30 eta 40 milioi kurdu artean bizi dira Kurdistanen. Horien erdiak Turkiako herritarrak dira, eta gainontzekoak Iranen, Iraken eta Sirian daude. Kaukaso eta Asia Erdialdeko errepubliketan ere badira komunitate kurduak, eta ezin ahaztu azken hamarkadetako gatazkek sortutako milioika iheslariak, Europa mendebaldera (Alemania, Suitza, Italia, Suedia, Erresuma Batua, Frantzia...) eta Turkia mendebaldeko hirietako auzo txiroenetara joanak. Kurdistango edozein hiritan baino kurdu gehiago bizi dira gaur egun Istanbulen, bi milioi zenbait iturriren arabera.

Kultur ondare aberatsa daukate kurduek. Begi bistako desberdintasun kultural, politiko eta erlijiosoetatik haratago, euskal kulturarekiko antzekotasuna ere handia da: inperio handien erdian egonik, kurduek ama-hizkuntzaz gain inguruko hizkuntza eta kulturen ezagutza izan dute, izan arabiera, pertsiera zein turkiera, edo Europa mendebaldeko hizkuntzak diasporako gaur eguneko kurduentzat.

Beraz, ahozkotasunean oinarritu da kurduen kultura beren historiaren zati handienean, eta oraindik ere ahozkotasuna da nagusi, beren epopeia, kantu eta kondairetan. Mendetan zehar izan den legez, literatura kurdua ahozkoa da neurri handi batean oraindik ere. Islam klasikoaren eta Erdi Arokoaren hizkuntzak arabiera eta pertsiera izan ziren. Aro horren amaieran agertu ziren kurdueraz idatzi zuten lehen poetak. Baina ahozko kultura herrikoiak bizi-bizirik jarraitu du gaur egunera arte, folklore aberatsaren erakusleiho. Egiaz, XX. mendera arte poesia "jasoaren" lekua oso txikia izan da Kurdistango gizartean, poesia herrikoiarena ez bezala. Poesiaz dihardugu, beste generoek ez baitute

leku handirik izan azken ehun urteetara arte, inguruko hizkuntzetan idatzi izan zuten Kurdistango pertsona jantzi gehienek.

Kurduera indoeuropar hizkuntza-familiakoa da, irandar taldekoa zehazkiago, eta horien artean ipar-mendebaldeko multzoari dagokio. Hainbat dialekto ditu, elkarren artean oso desberdinak batzuk. Kurmanjî edo iparraldeko dialektoak ditu hiztun gehien, eta hizkuntza literario garrantzitsuena sortu du. Siriako eta Turkiako kurdu gehienek, eta Iran eta Irakeko gutxienek darabilte kurmanjia, baita Kaukasoko eta Asia Erdialdeko komunitate kurduek ere. Sorani edo hegoaldeko kurduera Irakeko eta Irango Kurdistango zati handienean mintzatzen da, arabiar alfabetoz idatzi ohi dute eta badauka bere hizkuntza literarioa ere. Bai sorania bai kurmanjia erdialdeko kurdueraren dialektoak dira. Gorani-zazaki dialektoek aparteko hizkuntza osatzen dute zenbait hizkuntzalariren arabera, eta kurmanji eta sorani hiztunek ulertzen ez badute ere, beren burua kurdutzat daukate Iran eta Irakeko gorani hiztunek eta Turkiako zazaki hiztunek. Egun erdialdeko kurduak baino gutxiago dira, baina gorani-ak kultur tradizio luzea izan du.

Kurduen artean, halaber, beti izan da estatuko hizkuntza nagusian idatzi duen elite intelektuala. Kurduak eleanitzak izan dira mendetan, eta hala, arabieraz, pertsieraz eta turkieraz idatzi izan dute, eta egun diasporako komunitateek ingelesez, frantsesez, alemanez, italieraz zein suedieraz osatu dituzte lanak tarteka. **Ibnül Esîr** XI. mendeko historialari eta biografo kurduak arabieraz idatzi zuen, **Îdrîs Bîtlîsî** agintari otomanoak *Zortzi Paradisuak* pertsieraz idatzi zuen, eta **Seref Xan** printzeak pertsieraz idatzi zuen "Nazio Kurduaren Historia" XVI. mendearen amaieran.

Ahozkotasuna

Herri literaturak hainbat alderdi ditu: poesia kantatua eta errezitatua, ipuinak, tribuaren eta jaun feudalaren omenezko epopeiak, esaera zaharrak, asmakizunak eta abar. Gai asko lantzen dituzte,

egunerokotasunaren alderdi guztiez baitihardute kantuek eta poesiek, bat-batekoak zein aurrez landuak. Maitasuna gai nagusia da sarri, baina badira dantzarako kantak (**dîlok**), udaberriko transhumantzia (**serêle**) edo udazkenekoak (**pahizok**). Ezin ahaztu gazte ezkonberrien (**hevalê**) omenezko bertsoak, eta hiletetakoak. Yezidiek eta beste talde erlijioso batzuek ere badituzte beren zeremonietarako kanta eta dantzak.

Ahozko literatura hori profesionala izan zen sarri, jaun feudalek beren poetak (**stranbêj** edo **dengbêj**) izaten baitzituzten, nagusiaren eta bere askaziaren lorpenak loratzeko. Poeta horiek memoria eskergaren jabe izan ohi ziren, eta buruz errezitatu eta kantatu ohi zituzten maitasun-kantak (**delal**) eta gesta-kantak, oso luzeak sarri askotan, XV-XVI. mendeko **Memê Alan** milaka bertsoz osatuta dago. **Feqiyê Teyran** izan zen XVI-XVII. mendeko *dengbêj* garrantzitsuenetakoa, eta haren kantuek eragin handia izan dute literatura kurduan, bai ahozkoan bai idatzian.

Egun ere bizi-bizirik dago ahozko kultura hori Kurdistango alde gehienetan. Turkiaren ukazioak gogor erasan dion Diyarbakir hiriburuan gutxi entzuten da kurduera kale nagusietan, biztanle gehienek jakin arren, baina harresien barruko Dengbêj-Etxeak literatura kurduaz interes pixka bat daukan ororen bisita-leku behar du. Kurdistanera joan izan naizen ia aldi oro egiten dut ahalegina kantu zahar eta berriagoak molde tradizionalean ematen dituzten etxe zoragarri horretatik pasatzeko, eta nigan sortu izan duen zirrara berbera sortu du hainbat adiskidegan, euskaldun zein kurdu.

Idatzitako literatura

Lehen idatziak. Literatura kurduaren sorrera zehaztea ez da erraza. Islama iritsi baino lehenagoko idatziez ezer gutxi dakigu, zenbait iturriren arabera kurduerazko lehen idatziek Zoroastroren jarraitzaileen suntsiketaz dihardute, baina egon zite-

keena mendetako borroketan galdu zela dirudi. Hala ere, ez dira falta islametik urrundutako testuak; hala, badirudi kurduerazko lehen liburua yezidien (**Zoroastro**ren jarraitzaileen adarra, egun ere indartsua, kurdu gehienak musulmanak izan arren) ***Meshefa Res*** dela, kurmanjiz idatzia XIII. mendean. 1195ean jaiotako **Sêx Hesen**-ek (**Sêx Hadi Ibnî Misafir**, yazidien profetaren iloba) idatzi omen zuen.

Goranierazko poetak. Goranierazko literaturaren loraldia mende horietakoa da, halaber. Ardavan familiak agintari safavidengandik autonomia aski lortu eta idatzizko kultura sustatu zuten, gorteko hizkuntza bihurtuz goraniera, egungo Irango Kurdistango hego-mendebaldean eta Irakeko zati txiki batean. **Perîsan Dinaweri** (1395ean hila) lehenago bizi izan zen, baina eskola *gorani*aren sortzailetzat **Yusof Yaska** (1636an hila) hartu izan da. Haren jarraitzaile izan ziren **Sêx Ehmed Textî Mardukî** (1617-92), **Mustafa Besaranî** (1642-1701), **Muhammad Kandulayi** (XVII. mendekoa), **Xana Qubadi** (1700-1759) eta **Seyda Hewramî** (1784-1852), besteak beste. **Mesture Erdelanî**-ren (1805-1848) pertsierazko lanak ezagunak ziren, baina berriki goranierazkoak ere agertu dira, taldean emakumeak ere izan zirena agerian utziz bidenabar. Goranierazko poesia kurmanjierazkoa baino lotuago egon zen egitura herrikoietara.

Jazirako kurmanji eskola. XV. mendearen inguruan daukagu kurduerazko idazleen lehen literatur mugimenduaren aztarnak. **Cezîre-Botan** (gaur Cizre) eskualdeko kurmanji kurdueraz idatzi zuten. Bost egile nagusi nabarmendu izan dira, denek ere garai hartako pertsiar egile eta sufismoaren eragin handia izan zuten, hala nola **Melaye Cezîrî**-ren (1570-1640, eskolaren sortzailea) maitasunezko poema mistikoek edo **Feqiyê Teyran**-en ***Sêx Sen'an*** poema luzeak, **Ali Harirî**-ren lanak galdu egin ziren. **Malayê Bate** da taldeko laugarren or-

dezkaria, eta denetan ezagunena **Ehmedê Xanî** (1650-1706) dugu. Hakkarin (Côlemerg kurdueraz) jaio zen literatura kurduko egile garrantzitsuenetakoa. ***Mem û Zîn*** (*Mem eta Zin*) kondaira hartu eta maitasun tragikoari buruzko 2.655 bertsolerrotako gesta idatzi zuen. Kurdistango kultura, historia eta mitologia biltzen ditu. Lanaren oihartzuna gaur egun ere handia da, garai hartan oso modernoak ziren gai abertzaleak zerabiltzalako, kurduen batasuna aldarrikatuz.

1694an idatzi zuen **Ehmedê Xanî**-k ***Mem û Zin***. Mem **Alan** klanekoa da, Zin **Buhtan** familiakoa. Bien maitasuna **Bakran** klaneko **Bakr** pertsonaiak eragotzi zuen, eta konspirazio baten ondorioz Mem hil zen. Zin-ek albistea jaso eta samina jasan ezinik hil zen. Mem-en aldamenean hilobiratu zuten Zin, Jazira eskualdean, eta herritarrek Bakr atzeman eta hil ostean ere, sasi arantzatsua sortu zen Bakr-en odoletik. Sustraiak maitaleen hilobiraino iritsi eta heriotzaren ostean ere, elkarrengandik bereizi zituen. Kurdistango epopeia nazionalak herri kurduaren patua gogorarazten du, bereizita egon beharra, eta nazionalismo modernoa sortu baino bi mende lehenago kurduen batasuna eta independentzia aldarrikatzen ditu. Cizre (Jazira) hirian dago Mem eta Zin-en hilobia, eta zinez hunkigarria da bisita. 1991n ***Mem û Zîn*** filma turkieraz egin behar izan zuten Turkian. 2002an Kurdistan TVk epopeiaren telefilma egin zuen.

Mem eta Zin inspirazio iturri izan da idatzi zenetik. XIX. mendean **Hacî Qadîr Koyî**-ren poemak boterearen aurka zihoazen bete-betean, eta bera hil eta gerora arte ez ziren argitaratu, 1925ean.

Soranierazko literatura. XIX. mendean otomandar inperioaren gainbehera dator, Europako nazionalismoen sorrerarekin batera. Kurdistan nazio tribala da oraindik ere, baina kontzientzia nazionalak bere bidea egiten du astiro-astiro. Madrasa edo eskola koranikoetan jasotzen da hezkuntzaren zati handiena oraindik, eta arabierazko eta pertsierazko tradizioak pisu

handia dauka, baina poetek sinboloak berritu eta bertsoen musikalitatean bilaketa berriei ekiten diete. Hala, anaidi mistikoekin batera sortutako poesia erlijiosoak indarra galtzen du poeta abertzale eta lirikoen aurrean.

Nali (**Mela Qedrî Ehmedî Seweysî Mikail**-en ezizena) da garaiko poeta arrakastatsuena. Sorani dialektoaren ibilbide literarioaren abiatzailetzat hartu izan da Nali, **Baban** dinastiak **Sulemani** hiria sortu (1781) eta hango dialektoan oinarritutako kultura bultzatu ahala hurrengo hamarkadetan. 1851n Baban dinastiak boterea galduta ere soranierazko literatura ez zen eten. **Hecî Qedîr Mele Ehmed Koyî** (1816-94) eta **Sêx Riza Talabanî** izan ziren ordezkari garrantzitsuenak. Lehena Istanbulera joan zen, kurmanjierazko literaturaren eta mendebaldeko ideien berri izan zuen. Hala, hizkuntza sinplean mundu modernoarekiko eta gizarte arazoekiko interesa ageri du eta tradizioaren aurka jotzen du. Arrakasta handia izan zuen bere poesiak. **Sêx Riza Talabanî**-ren eskutik (1813-1910) satira iritsi zen literatura kurdura. Hura ere zortzi urtez bizi izan zen Istanbulen, eta erlijioaz, maitasunaz eta elementu autobiografikoez idatzi zuen. XIX. mendetik aurrera kurduen bizitza intelektualean emakumeen papera geroz eta garrantzitsuagoa da. **Mesture Kurdîstanî** aski ezaguna izan zen, baita **Mehrêban** (1858-1905), Diyarbakirgo **Sira Kanom** (1814-65), eta **Katun Korsid** ere.

Mugimendu nazionala eta inperioaren desagerpena.

Kazetaritzaren sorrera Kurdistango mugimendu nazionalarekin batera dator, eta lehen aldizkaria Kairon agertu zen 1898an. ***Kurdistan*** zuen izena eta **Mîkdat Pasa Abdûlrahman** izan zuen bultzatzaile; Europara joan behar izan zuten eta azken alea 1902an argitaratu zuten. Istanbulen ***Rojî Kurd*** (*Egun kurdua*) aldizkariaren izena 1913an aldatu eta

Hetewî Kurd (*Eguzki kurdua*) deitu zioten. 1916an **Toreya Bedîrxan**-ek turkierazko ***Jîn*** (*Bizitza*) astekarian kurduentzako independentzia aldarrikatu zuen eta 1917-18an ***Kurdîstan*** astekaria argitaratu zuen. Jazarpen eta guzti, urratsak eman zituen mugimenduak, harik eta I. Mundu Gerrak Kurdistan goitik behera aldatu zuen arte. Ordura arte bi estatutan banatutako kurduek bere burua lau zatitan bereizita ikusi zuten, otomandar inperioaren errautsetatik Turkiako errepublika, Frantziaren menpeko Siria eta britainiarren menpeko Irak sortu ostean.

Kurduen erdia baino gehiago Turkiako mugetan bizi ziren, eta Greziaren aurkako independentzia gerran eta errepublikaren sorreran turkiarrekin batera borrokatu baziren ere, Mustafa Kemal Ataturk-en errepublikak laster bizkar eman zien, hasierako promesak eta Lausanneko hitzarmenean izenpetutakoa ahaztuta. Hori baino gehiago, ia XX. mende osoan zehar iraun duen kurduekiko ukazio, asimilazio eta anikilazio politika nagusitu zen errepublika jaio berrian. Otomandar inperioko izaera multietnikoa desagertuta turkiar nazio bakarra onartu zen Turkian, beste herri eta hizkuntzek ez zeukaten lekurik, Kurdistanik ez zen, kurduak "mendiko turkiarrak" ziren eta kurduera gaizki mintzatutako turkiera edo "mendiko hizkuntza", hainbat hamarkada beranduago Harold Pinter Nobel Saridunak bere lanik ezagunenetako batean jaso zuen legez.

Hala, Turkiako errepublikatik kanpo garatu behar izan zuen aurrerantzean literatura kurduak. Kurduerarekiko ahaleginak espetxea edo heriotza zuen zigor, eta erbestea zen kurdueraz jardun zutenen aukera bakarra. Erbeste hori aski hurbila zen sarri, ordura arte auzo izandako Kurdistango lekuetan ezarri zen muga, eta Siria eta Irak sortu.

Siria eta "Hawar" eskola. Turkiatik erbesteratutako kurdu askoren helmuga Damasko eta Beirut izan ziren, eta giro intelektual bizia sortu zen.

Celadet eta **Kamran Bedirxan** anaien eskutik ***Hawar*** aldizkari garrantzitsua sortu zen 1932tik 1943ra. Kurmanjieraz argitaratua, kurduen amets eta xedeen faroa izan zen. Segidan ***Ronahî*** (*Argia*, Damaskon 1941-44), ***Roja nû*** (*Egun berria*, Beirut 1943-46) eta ***Stêr*** (*Izarra*, Damaskon 1943-45) argitaratu ziren, denetan ere kurduen kultura eta nortasunarekiko kezka ageri zen. Siriak independentzia lortutakoan arabiartze politika zorrotzari heldu zion, eta ia lau hamarkadako giro intelektualak behera egin zuen. Idazle askok erbestera jo zuten, Parisera eskuarki. **Bedirxan** anaiekin batera, Hawar eskolako kide izan ziren **Osman Sebrî** (1905-93), **Qadrîcan** (1914-74), **Residê Kurd** (1910-68), **Nûredîn Zaza** (1919-88) eta XX. mendeko poeta kurdurik garrantzitsuenetakoa, **Cegerxwîn** (1903-84).

Sêxmûs Hesen-en izengoitia zen **Cegerxwîn**. XX. mendeko literatura kurduan eragin handienetakoa izan du eta idazle kuttunenetakoa da gaur egun ere. Poeta, kazetaria, historialaria, lexikografoa... ondare kurdua gordetzeko lan eskerga egin zuen, ehunka kanta eta poema osatuz bidenabar. Mardin hirian jaio eta I. Mundu Gerran handik hurbil dagoen Amudera joan zen familia. Gerraostean muga zeukaten etxetik hurbil, otomandar inperioa deseginda Amude Frantziaren menpeko Siriako zati baitzen, Turkiako errepublikatik eta Kurdistango zati handienetik bereizita. Hogei urterekin hasi zen poesia idazten eta Hawar aldizkarian argitaratu zituen lehen poemak. Poesia kurdu tradizionaleko formei eutsi arren, erromantizismo eta errealismo modernoaren ideiak jaso zituen, eta zorrotz krtikatu zituen egitura feudal eta erlijioso atzerakoiak, langile eta nekazari kurduen pobreziaren erantzule gisa. Indar atzerakoi horiek zituen kurduen askapenerako oztopo nagusitzat halaber. Politikan ere jardun zen, 1954an Alderdi Komunistako hautagai izan zen Siriako parlamentura, eta 1957an Azadi (Askatasuna) alderdia sortu zuen, gero Siriako Alderdi Kurdu Demokratikoarekin bildu zena. 1963an atxilo hartu zuten, ordurako Irakeko

kurduekin harremanetan zebilen eta Bagdaden ikasketa kurduen saila sortu zuen **Cegerxwîn**-ek.

1969an **Mustafa Barzani**ren altxamenduarekin bat egin zuen Hego Kurdistanen, eta 1973an Beirutera joan behar izan zuen, han argitaratu zuen bere poesia lanik garrantzitsuenetakoa ***Kime Ez?*** (*Nor naiz?*). 1976an Siriara itzuli zen, baina handik hiru urtera Suedian erbesteratu zen. Han eman zituen azken urteetan hainbat poesia lan argitaratu zituen. Suedian hil eta Siriako Kurdistango **Qamislo**-n ehortzi zuten Cegerxwîn 1984an. Zortzi poesia liburu, eta Kurdistango historiaz, hizkuntzaz eta folkloreaz liburu bana idatzi zituen. **Cezîrî** eta **Ehmedê Xanî** poeta klasikoak bikain ezagututa idatzi zuen, betiere era sinple eta zuzenean, mezu iraultzaile eta herrikoiak estetikaren aurretik jarrita. Bere eragina hain da handia ze, Cegerxwîn aroa deritzo askok poesia kurduaren bere garaiari.

XX. mendearen bigarren erdian Sirian jaiotako idazle gehienek erbesteko bidea hartu zuten. Horien artean nabarmendu dira **Cankurd** (1948, Shakespeare-ren itzultzaile), **Keça Kurd** (1948), **Jan Dost** (1965) eta **Helim Yusiv** (1967), laurak ere Alemanian erbesteratuak. **Sahînê Bekirê Sorekîî**-k (1946), berriz, Australiatik argitaratu ditu bere ipuin eta poemak.

Irak. Kurduen ehuneko hemezortzi bizi ziren Iraken, baina XXI. mende hasieran legez, I. Mundu Gerra amaitu ostean britainiarren menpe zegoen Irak izan zen kurduerarekiko zabalkunde handiena izan zuena, sorani dialektoan bereziki. Mendebaldearekiko lehen harremanari esker Puxkin, Schiller, Byron eta beste egile batzuen kurduerazko itzulpenak agertu ziren. Tradizioa ahaztu barik egitura modernoetarako bidea egiten hasi zen, edukian batez ere.

Poesiak forma klasikoei eutsi arren, abertzaletasunak eta gai sozialek geroz eta leku handiagoa daukate.

Garaiko poeta garrantzitsuak izan ziren **Piramerd** (**Hacî Tofiq**, 1867-1950, otomandar buruzagia eta gerora Irakeko lite-

ratura kurduaren bultzatzaile handietakoa), **Ehmed Muxtar Caf** (1897-1935), **Hamîd Fattah Beg Sahebqeran** (1878-1936), **'Abdul Wahid Nurî** (1903-46), eta **Zawar** (**'Abdulah Mohammed**, 1875-1948).

1930eko hamarkadan eredu klasikoetatik urrunduta bertso librea gailendu zen, **Goran**-en (**'Abdulah Solayman**, 1904-62) lanean, kasu. Bere atzetik etorri ziren **Salem** (**Sêx Salîm Ehmed Azabanî,** 1892-1959), **Dilzar** (**Ehmed Mustafa Hemê Axa**, 1920), **Bekes** (**Feqî Abdulah**, 1905-48) eta haren seme **Sêrko Bekes** (1940an jaioa, egungo garrantzitsuenetakoa), **Kamran Mukrî** (1929-89), eta **Kakay Fallah** (1928an jaioa).

Poesia kurduaren berritzailea **Goran** izan zen. Hizkuntzan eta forma poetikoetan arabieraren eraginetatik urrundu, eta kurduera garbizaleagoa bultzatu zuen; herri kantuetara jo zuen horren bilaketan. 1930etan argitaratzen hasi zenetik eta 1962an hil arte egon ziren aldizkari gehienetan argitaratu zituen poemak. Hiru aro bereizi ohi dira **Goran**-en poesian: tradiziotik edanda klasikoen ereduari jarraitu zion lehen aldia, natura eta maitasun poemak, emakumeen edertasuna goratu zituen bigarrena, eta Alderdi Komunistako kide izanik bere engaiamendu politikoa nagusitu zen hirugarrena, gai sozialetan sakonduz eta bertso librea hautatuz. Askatasuna gai nagusi gisa beti agertu bazuen ere, hirugarren aro horretan poesia zuzenagoa egiten du, zapalduen alde, langile klasearen alde eta emakumeen bazterketaren aurka idatzi ohi zuen. Ohorezko hilketen aurkako poema garrantzitsua idatzi zuen: ***Berde-nûsêk*** (*Hil-Harria*).

1920ko hamarkadan sortutako literatur aldizkariei esker soranierazko prosa ere garatu zen. Istorio laburrak izan ziren nagusiki, sarri gai politiko edo sozialekin, hala nola, **Hosayn Hozni Mokriani**-k (1893-1947) 1945ean argitaratutako ***Ademizad le sayey derebegi*** (*Gizona gizarte feudalean*). 1973an argitaratu zen soranierazko lehen nobela, ***Janîgel*** (*Herriaren sufrimendua*) **Ibrahim Ehmed**-en eskutik (1914an

jaioa). 1956an idatzitako nobela da, Aljeriako independentzia gerra eta Kurdistango egoera erkatuz. Ehmed literatura kurduko eta Hego Kurdistango politikako figura garrantzitsuenetakoa izan zen, 30eko hamarkadatik aldizkariak sortu eta poemak argitaratu baitzituen, eta alderdi kurduetako goi karguetan izan baitzen 1975ean erbestera joan behar izan zuen arte. Alaba **Jalal Talabani** Irakeko presidentearen emaztea da.

Irakeko gobernuekin kurduek izandako gorabeherek erabateko eragina izan zuten literatur sorkuntzan. 1959an Ikasketa Kurduen saila sortu zen Bagdadeko unibertsitatean, baina loraldiaren ostean jazarpenak iritsi ziren. 1970ean kurduera Irakeko bigarren hizkuntza ofizial izendatu zuten, hainbat aldizkari zeuden, baina gobernutik egotzi eta sasoi latzak iritsi ziren atzera ere. Oparotasun urteetako fruitu dira **Mohammad Mokri**ren (1952) ***Heres*** (*Luizia*) (1985) eta ***Tole*** (*Mendekua*) (1985) eleberriak, baita **Sêrko Bekes**-en ***Helo*** (*Arranoa*) (1986) ere. Arabieraz, suedieraz, danieraz, italieraz, frantsesez eta ingelesez argitaratu dira **Sêrko Bekes**en lanak, eta besteak beste Suediako PEN Klubaren Tucholsky saria eta Florentziako hiriko sariak jaso zituen. 1971n ***Ruwange*** (*ikuspegia*) izeneko elementua sartu zuen poesian, ordura arteko zenbait egitura zurrunetatik urrunduz, eta "poster-poema» ekarri zuen poesia kurdura 1975ean. Poema labur horiei ekialdeko kritikariek "helduezin sinplea" deitu izan diote. Bïkes-ek erbestera jo zuen 1986tik 1992ra, eta berriz Hego Kurdistanera itzuli zen.

Izan ere, Golkoko lehen gerraren eta Irakeko azken gerraren ostean Irakeko kurduek burujabetzatik hurbil dagoen estatusa lortu dute estatu federalean. Ondorioz, kurduen historian inoiz ezagutu gabeko normalizazio egoera batetik hurbilen egon den unea bizi dute Hego Kurdistanen, beti ere Saddam Hussein-en Anfal kanpaina genozidaren traumek erasanda eta Irakeko egoera nahasiaren baitan. Baina 80ko hamarkadan erbestera joandako idazle asko etxera itzuli dira, eta beste asko Europa eta Hego Kurdistanen artean bizi ohi dira. Hala, **Ma-**

habad Qaradaxî poeta Suediatik itzuli zen emakumeen auzietarako Lehen Ministroaren aholkulari izateko, eta **Nazand Begikhani**k Ingalaterran jarraitu zuen poesia idazten eta Kurdish Women's Right Watch elkarteko buru. **Serfiroz Naqsibendî**-k ere Berlingo erbestea utzi eta etxetik jarraitu du eleberriak idazten. **Abdulah Pesew**, **Latif Halmat**, **Refîq Sabir**, **Bedirxan Sindî**, **Sebri Botani** eta **Abdulrehman Mizuri** dira Hego Kurdistango literatura garaikideko beste izen garrantzitsuak.

Sobiet Batasun ohia. Kurdistango beste zatien aldean gutxi izan arren (batzuen ustez, gutxi zirelako hain zuzen ere), kurduerak garapen literario garrantzitsua izan zuen Sobiet Batasun ohian, Armenian eta Azerbaijanen bereziki. 1923tik 30era "Kurdistan Gorria" deitu izan den barruti administratiboa ere aitortu zieten Lachin hiriaren inguruko kurduei (1993an, Nagorno-Karabakh-eko gerran berriz aldarrikatu zuten autonomia, baina handik laster armeniarrek konkistatu eta bertan behera geratu zen ekimena).

Hainbat gutxiengo nazionalen artean, eta kurduen artean bereziki, 1920tik 37ra arteko epea kultur berpizkundearena izan zen. **Hakob Xarazyan** buru zuten Armeniako yezidiek armenierazko alfabetoa eratu zuten. Latinoa erabili zuten hurrena **Ereb Semo** (Arab Shamilov, 1897-1979) eta **Ishak Marogulov**-ek, eta zirilikora pasa ziren ***Riya Teze*** (*Bide berria*) aldizkaria eta hainbat liburu argitaratzeko. **Qanate Kurdo**, **Çerkez Bakayev**, **Cerdoye Genco** eta **Semend Siyabendov** dira gerra aurreko belaunaldi haren ordezkari nabarmenenak, baita **Hecîye Cindî** (1909-90), **Casimê Celîl** (1908-98) eta **Emine Evdal** (1906-64) ere. Denen artean folklore kurdua bildu eta sozialismo errealistarekin bat zetozen lehen nobelak eta antzezlanak argitaratzeko ahaleginak egin zituzten. Hala, 1935ean oso arrakastatsua izan zen nobela autobiografikoa argitaratu zuen, eta 1958an haren jarraipen zen ***Berbang*** (*Egunsentia*) idatzi zuen. Istorio kurdu

baten oinarritutako ***Dimdim*** 1966an argitaratu zuen; oinarri bera zuen **Semand Siyabendov**-en (1909-98) ***Siyabend u Xece*** (*Siyabend eta Xecê*) lanak ere.

Stalinen pertsonarekiko kultuaren eta gerra eta gerraoste garaia iluna izan zen, jazarpen aroa zen eta hainbat kurdu deportatu zituzten Asia Erdialdera eta Siberiara. Ondorioz, isiltasun urteak izan ziren. Stalinen heriotzaz geroztik eta Sobietar Batasunak iraun zuen artean, beste berpizkunde bat egon zen. Erdi Aroko lan klasikoen ikerketa, itzulpena eta argitalpena Sobietar Batasunean gauzatu ziren sarri, mundu osoko kurduen eskuragarri jarriz. Sobietar literatur munduan ere arrakasta izan zuten hainbat egileren lanek, zer esanik ez sobietar kurduen artean. 1961ean hasi zen gai kurduak eta XX. mendeko korronteak biltzen zituen aroa, **Ferike Usiv**-en ***Alchichek*** (*Lore fierra*) eta **Sikoye Hesen**-en ***Dile Kurd*** (*Bihotz kurdua*) lanekin. Jakituria hitsaren estiloa jarraitu zuten **Mikaile Resîd** eta beste hainbatek. Armenia zen sobietar kurduen erdigunea, baina Georgian eta beste errepublika batzuetan ere izan ziren sobietar gaiak (ohiko gai eta lorpenak) eta kurduak (aberri galduaren lantua) josi zituzten egileak. ***Behara taze*** (*Udaberri berria*) aldizkari literarioak belaunaldi berriaren poemak, istorio labur eta are nobelak argitaratu zituen Yerevanen 1980tik 90era. Sobiet Batasunaren hondoratzeak eta Kaukasoko gerrek bertan behera utzi zuten literatur esperientzia hori guztia

Iran. Iranen bizi dira kurduen laurdena baino gehiago, baina gainontzeko kurduengandik duela lau mende bereizi zituen mugak, eta azken hamarkadetan asimilazio politika gogorra jasan dute. Argitalpenak eta hizkuntza irakastea debekatuta daude. Hala eta guztiz, independentzia aldarrikatu duen estatu kurdua egon zen egungo Iranen, II. Mundu Gerra amaitu eta gutxira. Mahabadeko errepublikak 1946an baino ez zuen iraun, Sobietar Batasunaren babesean, eta Stalinek beste interes batzuen truke saldu ondoren errepresio basatia jasan bazuten

ere, epe labur horretan literatura kurduak sekulako garapena izan zuen.

Hemîn (**Muhammed Emîn Seyk Selamî Mukruyanî**, 1921-86) eta **Hejar** (**'Abd-al-Rahman Serfqendî**, 1920-91) nazioaren poetatzat hartu zituzten, kurduera hizkuntza ofizial bakar izendatu zen eta hainbat argitalpen egon ziren. **Hazar** PDKIko (Irango Kurdistango Alderdi Demokratikoa) agintari garrantzitsua izan zen eta ***Alakok*** (*Mendiko lorea*) (1945) eleberria eta ***Bejti seremer u lassayi sag u mangesew*** (*Ahari buruen eta ilargiaren eta txakurraren istorioa*) antzezlana idatzi zuen. **Mahabadeko errepublika**ko ereserkia ***Ey ragip*** (*Ai, etsai*) zen eta **Dildar**-ek (**Yonis Reuf**, 1918-1948) idatzi zuen. Irakeko Kurdistangoa zen, **Koye**-koa, eta ***Ronaki*** eta ***Galawez*** aldizkarietan argitaratu zituen lanak. Kurdistango ereserkia da bere lanik ezagunena, Iranen preso zela idatzi zuen eta gerora PKKk ere bere doinutzat hartu du.

Mahabadeko errepublika erorita, erbesteko bidea hartu zuten intelektual gehienek, Irakera eta Sobietar Batasunera, eta 1979ko iraultzara arte kurduera jazarrita egon zen. 1959tik 1963ra bitarteko irekiera aldian ***Kordestan*** astekari garrantzitsua argitaratu zuten Teheranen, Pertsiako gobernuaren begiradapean, baina Pertsiatik kanpo soilik banatzen zuten.

1979ko iraultza monarkaren aurkakoa zen hasiera batean, geroko izaera islamikoaz gain komunistak eta abertzale kurduak eta Irango beste nazioetakoak ere izan ziren protagonista. Laster jazarpena iritsi zen, Khomeinik kurduen aurkako gerra santura deitu eta milaka hildako egon ziren hurrengo urteetan, baina 1984tik aurrera argitalpen kurduak lekua hartzen hasi ziren. Zentsura ezin zorrotzagoa izan arren, Ikerketa Kurduak ahalbidetu ziren, XIX. mendeko testuen argitalpena eta itzulpena bultzatu zen, berdin pertsona historiko eta erlijiosoen biografiekin, gramatika eta hiztegiekin eta kurduerak astiro-astiro lekua egin zuen Sanandaj (Sine) eta beste hiri ba-

tzuetako unibertsitateetan. 1984an **Ahmad Qazi**k (1935ean jaioa) ***Baqaben*** (*Lotura, katebegia*) istorio satirikoen bilduma argitaratu zuen eta eta **Hawar**-ek (**Ali Hasaniani**, 1939an jaioa), ***Sari weran*** (*Hiri hondatua*), arazo sozialak gai hartuta. ***Sirwe*** (*Goizeko haizea*) aldizkaria, **Hemin**-ek argitaratu eta udalek bultzatuta, urte berean argitaratu zuten, nortasun kurduaz ziharduen eta kurmanjieraz eta soranierazko istorioak jaso ohi zituen. 1986an intelektual kurduak Mahabad hirian bildu ziren. Hala, astiro-astiro, hizkuntzarekiko eta kulturarekiko aitorpen txikia lortzen joan ziren hurrengo hamabost urteetan, eremu politikoan jazarpena etengabea izan bazen ere. Azken urteotan, PJAK gerrillaren sorrerarekiko eta Irakeko kurduen autonomiarekiko errezeloz, berriz ere atzera egin du Teheranek kurduen eskubideen aitorpenean.

Eremu literariora etorrita, bi korronte argi bereizten dira Irango idazle kurduen artean. Belaunaldi zaharra, 1946ko Mahabadeko erreublikan parte hartu zuena, erbestera joan zen, eta Sobietar Batasunean amaitu zituzten ikasketak. **Rehim Qazi** dago horien arten, laster argitaratu zuen ***Pesmerge*** (*Partisanoa*) eleberria. Irango Kurdistanen mugimendu abertzale kurduaren sorrerari buruzko eleberria da. Ildo berari jarraitu izan diote erbesteko egile gehienek, aldarrikapen politikoa eta mezu zuzenak hobetsiz bestelako helburu estetikoen aurretik, eta gehienetan alderdi politiko nagusiekin (PDKI eta Komele) loturiko argitaletxeetan eman dituzte euren lanak. Kurdistan barruko idazleak berriz belaunaldi gazte batetik datoz, ez daukate erbestekoek dituzten loturak alderdi politikoekin. Hogei nobela inguru argitaratu dira azken urteotan, erdiak Iranen eta atzerrian beste erdiak. **Fetah Emiri** izan zen belaunaldi berri honetan lehendabiziko eleberrigilea, kondaira ezagun baten bertsio nobelatua izan ziren lehen bi lanak, eta hirugarrenean (**Zindekhew**, «*Lo Bizia*», 2003), Mahabad hirira egiten du jauzi, gazte bat protagonista hartuta. Atzetik etorri ziren **Kamran Hemîdî**-ren eleberri politikoak (***Zinoy Be Tem***

«*Behelainoaren muinoa*" eta ***Berdi Gomelanke*** «*Gomelanke-ko aintzira*), **Perwiz Cehani**-ren ***Bilican***, **Nesrin Caferî**-ren ***Blind u Newi*** («*Goia eta Behea*»), **Ata Nehayi**-ren ***Guli Soran*** (*Shoran Lorea*) (1998) eta ***Balindekani Dem Ba*** (*Txoriak Haizearekin*) (2002). Gai-esparru mordoa lantzen dituzte, eleberri historikotik nekazari-istorioetara eta kontakizun sozial eta urbanoagoetara, baina denetan ere pertsonaia konplexu eta sakonagoak ageri dira.

Turkiako kurduak, Ipar Kurdistan

Kurdistango bihotza izanagatik, kurduen gehiengoa bertan bizi arren, hedabideetan oihartzun handiena izan eta kultura kurduaren orri garrantzitsuenetako asko lurralde horretan idatzi arren, XX. mendeko zati handienean Ipar Kurdistan eremu itxia izan da kanpotarrentzat eta bertakoek hizkuntza ez eze izaera kurdua erabat galarazi eta jazarrita izan dute. Ez Kurdistanik ez kurdurik, hain gutxi kurduerarik, Turkiako errepublikaren obsesio handienetakoa izan da, 1923an sortu zenetik, turkiar nazioa baino existituko ez zen estatu monoetnikoa eratzea, horretarako armeniarren genozidioa gauzatu eta kurduen asimilazio behartua bultzatuta. Hizkuntza bera debekatuta, 1932an tradizioak, musika, are ohiko jantziak eta dantzak debekatu zituzten. Kurduak behin eta berriz matxinatu eta behin eta berriz zapaldu zituzten, Dersim-en 1937an milaka gizon, emakume eta haur kurduren sarraskia horren adibide. Hizkuntzak eta kultur garapenak ez zuten zirrikitu txikiena izan Ankarako politika itsuan, erbestean egin beharra zeukan zerbait idatzi gura zuenak. II. Mundu Gerra amaitu eta Gerra Hotzak Turkia NATOn eta AEBen aliatu ezarri zuelarik, demokrazia kapitalista baterako urrats txiki batzuk sumatu ziren hurrengo urteetan. 1960tik aurrera bereziki, hizkuntzarekiko irekiera apala sumatu zen, eta nolabaiteko inteligentsia kurdua eratu zen. Ordura arte, hizkuntzalariek "sarraski zuria" deitu

izan dutena egon zen: erabateko debekua kurduerazko edozein adierazpenekiko.

Udaberri apalaren ostean, 1971ko eta, batez ere, 1980ko estatu-kolpeek berriz ere jazarpen, debeku eta zapalkuntzara eraman zuten kurduera. 2932. artikuluak debekatzen zuen kurduera, eta haren ostean idatzi zuen **Harold Pinter**-ek ***The Mountain Language*** edo *Mendiko Hizkuntza*. Berriki Diyarbakirgo udal antzokian eman dute kurdueraz ***Zimane Çiya***.

Kurduerazko irakaskuntza erabat debekatuta dago oraindik ere, eta gobernutik datozen urrats txikiek ez dute inolaz ere asebetetzen asimilazioari aurre egin arren bere hizkuntzan nagusiki analfabetoa den biztanleria kurdua. Eta eragozpen horiekin guztiekin, kurduera hizkuntza gisa eta kultur baliabide gisa, atzera barik aurrera joan da, eta inoiz baino liburu gehiago argitaratzen dira egunotan Turkiako mugetan. Askok kanpoko laguntza behar dute, askotan diasporako edo erbesteko erakunde eta pertsonen babesa dago, baina Istanbulen zein Diyarbakirren diharduten argitaletxe eta idazle kopurua ere ugarituz doa azken lauzpabost urteotan. Eta hala eta guzti, Kurdistango literaturaren esparru handiena beharko lukeen estatuak txosten honetako lerro gutxien bilduko ditu ziurrenik, oraindik orain Ipar Kurdistango idazle gehienak Europako erbestean bizi baitira.

Jazarpen horrek eta Kurdistanekiko engaiamenduak markatu izan du literatura hori, eta halakoxeak dira sarri gai nagusiak: errepresioa, beldurra, klandestinitatea, gerra, erbestea, sustraiak galtzea, deserrotzea... azken urteetan kurdueraz idazteko zailtasunak urritu dira Turkiako aldean, eta Irakeko kurduek burujabetzatik hurbil dagoen estatusa eskuratu dute, literaturak ere askatasun giroa bizi izan du, gerra eta haren ondorioak oraindik ere oso hurbil badaude ere. Eleberrietan eta poesian -generorik biziena- ohiko gaiak itzuli dira, maitasuna eta bestelako gatazkak, gizon-emakumeen edo tradizioaren eta modernitatearen artekoak, kasu.

Espetxea, erbestea, hilketak... idazle kurdu askok, gehienek bizi izan duten esperientzia da. **Alisêr** poeta (1862-1937) eta **Musa Anter** (1916-1992) dira adibide tamalgarri. Musa Anter izan da Ipar Kurdistango kulturgileetan garrantzitsu eta kuttunenetakoa. ***Birîna res***(*Zauri beltza*) 1965ean argitaratu zuen Istanbulen, Ipar Kurdistango nekazarien miseria eta ezjakintasunari buruz.

Mardin probintziako Zivingê herrian jaio zen **Anter**, eta beste familia behartsu askotan legez, turkiartzeko helburua zeukan barnetegi batera bidali zuten agintariek. Istanbulen ikasketak jarraitzeko aukera izan, ordea, eta hainbat ikasle kurdu ezagutu zituen karreran. 1958ko Irakeko iraultzak eta Mustafa Barzaniren itzulerak sakon markatu zuten, eta kurdueraren aldeko ekimenean sartu zen Musa Anter buru-belarri. Laster atxilotu zuten lehen aldiz, espetxean idatzi zuen *Zauri beltza* eleberria, eta askatu ostean ere, 60ko hamarkadako irekieran, kurduerazko argitalpenei eutsi zien Istanbulen eta Diyarbakirren. 1971n, 79an eta 90ean berriz espetxeratu zuten, 70 urterekin, orotara hamaika urte eman zituen preso. Sorterrian bizi izan zen 1976tik 79ra, eta gainontzeko urteak Istanbul eta Diyarbakirren, ***Welat*** (*Aberria*), ***Ülke*** (*Lurra*), ***Özgur Gündem*** (*Egunkari librea*) eta ***Özgur Ülke*** (*Lurralde librea*) aldizkarietarako idazten. HEP kurduen aldeko alderdiaren (gerora DTP eta egun BDP) sortzaileetakoa izan zen, baita Istanbulgo Institutuko Kurduarena ere. Welat, egungo ***Azadiya Welat*** kurduerazko egunkari bakarraren aurrekaria da, Istanbulen hasi zen argitaratzen, eta hainbat aldiz itxi zuten. 1992ko irailaren 20an Turkiako "Estatu sakona" deritzonaren JITEM indar paramilitarrak bahitu eta tiroz hil zuen. 2007An Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Turkiako Estatua zigortu zuen hilketa harengatik. Egun Ipar Kurdistango literatur eta kazetaritza sari garrantzitsuenak Musa Anter izena dauka.

Musa Anter-en itzala oso luzea da Ipar Kurdistango literaturan. 60ko hamarkadan, 1961eko konstituzioaren ondorioz be-

reziki, izan ziren beste egile batzuk, baina 1967an, estatu-kolpea baino lehen, kurdueraren aurkako jazarpenak indartu egin ziren, 70eko hamarkadara bidean zenbait aldizkari izan ziren eta **Mehmet Emîn Bozarslan**-ek Mem û Zin-en edizioa eta turkierazko itzulpenak argitaratu zituen, baina espetxeratu egin zuten horrexegatik, eta erbesteko bidea hartu zuen jarraian. Ondorioz, erbestetik idatzi izan dute Ipar Kurdistango idazle gehienek.

Welat eta Azadiya Welat legez, erbestean sorturiko zenbait argitalpenek ere ahalegina egin dute Ipar Kurdistanera itzuli edo, gutxienean, Istanbulen argitaratzen hasteko. ***Rojname*** (*Egunkaria*), ***Newroz*** (*Egun berria*) edo ***Govend*** (*Dantza biribila*) saiatu ziren 1991an, baina gehienetan agintariek itxi eta beste izen batekin agertzen hasi ziren. XXI. mendean konstituzio berarekin jarraitzen dute Turkian, baina kurduek oztopoei aurre egin eta debekuen gainetik beren hizkuntza erabiltzeko hautua hartu dute. Hogei milioi izanik, badago aukera eta itxaropenik hurrengo belaunaldiak kurdueraz ikas dezan eta Istanbul eta Kurdistango argitaletxeek irakurle berriak izan ditzaten. **Kawa Nemir, Rênas Jiyan, Lal Lales, Îbrahîm Seydo Aydogan, Yaqob Tilermenî, Cîhan Roj, Mîran, Janbar, Sener Özmen, Yunus Eroglu, Dilawer Zeraq, Sîdar Jîr, Omer Dilsoz, Hemîd Dilbahar, Ergin Öpengin, Gulîzer, Lorîn S. Dogan, Lokman Ayebe** eta **Ehmed Ronîar** dira Ipar Kurdistango egile garaikideetan aipagarrienetakoak.

Europako erbestea.

Kurmanjierazko literatura Europako erbestean garatu da nagusiki, XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera. Frantsesek Siriatik alde egindakoan, intelektual kurdu askok ere Frantziako bidea hartu zuten. 1956an sortu zen lehen elkarte kurdua: "Europako ikasle kurduen kultur batasuna". Beste hainbat era-

kunde izan ziren, lehen aldizkaria soranieraz eta ingelesez argitaratutako ***Kurdistan*** izan zen, eta hurrena ***Chiya*** (*Mendia*) agertu zen kurmanjîeraz. Baina 1975etik aurrera bizkortu ziren erakunde eta elkarteen lana, Kurdistandik zetozen ikasle, langile zein iheslariak biderkatu ahala.

70eko hamarkadan Alemania, Suitza, Frantzia eta Suediara Anatoliako langile oldea iritsi zen, eta laster milaka iheslari politiko ere bai. Suedia izan da, alde handiz, abegi handiena egin diena, egun hainbat argitaletxe daude, eta kurduerazko irakaskuntza publikoa ere posible da Eskandinaviako herrialdean. Alemaniak eta Suitzak milaka etorkin kurdu dituztenez, azken hamarkadetan ez da Kurdistanen inguruko elkarterik falta izan hiri nagusietan, eta berdintsu jazo izan da Londresen, Erroman zein Bruselan.

Baina esan dugu Siriatik ihesi Frantziako bidea hartu zutela Europara iritsi ziren lehen intelektual kurduek, eta Parisen sortu zen halaber, 1983an, kurdueraren ikerketa eta modernizaziorako giltzarri izan den erakundea: Institutu Kurdua. Europan, Estatu Batuetan zein Australian badira beste Institutu Kurdu batzuk, baina Pariskoa bihurtu da erdigune. Beste herrialde eta kontinenteetako idazle zein ikerle kurduek Parisen jarri izan dituzte begiak, eta kurduerazko ikerketak Institutu horren bidez argitaratu ohi dituzte. Ehunka liburu agertu dira urteotan, eta Iraketik kanpoko argitalpen kopuru handiena dauka. 80ko hamarkadan bakarrik mundu osoko 300 intelektual baino gehiagok bat egin zuten Institutuarekin, hizkuntza gorde, ikertu, berpiztu eta berritzeko asmoz. Frantsesez, arabieraz, pertsieraz, turkieraz eta kurdueraz argitaratu ohi dute, hileroko buletinaz gain Interneten ere sarri-sarri berritu ohi ditu, eta zazaki dialektoa indartzeko ekimenean ere sartu dira. Urtean birritan diasporako idazle, hizkuntzalari eta kazetarien bilera egin ohi dute, hizkuntzaren eta terminologia berriaren arazoez eztabaidatzeko.

Suedia izan da, ordea, kurdueraren alde lan handiena egin duen estatua. Egun 30.000 kurdu bizi omen dira Suedian, eta

Estokolmo eta Uppsalan badituzte kurduerazko ikastetxeak, baita gobernutik laguntza jasotzen duten aldizkari eta argitaletxeak ere. Etorkin komunitateen kultur garapena bultzatzeko tradizio eskandinaviarrak, hala, kurduerarentzako bultzada ekarri du. 70eko hamarkadatik hogei agerkari izan dira, eta ez da falta izan eskola-libururik, alfabetatzeko argitalpenik ez eta lan historikoen itzulpenik ere.

Alemaniako kasua desberdina da, oro har turkiar etorkin gisa hartu izan ditu kurdu gehienak, eta ezin alderatu daiteke Suediako kasuarekin. Baina herrialdea askoz handiagoa izanik, Alemania dute bizileku Europako kurduen ia erdiak, eta bertako komunitate kurduek lan handia egin dute. Alemaniatik jardun izan zuten telebista kurduek 1995ean kanporatu zituzten arte, eta Alemanian izan du egoitza PEN Kurduak sorreratik, Britania Handiko, Frantziako, Suediako eta beste herrialde batzuetako kurduekin elkarlanean.

Segidan Europan diharduten egileetako batzuk:

Firat Cewerî, 1959an jaio zen Mardin ondoko Dêrik herrian. 1980ko hamarkadatik kurdueraz idazten du eta Suedian bizi da. ***Nudem*** aldizkariko zuzendari izan zen hamar urtez. Kurdueraz hamar liburu baino gehiago idatzi ditu eta berak itzuli ditu, besteak beste, John Steinbeck, Anton Txekhov, Dostoievski, Astrid Lindgren, Yasar Kemal eta Henning Mankell. Literatura kurduari buruzko lan eskerga egindakoa da.

Mehmed Uzun (Siverek, Urfa 1953 - Diyarbakir, 2007): Kurdistango literaturako izen handietakoa, eta Ipar Kurdistango egile garaikide garrantzitsuena. Kurduera literario modernoa lantzeko ahalegin berezia egin zuen, ipuin kontakizunen tradizio berritzeaz bat. 1973an espetxeratu zutenean Musa Anter eta Mehmet Emîn Bozarslan ezagutu zituen giltzapean, eta haiekin alfabetatu zen kurdueraz. 1977tik 2005era Suediako erbestean bizi izan zen, eta bere lanik garrantzitsuenak idatzi zi-

tuen, dozena bat eleberri eta saiakera. Lehen eleberri modernoa egiteko proba ***Tu*** *(Zu)* izan zen 1985ean. Segidan literatura kurduari buruzko antologia eta ***Siya Evînê*** *(Maitasun galduaren itzaletan)* eleberria iritsi ziren; 1920ko hamarkadan girotutako eleberriak intelektual kurdu baten borroka galduaz dihardu, emakume baten maitasunaren eta sortu berri den errepublikaren alde. ***Roni mina Evine, Tari mina Mirine*** (*Maitasuna bezain argia, heriotza bezain iluna*), 1988an argitaratu zuen, neska gerrillari baten eta armadako goi kargu baten maitasuna du ardatz, eta turkierara itzulitakoan hamar edizio eta 20.000 ale saldu zituen. 90eko hamarkadan hasi ziren bere eleberriak itzultzen: suedieraz eman zuen *Maitasun galduaren itzaletan* (1998an alemanez ere bai), eta saiakera bat. Parisko Institutu Kurduaren ***Kurmancî*** aldizkarian ere argitaratu zuen, eta 2001ean *Torgny Segerstedt* saria irabazi zuen. Urte berean Istanbulgo Estatuko Segurtasun Gorteak epaitu zuen "terrorismoa bultzatu eta separatismoa helburu duen altxamendua sustatu" izana leporatuta. Mundu osoan piztu ziren protestak, besteak beste Nadine Gordimerrek, Günter Grassek eta Elie Wiesel-ek izenpetu zuten Uzunen alde.

Zazpi eleberri eta poesia liburu bat argitaratu zituen. Turkiar nazionalistek gogor kritikatu zuten bere burua turkiar gisa agertzeari uko egiten ziolako, baina PKK gerrillaren indarkeriaren aurka ere mintzatu izan zen Uzun. PEN Kurduko eta Suediako Idazle Elkarteko kide zen.

2005eko ekainean Istanbulera itzuli zen, eta urtebete beranduago minbizia diagnostikatu zioten. Estokolmon jaso zuen tratamendua eta Diyarbakirrera itzuli zen. Ipar Kurdistango hiriburuan hil zen 54 urte zituela. Hala idatzi zuen Orhan Pamuk-ek:

> *"Bere heriotzak samin handia sortu dit (…) Mehmeden balioa, haren esangura, ez zuten neurtzen jakin; are gehiago jazarri eta gogaitu zuten. Baina ziur naiz irakurle kurdu eta turkiarrek Mehmeden liburuak bizirik gordeko dituztela."*

Mahmut Baksi (Batman 1994 – Estokolmo, 2000): Uzun-ekin batera egilerik kuttunenetakoa. Irakasle eta kazetaria, 1968an hasi zen argitaratzen, eta berehala idazlea espetxeratu eta haren liburuak galarazi zituzten. Sindikalgintzan ibili zen Diyarbakirren, eta 1970ean hamabost urteko espetxe zigorra ezarri ziotenerako erbesteko bidea hartuta zeukan. Turkieraz, kurdueraz eta suedieraz idatzi zuen eta ingelesera, alemanera, norvegierara eta beste hainbat hizkuntzatara itzuli zituzten bere lanak, Ekialde Hurbileko egoera politiko, ekonomiko eta sozialei buruzko entseguak, eleberriak (***Dono***, *Gauez mendien gainean*), haur-literaturan ere lan ugari egin zituen eta fiivan Perwer kantari ezagunaren hitzetako asko Baksirenak dira. 2000ko abenduaren 19an hil zen, bere gorpua Diyarbakirren ehortzi zuten 2001eko urtarrilaren 4an. 50.000 eta 70.000 arteko jendetza bildu zen Mahmut Baskiri agur esatera, beste asko hiriko sarreretako kontroletan geratu ziren sartu ezinik, eta poliziak hainbat pertsona atxilotu zituen.

Hesenî Mete, Erxanî-n jaio zen, Diyarbakirdik hurbil. 1980tik Suedian erbesteratuta bizi da. Puxkin eta Dostoievski kurduerara itzuli ditu. ***Tofan***, ***Labîrenta Cinan***, ***Gotînen Gûnehkar***, ***Epîlog*** dira bere lan garrantzitsuenak.

Serdar Rosan (Diyarbakir 1958). Suedian erbesteratu zen 1980ko estatu-kolpearen ostean. Bi poema liburu eta narratibako hiru argitaratu ditu, eta kurduerara itzuli ditu Cervantes (*On Kixote*), Guy de Maupassant, Ernest Hemingway eta Jack London.

Munzur Çem: (Dersim, 1945), Turkian ikasketak egin eta 1970eko hamarkadan hainbat aldizkaritan idatzi zuen. 1980ko estatu-kolpearen ondotik, Alemanian lehendabizi eta gero Suedian erbesteratu zen, eta han idatzi ditu lan gehienak, turkieraz batzuk eta zazaki kurdueraz beste batzuk. Eleberriak, ipuin herrikoiak, saiakerak eta hiztegi eta gramatikak argitaratu ditu.

Lokman Polat: Diyarbakir probintziako Lice-n jaio zen 1956an eta Suediara erbesteratu zen 1984an, handik gutxira hamar urteko espetxe zigorra ezarri zioten Turkian *in absentia*. Hiru eleberri eta narrazio laburren zazpi liburu argitaratu ditu kurdueraz, eta lau liburu turkieraz.

Zaradachet Hajo, 1950ean Sirian jaioa. Hizkuntzalaritza ikasi zuen Alemanian eta Berlin, Bremen eta Hanburgoko unibertsitateetako irakasle izan da. Egun PEN Kurduko presidentea da.

Mehmet Emîn Bozarslan (Diyarbakir 1935)**:** Gorago aipatu ***Mem û Zin***-en bertsioaz gain, beste hamasei liburu argitaratu zituen Turkian Bozarslan-ek, tartean kurduera ikasteko ABECE ezaguna. 64 orriko liburutxoak Turkia hausteko xedea zuelakoan espetxeratu zuen. 1974 arte egon zen espetxean, eta 1978an Suedian erbesteratu zen, ordutik Uppsala hiritik argitaratu izan ditu bere lanak.

Mehmet Tayfun Malmîsanij (Diyarbakir, 1952) 1982an erbesteratu zen Suedian, Turkian hiru aldiz espetxeratu eta gero. Zazaki hizkeraz idazten du eta hainbat lan itzuli ditu halaber zazakierara.

Helîm Yûsiv: (1967, Amûde, Siriako Kurdistan) idazle eta abokatua da, 2000tik iheslari politikoa Alemanian. Roj TV telebista kurduko literatur programako arduraduna da, eta aski kritikari ezaguna literatura kurduaren eremuan. Kurdistan Mendebaldeko Atzerriko Intelektualen Elkarteko sortzaileetako bat da, eta Alemaniako elkarte kurdu ugaritan egon izan da. *Gizona haurdun* alemanera itzuli zuten, kurdueraz eta arabieraz baditu itzulpenak, eta tarteka turkieraz ere bai, "*Hilek ez dute lorik egiten*", "*Sobarto*", "*Mem Zin gabe*", "*Haginik gabeko mina*".

Eskerê Boyîk, (1941), Armeniako *Qundexsz* herrian jaiotako yazidi erlijioko poeta kurdua da. Yerevanen ikasi eta armenieraz eta errusieraz idatzi zuen hasieratik, 60ko hamarkadatik poesia eta artikuluak idatzi ditu kurdueraz. Alemanian bizi da gaur egun.

Ehmed Huseynî: Hizkuntza debekatuko poeta ere deitzen diote. 1955etan Siriako Amuden jaio zen. Honako liburuak idatzi ditu: ***Çend Dimenen Xemgîn***, ***Diwan*** **(**2002an argitaratutako lan honek eragin handia izan du hurrengo urteetan).

Rojen Barnas 1945ean Diyarbakirren jaio zen, eta Suedian bizi da 1981etik. **Mehmet Gemici** du benetako izena, ***Hevi*** eta ***Nudem*** aldizkarietan idatzi du, besteak beste. Lehen liburua Turkian argitaratu zuen: ***Li bandeva speda*** (*Egunsentian*), 1980an, hurrengoak Suedian: ***Heyv li esmane Diyarbekire*** (*Ilargia Diyarbakirgo zeruan*), ***Milke Evine*** (*Maitasunaren erresuma*), ***Hinge*** (*Orduan*).

Beste hizkuntza batzuetako egileak. Nortasun edo jatorri kurduko idazle askok beste hizkuntza batean idatzi ohi dute, historian hainbestetan gertau izan denez. Hala, **Muhittin Zengane**-k, **Mahmud Taymur**-ek eta **Salim Barakat**-ek arabieraz idatzi dute (azken horren eleberri eder bat gazteleraz ere badago), **Ali Esref Derwisan**-ek eta **Mansur Yakuti**-k pertsieraz argitaratu izan dute; kurduerazko zenbait lan izan arren turkieraz idatzi ditu eleberri ezagunenak **Suzan Samanci**-k, baita **Bekir Yildiz**ek eta Nobel Sarietarako hautagai handietako batek, **Yasar Kemal**-ek. **Haydar Isik** kurdu aleviak Dersimgo sarraskiaz eleberri gogorrak idatzi ditu turkieraz, eta alemanera itzuli dira liburuetako asko, PEN Kurduko kide garrantzitsuenetakoa da. Europako erbesteko hizkuntzetan idatzi izan dute beste batzuek: **Nezir Bülbül** eta **Yusuf Yesilöz**ek alemanez, eta frantsesez **Hiner Saleem**-ek (Yasar Kemalekin batera, euskaratutako egile bakarra, gure datuen arabera).

Argitalpenaren egoera

2006an PEN Kurduak egindako ikerketa batek hala azaltzen zuen Turkiako egoera kurduerazko argitalpengintzari buruz:

Argitaletxeak. Hastapenean elkarte politikoak zeuzkaten atzean. Gaur egun hornikuntza falta dute eta oso langile gutxi. 2000. urtean 40 argitaletxe baino gehiago zeuden Turkian, baina liburuen erdiak baino gehiago (305) zortzi etxek argitaratu zituzten. Istanbul eta Diyarbakir dira kurduerazko argitalpenaren gune garrantzitsuenak.

Argitalpena Istanbulen egin ohi da, merkeagoa delako, horrek garraioa eta zabalkundea garestitzen badu ere. Liburu gutxik izaten du mila ale baino gehiagoko tirada, ehun orrialdeko milako tirada 500 eta 714 dolar artean kostatu ohi da.

Banaketa liburu denden bidez egin ohi da, edo banatzaile edo saltzaile bidaiarien bidez, 2003tik baita postaz ere. Kurduak bizi diren Turkiako hiri nagusietan daude kurduerazko liburuak saltzen dituzten dendak. Banaketarako beste bide bat hiri handietako liburu azokak dira. Elkarte politikoekin lotura duten argitaletxeek jarratzaileak izatearen abantaila daukate. Poesia gauak, literatur eztabaidak eta antzeko banaketa ereduak lantzen hasi dira. Oso oso kasu gutxitan, herri agintariek diru laguntzaren bat ematen dute liburuen argitalpenerako.

Salmentak: 100 eta 1.000 kopia artean saldu ohi dute kurduerazko liburuek. Ez dago kurduerazko idazlerik Ipar Kurdistanen idaztetik bizi denik. Oso gutxitan jaso izan dute lanengatik ordainik. Hiztegiak eta gramatikak dira gehien saltzen direnak, eta kurduerazko liburuak turkierazkoak baino merkeagoak izan ohi dira.

Turkieraz alfabetatutako kurduak turkiarrak baino askoz gutxiago dira (% 13), eta kurduak bizi diren probintzietan analfabetismoa turkiarrena baino handiagoa da, % 13 daude alfabeta-

tuta, eta zortzi urteko oinarrizko hezkuntza ehuneko 35ek amaitu dute. Turkian oso kurdu gutxik irakurri eta idatz dezakete kurdueraz, gehienek beren kabuz ikasi dute.

Turkiako liburutegiek ez daukate kurduerazko liburuetan interesik, debekua aspaldi kendu bazen ere. Salbuespena da Bosforoko Unibertsitatea (zenbat hiztegi eta gramatika ditu), eta Varto udala, liburutegi berrirako liburuak eskatu ditu. Liburutegi Nazionalak debeku garaian ere izan ditu liburuak, 170 inguru, bertan edo atzerrian argitaratuak. Legearen arabera argitaratutako liburu bakoitzeko ale bat gutxienez bidali behar da hara, argitaratzaile batzuek ez dakite gordailu nazionala dagoenik. Ez dago liburutegi kurdurik Turkian, baina Institutu Kurduek sortu dituzte batzuk Europan eta Ameriketan.

Internetek eragin dio kurduerazko argitalpenari; egunkariek, aldizkariek, elkarteek eta pertsonek webguneak ireki dituzte. Batzuek kurduerazko argitalpen eta egileak aurkezten dituzte, elkarrizketa, artikulu eta poemak dauzkate, baita PDF formatuan liburuak ere. Udal kurduek ere badituzte webguneak.

Turkian kurduerazko liburugintzak arazo asko izan ditu eta oraindik ere baditu. Hizkuntzarekiko debekua eta zentsura gainditu ditu, baina finantziazio falta, banaketa eskasa eta salmenta urriak ditu oraindik. Kultur elkarte, institutu eta argitaletxeak sortuz, erakunde kurduek kurduerazko egunkari, aldizkari eta liburuak argitaratu dituzte. Alderdietatik jasotako laguntza mugatzailea ere bada, alderdietako doktrinak jarraitu nahi ez dituzten egileentzat bereziki.

Helim Yusiv eta Berivan Dosky

Elkarrizketa: Urtzi Urrutikoetxea

Helim Yusiv Amûdekoa da, Siriako Kurdistangoa, eta ROJ TV telebistako literatura programako arduraduna da, egungo idazle garrantzitsuena izateaz gain. Siriatik erbesteratu eta Alemanian bizi da gaur egun.

Berivan Dosky Irakeko aldeko kurdua da, egun Damaskon kontsula izateaz gain PEN Kurduko idazkaria ere bada. 1990ean Erresuma Batuan erbesteratu zen eta hainbat lan idatzi zituen erbesteaz eta, bereziki, emakume kurduen egoeraz.

Zein da literatura kurduaren egoera?

Berivan Dosky: Oro har, aurrerantz Hego Kurdistanen eta zapalduta beste leku guztietan. Hesi eta mehatxuen gainetik hizkuntzak iraun du eta garatzen ari da. Edozein hizkuntzak garapen zientifikoa izan dezan, bizitzako alde guztietan erabiltzeko estatu edo agintearen babesa behar du eta ez da horrela gertatzen kurduerarekin Iranen, Sirian eta Turkian.

Helim Yusiv: Hasteko, esan dezagun literatura kurduari Kurdistango egoera dagokiola, lau estatutan bereizia. Horrez gain kurdu asko daude erbestean. Gaur egungo literatura kurdua lau estatu horietan eta erbestean, hau da, bost mugaren artean eta bi alfabetoren eta gutxienez beste bi dialektoren artean bereizita dago.

Zein berezitasun ditu literatura kurduak?

Berivan Dosky: Hizkuntzak adierazten du Kurdistango egungo egoera. Poesia eta borrokarako literatura eleberriak baino gehiago garatu dira. Edozein literatur esparru edo generotako ikerketak, herri kurduaren sufrimenduaren adierazle, oso gutxi dira.

Helim Yusiv: Debekatutako hizkuntza batean idatzitako literatura bat da. Literatura kurduak indartsu dihardu kurduen sufrimenduaz; estaturik, eskubiderik, hizkuntza ofizialik eta aitorpenik gabeko herri batez.

Idazle kurduen beren literatura eta hizkuntzagatik egiten dute borroka, mendietako gerrillariek erresistentzia egiten duten legez, askatasunagatik eta kurduen aitorpenagatik.

Idazle kurduak munduan bakanetakoak dira eskolan ikasi ez duten hizkuntza batean idazten dutenak, are debekatuta dagoen hizkuntza batean. Literatura kurdua idazle "burugogorrentzat" da. Lau estatuetako erregimenak beti saiatu dira gure hizkuntza deuseztatzen, baina kurduok beti egin dugu borroka hizkuntza horren alde. Literatura kurduari esker kurduerak biziraun, eta garatu egin da.

Sarri izan dugu eztabaida, baina ontzat ematen dugu euskal literatura euskaraz idatzitakoa dela. Zuentzat ere kurdueraz egindakoa da literatura kurdua? Yasar Kemalek turkieraz egiten duena literatura kurdua da?

Berivan Dosky: Guretzat ere antzera da. Ez Yasar Kemal ez Mahmood Dewlet Abadi, Mohammad Qazi, ez eta Ebrahim Younesim ere, azkenak Eki Kurdistanen-Iranen ekarpena egin arren, ez dira idazle kurduen komunitateko kidetzat hartzen. Iraken ere Bulend Alheideriren ekarpena arabierara eta Irakeko literaturara izan da, jatorri kurdua izan arren. Haien ekarpenek beste literatura batzuk aberastu dituzte, ez kurdua. Kasu ezberdina da, ordea, bai kurdueraz bai estatuko hizkuntzan dihardutenena, Hego Kurdistaneko Kemal Mezherren kasuan adibidez.

Helim Yusiv: Kategoriak emateaz ari garela, hirugarren leku baten jarri ditut beti arabieraz, turkieraz edo pertsieraz idazten duten idazle kurduak. Argi dago literatura kurdua kurdueraz idatzitakoa dela. Baina Kurdistan lau estatutan bereizitako kolonia da eta kurduera debekatuta egon da. Horregatik idazle ezagun eta

garrantzitsu asko ditugu, kurduak direnak, baina lurraldearen okupatzailearen hizkuntzan idazten dutenak, hala Nola Yasar Kemalek turkieraz, Selim Barakatek arabieraz eta Ashraf Darwishyan-ek pertsieraz.

Zeintzuk dira dohain handienak dituzten idazle kurduak? Nobel Saria nori emango zenioke?

Berivan Dosky: Mehmed Uzun zena, eleberrigilea, eta Sherko Bêkes poeta.

Helim Yusiv: Pentsatu kurduen egoeraz, oro har. Kolonialismoa. Nazioarteko aitorpen eza. Estaturik ez, inolako kultur erakunderik ez, itzulpenik ez kurduerarako… eta badaude faktore gehiago, kurduak ez direnentzat literatura kurdua ez dadin interesgarri izan. Gaur arte literatura kurdu modernoa ez da ingelesera edo frantsesera itzuli. Zelan hitz egin orduan Nobel sariaz? Ez nuke inor aipatu nahi, baina eleberrien, istorioen, ipuin laburren eta poemen arloetan, badira, nire aburuz, Nobel saria lortzea izango zuten idazleak, kurduak izan ez balira.

Zein genero landu dute gehien kurduek historian? Eta gaur?

Berivan Dosky: Historian zehar, poesia eta errezitatzeko moldeak izan dira kurdueraz gehien idatzi eta esan direnak. Kurdistanen agintean egon diren estatuek ezarritako zapalkuntza zorrotzari aurre egiten zieten generoak, Kurdistango herriaren erresistentziako borroka armatuan, mendietan baino ez zuten izan hori garatzeko adierazpen askatasuna. Kasua desberdina da gaur egun Hego Kurdistanen, kurdueraren babesagatik eta garapenagatik, eta hedabideek eta argitalpenek daukaten askatasunagatik.

Kurdistango alde guztietara iristeko zailtasunengatik, ohikoa izan zen eskualdeko literatur garapena izatea, eta idazle eta poetak oso ezagunak ziren, baina eskualdean soilik. Orain kasua pix-

ka bat desberdina da, Kurdistan autonomoak bizi duen egoerak inguruari eragiten diolako. Egon dira Kurdistan osoan ezagunak izan diren egileak, hala ere: hala nola, Mehmed Uzun eleberrigilea, Sherko Bêkes poeta, Abdullah Peshêw, Cigerxwin, Erebê Shemo, Hemin, Haci Kadirê Koyi eta abar.

Helim Yusiv: Literatur testu klasiko kurduak, gaur arte irakurtzen ditugunak, poemak dira gehienak. XVI. eta XVII. mendeetako poeta kurdu ezagunenak dira Feqiyê Teyran (1549-1631), Melayê Cizîrî (1570-1640) eta Ehmedê Xanî (1651-1707), kurmanjieraz idatzi zuten. Gero XVIII eta XIX. mendeetan daude Nali 1789-1855, Haci Qadirê Koyî (1817-1897), soranieraz idazten. XX.ean halaber soranieraz, Abdullah Goran (1904-1962), Hemin Mukriyanî (1920-1986), Hejar (1920-1990) eta kurmanjieraz Cegerxwîn (1903 – 1984). Hortik kanpo ehunka poeta daude.

Ipar Kurdistango eleberregintzan Erebê Shemo daukagu (1897-1978), 1930-1935 artean idatzi eta argitaratu zuen. Lehen eleberria *Artzain kurdua* izan zen, lehen eleberri modernoa daukagu. Beste hiru eleberri idatzi zituen: *Bizitza zoriontsua* 1959an, *Dimdin* 1966an eta *Hopo* 1969an. Hego Kurdistanen Ibrahîm Ehmed (1914-2000) eta *Herriaren sufrimendua* eleberria (1956) nabarmenduko nituzke. Ekialdean, Rehîmê Qazî eta Roman *Pêsmerge* (1960) eleberria. Ipuingintza Fuad Temok abiarazi zuen 1913an.

Literatura kurduko "urrezko arorik" badago? Zein da?

Berivan Dosky: Erromantizismo nazional kurduaren aroa Sheikh Mahmuden erresuman sortu zen, Hego Kurdistanen, 1920ko hamarkadan. Hala ere idatzi eta argitaratzeko mugimendu handia dago Kurdistango eskualdean 90eko hamarkada hasieratik, baina nostalgiak oraindik ere XVI. eta XVII. mendeetako klasizismo kurdua aipatzen du.

Helim Yusiv: Literatur kurdu modernoan, *Hawar* (*Oihua*), 1932-43an Celadet Alî Bedirxanek argitaratua, urrezko aroa da. 1932an atera zuten lehen zenbakia, alfabeto latinoz, eta 1943ko

abuztuaren 15 arte iraun zuen. *Hawar*-ekin kurduak alfabeto berriari ekin zioten, eta hori izan zen literatura modernorako abiapuntua, beraz, gure literaturako mugarria da.

Zein da *Mem u Zin*-en garrantzia literatura kurduan?

Berivan Dosky: *Mem u Zin* kurdu gehienen liburu sakratua da. Eragin garrantzitsuena nortasunean eta nazio kontzientzian datza.

Helim Yusiv: *Mem u Zin* literatura kurduko testu literario garrantzitsuena da. Ehmedê Xanî literaturaren historiako izen garrantzitsuenekin alderatu daiteke, ingelesentzat William Shakespeare dena, pertsiarrentzat Hafes Shirazi edo Ibin Arabi arabiarrentzat.

Ba antzeko garrantzia historikoa daukan beste lanik? *Dim Dim gaztelua*, menturaz?

Berivan Dosky: Melayê Cizîrî, Feqiyê Teyran, Mewlewi, Nali eta beste batzuen lanak hor daude. Baina *Mem u Zin* da literatura kurduko mugarria.

Helim Yusiv:Ahoz transmititutako kurduen literatura oso aberatsa da, ehunka istorio eta kondaira daude, hainbat bertsiotan idatziak eta batzuek oraindik idatzi gabeak. Adibidez, *Zembîlfirosh* (*Otzara-saltzailea*), Siyamed eta Xecê, Derwêshê Evdî eta beste hainbat istorio belaunaldiz belaunaldi pasa dira.

Zein da kurdueraren literatura Turkiako Kurdistanen? Eta Iranen? Sirian? Iraken? Sobietar Batasun ohian? Eta diasporan?

Berivan Dosky: Hego Kurdistanen (Kurdistan Eskualdea/Irak) ez beste inon ez dute hizkuntzak eta literaturak babes eta erabilera instituzionaldu eta sistematikoa. Beste leku guztietan hizkuntza garatzeko aukera mugatua daukate. Sobiet Batasun ohiko zenbait

errepublikatan literatura kurduak izan zuen garapenik, baita hizkuntzarekiko ikerketa akademikoak ere. Iranen egon ziren kontrolatutako eta zentsuratutako literatura mota batzuk, baina gaur kurdueraren eta literaturaren zapalkuntza inoiz baino handiagoa da. Turkia da hala ere gehien ardura gaituen herrialdea kurduen hizkuntza eta literaturen zapalkuntzari dagokionean, tarteka idazleen ahalegin informalak egon arren. Sirian egoera antzekoa da, edo are okerragoa. Europan, hala ere, Eskandinaviako eredua, Suedian bereziki, oso arrakastatsua izan da. Idazle kurdu askok izan dute aukera beren lana garatu, idatzi eta argitaratzeko

Helim Yusiv: Ez daukat esaldi soilekin erantzuterik, baina egungo literaturaren egoera honela laburbil genezake: 1990etik gaur arte iraultza egon da kurduen literaturan. Ipar Kurdistanen (Turkiako aldean), Turgut Özal lehen ministroaren garaitik, 1992. urtetik, kurduek aldizkariak, egunkariak eta liburuak kurdueraz argitaratu ditzakete, nahiz eta umeei ez dieten uzten hizkuntza eskolan ikasten.

Hego Kurdistanen ere (Irakeko aldean) 1991ko matxinadatik kurduek Irakeko erregimenetik askatzea lortu zuten eta gaur badauzkate Parlamentua eta Gobernua. Kurdistan mendebaldean (Sirian) eta iparraldean (Turkian) kurmanji dialektoak berpizkundea izan du. Literatura moderno eta ederraren belaunaldi berria dator. Hego (Irak) eta Ekialdeko (Irango) Kurdistanen sorani dialektozko literatura kurduak urratsak eman ditu. Sobietar Batasun ohiko kurduek, Armeniakoek bereziki, alfabeto latinoa erabili dute.

Eta zein da erbeste edo diasporaren garrantzia?

Berivan Dosky: Idazle kurduentzat diaspora aberri berria da, lanerako aukera eman die. Suedia literatura kurduaren oso gune garrantzitsua da.

Helim Yusiv: Kurduera Kurdistanen debekatuta egonik, erbesteak oso paper garrantzitsua izan du literatura kurduaren historian. Lehen egunkari kurdua 1898an sortu zen, Kairon, Egipton.

Erebê Shemo-ren lehen eleberria 1935ean argitaratu zen Armenian. Lehen istorio laburra 1913an Istanbulen. *Hawar* hizkuntza eta literaturako aldizkari garrantzitsua Damaskon agertu zen 1932an. Argi dago literatura eta hizkuntzaren alorrean emandako urrats garrantzitsuenak kurduen eremutik kanpo, hau da, erbestean, gertatu direla. Erbestea ama da literatura kurduarentzat.

Dialekto eta alfabeto desberdinak darabiltzazue, arabiarra eta latinoa. Zein eragin dauka literatura kurdu nazionalean?

Berivan Dosky: Hori da benetako erronka. Hizkuntzaren eta literaturaren garapenean erronka negatibotzat har dezakegu, baina literaturaren aberastasunari bagagozkio, paregabea dela esan dezakegu.

Helim Yusiv: Gure errealitatea onartu behar dugu. Gaur arte ez dugu goi-alemanaren antzeko hizkuntza nazional estandarizaturik izan. Hainbat dialektotan eta bi alfabetotan idazten dugu. Oraingoz ez daukagu arazo hori konpontzeko gai den estaturik.

Hizkuntza batasuna beharrezko jotzen duzue literatura nazionala izateko, edo orain arteko zatiketak aberastasun handiagoa dakarrelakoan zaudete? Zein proposamen dituzte intelektual kurduek?

Berivan Dosky: Ikuspegi ugari daude, eta aintzat hartzeko errealitateak. Onartu behar dugu gutxienez bi dialekto garatzen ari direla. Baina alfabeto batua oinarrizko elementua izango da. Kontua da horri buruz ere bi hurbilketa izan dituztela intelektualek, eta ondorioz egoerak bere horretan dirau, baita Kurdistan autonomoan ere. Bi dialektoek hitzak partekatzeko ahaleginak daude, eta baita dialektoak bereizita garatzeko ere.

Helim Yusiv: Intelektual kurduak ez datoz bat. Gai arantzatsua da guretzat, bakoitzak bere iritzia dauka. Nire ustez gure literatura nazionalak edozein dialekto kurdutan idatzitako lan guztiak biltzen di-

tu. Idazle kurduok ezin dugu errealitate hori aldatu. Botere kontua da. Oro har horrelako hizkuntza arazo zailak ezin dituzu konpondu, estatu kurdu independentea izan ezean.

Gobernu autonomoa (KRG) dago Hego Kurdistanen, Irakeko aldean. Positiboa izan da literatura kurdurako? Zer gehiago egin zezakeen edo egin beharko luke?

Berivan Dosky: Gobernu Autonomoa sortzea bultzada handia izan da kurduera eta literatura garatzeko. Baina KRGk hizkuntza politika nazional eta estrategikoan inbertitu behar du.

Helim Yusiv: Tamalez arduratuegi dago gobernu autonomoa arazo politiko eta ekonomikoekin, eta ez du politika onik egin gai horrekin. Sorani dialektoa hizkuntza ofizial egin eta arabiar alfabetoa ezarri nahi dute Hego Kurdistanen eta gainontzeko dialektoak, gehiengoak hitz egiten duen kurmanjiera kasu, debekatu. Arazo handia daukagu politikari kurduen mentalitatearekin. Ez daukate literatur proiekturik. Ez daukate benetako interesik literaturan. Haien programetan ez dago lekurik literatur garapenerako. Eta dagoen apurra beren alderdien onuran da, hau da, haien kideentzat. Urrats ugari eman ditu literatura kurduak Hego Kurdistanen, baina gutxi batzuek atera dute etekina hortik, eta ez literaturak, hain gutxi Kurdistango beste aldeetako idazleek.

Literatura kurdua: harribitxi batzuk

Hautaketa: Urtzi Urrutikoetxea

NAZAND BEGIKHANI

Egun arrunta

Segurtasun ofiziala
goiz jaiki zen
alkandora zuria jantzi
eztizko tostadak intxaurrekin hartu
hiru umeei musu eman
emaztea kartsuki besarkatu
eta lanera joan zen

Bere idazmahaian
hamar karpeta zeuden
tiroz hiltzeko hamar gizonenak
Izenpetu egin zituen
menta tea edaten zuen bitartean

Hamarretan
fusilamendua agindu zuen
haserretu egin zenituan kale egin zuen tiratzaile batekin
eta bere pistola atera
eta hamar aldiz egin zion tiro kale egindako ituari

Lanaldia amaitu baino lehen
exekutatutako hamar gizonen amak bisitatu zituen
ehun dinar eskatu zizkion bakoitzari
semeak hil zituzten balengatik

Arratsean
anaiaren urtebetetzea ospatu zuen

Gauez
ispiluaren azalean
odol tanta bat ikusi zuen oinetara isurtzen
garbitzen saiatu zen
eta tanta bularrera igo zen

Zertan datza hiltzailearen eta hilaren arteko aldea?

Zoriontasunari buruzko sinposio batean, Galesen

Psikologo batek esan zuen
Kanposantuek lagun zaitzakete zoriontsuago sentitzen
bisitatu kanposanturen bat deprimituta zaudenean

Marra fina dago bizitzaren eta heriotzaren artean, adiskidea
eta ni naiz kanposantua

Pozik nago bizirik nagoelako, adiskidea
Halabja-ren eta Anfal-en ostean
Pozik nago gure neba-arreben
hilobi komunak dauzkan
lur baten ahots bihurtuta

Marra fina dago bizitzaren eta heriotzaren artean, adiskidea
Marra fina dago bizitzaren eta heriotzaren artean

Askapena

Nire gorputza elurte bat bezain isila da
Nire izpiritua, errekasto bat

Gogoan ditut behinola hemendik pasa zirenak
Zeruan argi lerroa zeharkatu
Eta inoiz itzuli ez zirenak
Gogoan ditut eta eguzkiaren handitasunaz hausnartzen dut
Gogoan ditut eta haize leunaren miraria entzuten dut
Gogoan ditut eta harriaren isiltasuna ukitzen dut
Gogoan ditut eta nire samina ikusten dut kotoi bola bihurturik
haize bolada batek daramala

Bizitza egun batean

Goiz batez egunsentian
jaio nintzen
Eguzkiak izpien idunekoa jarri zidan sama inguruan
eta sorlekuko lorategiko errekastoak
urezko oparia luzatu zidan

Eguerdian
haurtzaroko baserriko ibaian murgildu nintzen
Shakhi Mishka
iturburuan behera muino berdeetan arineketan
larrosa urez jantzi nintzen
wanawsha hostoa lotu nuen nire ilean

Arratsaldean
lagunarekin joan nintzen
Tigris ertzera
musuak, poemak

arraun traineru bihurtu ziren
eraman gintzaten
norbaitek bekatu-hondartza
izendatu zituen haietara

Ilunabarraren ostean
ahuspez
ozeano Atlantikoaren ertzeraino
ekarri gintuela ikusi genuen
elkarrekin
bi hilobi eraiki genituen harean
eta "Denbora" idatzi genuen

EHMED HUSSEYNI

Evar eta Bazyar

Hemen nago alemanen lurraldean. Denborari zetazko txanoa josi
eta haizeari lastozko geltokiak
bakarrik,
galduta ametsaren uberan eta xuxurla nire gogoak garaitzen
duen
gauaren agonian
maitasun zahar baten aztarnak
harridura hausten saiatzen naiz zu harrapatzeko, oreinaren gisa
arineketen zoazela
mende magalak, jasmina eta nire adina zeharkatzen
ispilu zaharrak txikitu eta damuaren atzeko ateko heriotza urrun
gorde nuen
nire eskura begiratu nuen anpuluen herrialdean,
eta memoriaren leihoan bidaiako errezelak itxi nituen
zure suak sakratuak dira
idatz iezadazu desioren bat lehen lerroan eta marraztu zure hel-
muga berriak

errautsetako poema horretan
esan maitasunik gabe:
ba al da kalatxoriei hareazko tintan helbidea idatzi ez diedan hondartzarik?
Ba al da asperduraren zorrotik hautsik jaurti gabe pasa dudan geltokirik?
Ba al hitzek beren buruaz beste egiten duten kantarik, nik alfonbra gorria eta letra hitsak jarri gabe?
Bihar, esan zidaten:
Egarriaren distiraz eta aluzinazioaren nagusitasunez hilko zara
esango dute
poesia hil zenuen eta galeperrak eta kantak ehizatu zenituen
erbeste bakoitzean arrosa bat landatu zenuen
eta arrabotsa galderetan
eta esango dute urteak izkina zimeletan ezkutatu dituzu
hemen alemanen lurraldean belarretan etzaten naiz nire jaiotze
berriko paperak urratzeko minez
zure begietako harri beltzak jasotzen ditut eta nire esku maitekorrekin lur mingotsa zabaltzen dut nire hilobian
eskaini nire hilei ardo beltza eta hedatu haiengana ur paperak
eta errauts tintatik urrezko hilarri bihurtzen ditut
eta loreetatik transkripzioa egiten ditut hilen izenetatik
ilunabar larua lurraren pasioan
herabe zure ile trostariaren presentzian
zure izena esaten dut ipar haizeak astintzen nauela
sorbalda hau kolpea da zure ezpain kezkatuentzat,
orduan,
konta ezazu zure odol arrastoa nire ahotsean,
eta zugana noa arineketetan helmuga guztietatik
eta elkarrekin goaz arineketan helmuga guztietarantz
utzi egiten zaitut egunsentia nire zorroan dardaraka
eta zure jantzi urdina hodei gardenetan isurtzen da
zure gaua bozkarioa da eta nire lantua euria da
zure hitzak abegikorrak dira
eta zure jasmina helmuga bat da
orduan

poema hau zuretzat da
eta niretzat neke zoragarria baino ez,
utz iezaguzu elkarrekin kanta urrun batera korrika egiten
begi hitsekin iluntzea marrazten dut zure eskuan
eta zure masaileko herabea ehizatzen dut
portu lerden batean ezkutatzeko
errebelazioan galdu zenuen irribarrea bilatzen dut
joandako desio baten agonian
goizean umezurtz nintzela
itsasoari arrosa bat argitzen dion arrotzaren gisan
eta bidaiari prosazko sorginkeriak
agian hil beharra daukat zure deiaren falta izateko berriz ere
zure ahots errukiorrean ekaitz-kanta
esaten:
utzi haizea bezalako maitalea izaten
eta izar urruna bezain geldia
itsasora itzuli nintzen, hain triste
zure papar soila
galdetu nuen
ahots bat egon da zure eta nire artean
mutilaren ahotsa
neskaren ahotsa
zubi baten azken olatua zen
Fenixa naiz
ardoa, zure odoletan
porrotaren maitalea
beraz,
utzidazu zu maitatzen
eta eman baimena hil nadin!

SHERKO BEKAS

Bereizketa

Nire poemetatik
lorea erauzten baduzu
nire poesiako lau urtaroetatik
urtaro bat hilko da
Nire maitasuna baztertzen baduzu
urtaroetako bi hilko dira
Ogia baztertzen baduzu
urtaroetako hiru hilko dira

eta askatasuna eramaten baduzu
lau urtaroak hilko dira

Ekaitzaldia

Itsasoak arrantzaleari esan zion
arrazoi askogatik daude
suminduta nire olatuak
horietariko garrantzitsuena da
arrainaren askatasunaren alde nagoela
eta sarearen
aurka

Haziak

Milioika ginen
zuhaitz zaharrak ginen
hazten hasi berri ziren landareak
eta sustraiak

Ankarako gotorlekutik
egunsentian etorri ziren
sustraietatik erauzi
hemendik eraman gintuzten
urrunera

Bidean zuhaitz zahar
askoren adaburuak ihartu ziren
landare berri asko hil ziren hotzetan
hazi asko zapaldu ziren oinpean
galduta eta ahaztuta

Udako ibaia legez mehar hazi ginen
hegazti-saldoak udazken garaian bezala
urritu ginen
milaka gutxi batzuetara murrizturik
haizeak ekarritako
haziak geneuzkan
berriz mendi egartsuak erdietsi zituzten
haitzetako arrailduretan ezkutatu ziren
lehen euria
bigarren euria
hirugarren euria
berriz hazi ziren

Orain basoa gara berriz ere
milioika gara
haziak gara
landareak

eta zuhaitz zaharra
gotorleku zaharra hil da!

Eta orain zuk, gotorleku berriak
zergatik jarri duzu lantzaren burua
zure okotz pean?
Ezin al gaituzu akabatu?

Baina badakit
eta zuk badakizu
eurirako eta haizerako
hazi bat den artean
baso hau ez da inoiz amaituko?

SEYDE CIGERXWÎN

Nor naiz ni?

Nor naiz ni, galdetzen duzu?
Kurdistango kurdua
mendi bizia
sua eta dinamita
etsaiaren aurrean.
Suminduta banago
mendiak astintzen ditut
nire haserrearen txinpartak
heriotza dira etsaientzat.
Nor naiz?
Ekialdean naiz
gotorlekuak eta gazteluak
hiriak eta herrixkak
harkaitzak eta arrokak
hara ze ironia, zeinen egun lotsagarria!
Esklaboa naiz orain odol zurrupatzaileentzat

baina nik salbatu nuen Ekialde Hurbila
erromatarrengandik eta gurutzatuengandik
Nor naiz ni?
Galdetu Ekialde Hurbilean
galdetu Sartaldean
herriak eta hiriak
lautadak eta basamortuak
behinola nireak ziren
gerraz eta jakituriaz
aurkariak garaitu nituenean
Indiako mugetaraino iristen zen
inperio baten gainean koroatu ninduten
Nor naiz ni?
Kurdu harroa naiz
etsaien etsai
bakezaleen lagun
askazi noblekoa naiz
ez basa esaten duten legez
nire arbaso indartsuak
jende librea ziren.
Haiek bezala izan nahi dut libre
horregatik borrokatzen naiz
etsaiak ez duelako bakerik emango
eta ez dut betiko zapalduta nahi
Nor naiz ni?
Nire lurraldea askatuko dut
tiranoengandik
sha eta mullah ustelengandik
Turkiako juntetatik
libre bizi gaitezen
beste nazioen gisa
nire belardiak eta larreak
nire izan daitezen atzera ere;
borrokara batu nadin
gizatasunaren on beharrez
Nor naiz ni?

Ni naiz Richard Lehoi Bihotz
garaitu zuena
nire odola isuri nuen
lurraldeok defenditzeko.
Arantza nintzen etsaien aldean
nire itzaletan bizi ziren arabiarrak, turkiarrak eta persiarrak
errege ugarik izan heldu zioten nire zaldiaren buruari
bai ni naiz borrokalaria
ni naiz Saladin
Egipto, Siria eta Israelgo errege
Nor naiz ni?
Ardashir naiz
Noshi Rawan naiz
antigoaleko egunetan
aurkariek nire buruzagien beldur ziren
nire haserrea deitoratzen zuten
ez nuen beldurrik ezagutzen
abenturarekin maiteminduta
Indiatik Greziara
ohoratzen zidaten.
Nor naiz ni?
Bai, kurdua naiz
Kurdistango kurdua
gaur behartsu eta zapaldua.
Nire gaztelu eta gotorlekuak
eraitsiak dira egun;
nire izena eta ospea
erasotzaileen iruzur
gorputzean izatea geldiarazteko haziak
jarri zizkidaten horiek
naizenetik izengabeko gogoa eginez;
lagunik gabeko nazioa
Nor naiz ni?
Ni naiz, hori guztia jasanda ere
kurdu menperagaitz dirauena
oraindik izugarri etsaiarentzat

dinamita usaina berriz ere nire sudurzuloetan da
eta nire bihotzean lehertzeko desio bortitza
mendiko borrokalari ausarta naiz
ez heriotzaz maiteminduta
baina bizitzaren eta askatasunaren alde
bere burua sakrifikatzen duena
arbasoen, medo garaiezinen lurraldea,
bere Kurdistan maitea
kate gabe bihur dadin
Nor naiz ni?

Nire arbasoetarik bat Kawa erementaria zen
Dahak tirano ospetsua hil zuena
kurduen lepotik kateak apurtzeko
eta buru ugari salbatzeko ezpatatik eta heriotzatik
haren aginte zitala amaitu zen egunari
Newroz, Egun Berria, deitu zioten
Newroz datorrenean badoa negua
berarekin sasoi ilun latzak daramatzala
argiari eta beroari leku egiteko.
Hau da, Zoroastrok esan bezala,
Ahriman izpiritu gaiztoa garaitzen den garaia
Ormazd jakituaren eta argiaren jainkoaren eskuetan.
Nor naiz ni?
Newroz egilea naiz;
berriz ere neure buruaren nagusi izango naiz,
nire lurreko agintari
nire arboletako fruituez gozatzeko
nire mahastietako ardo sekretuak dastatu
eta amaiera eman garai ilunari
salbazioa jakiturian eta zientzian aurkituta;
beste egun berri bat egingo dut
eta askatasunaren aire garbia arnastuko dut
Nor naiz ni?
Kordokh naiz, Khaldew agure zintzoa;
Mitan naiz, Nayri eta Sobar

Lo Lo-ren seme; Kardok eta Kodi
Medoa naiz, gosh-a, hori-a, gudi-a
Kurmanj-a naiz, kelhor-a, lor-a, gor-a
ai, beti izan naiz eta iraun dut kurdu
mendetako zapalkuntzak zapalkuntza
indarrez zatitutako lurraldean.
Nor naiz ni?
Lor-en, Kelhor-en eta Kurmanj-en seme naiz
koroa eta erresuma galdurik
behartsu bihurtuta,
erlijioaren izenean traizionatua
eskuetan arrosarioak eramateko
agintariek engainatua
boterea eta ondasuna ukatua
elkarrekin borrokan, zatituta eta urratuta
nire Kurdistan zapalduak,
nire Kurdistan dohakabeak
zigortuta dirauen artean.
Nor naiz ni?
Nazio kurduaren seme naiz
lo sakonetik iratzarria
aurrera ibilian
lehoia bezain harro
mundu osoa nahi duela ezagutzeko;
borroka egingo du eta askatasunaren bidean jarraituko;
Marx eta Lenin eta bestelako
gizon handietatik ikasiko dut.
Hitz emango diet arbasoei
Salar-i, Shergo-ri eta Deysem-i
naizen honek tinko, sendo, makurgabe, heriotza baino indartsua-
go eutsiko diola.
Jakin bedi
beldurrik gabe iragartzen dut;
Askatasuna dut xede
Bide horretan joango naiz.
Nor naiz ni?

Ez naiz odol gose
ez, bakea maite-maite dut.
Nobleak nituen arbasoak,
zintzoak buruzagiak.
Ez dugu gerrarik galdegiten, berdintasuna baino ez dugu eskatzen
baina traizio eta gezurra egiten duten etsaiak ditugu.
Laguntasunaren bila nabil eta eskua eskaintzen diet
adiskide diren nazio guztiei.
Gora Kurdistan;
heriotza zapaltzaileari!

Cegerxwin XX. Mendeko egile kurdu kuttunetakoa da. Kurdistango borrokaren kantu epiko hau, leloa batez ere (Nor naiz ni? Kurdua naiz!) manifestazio askotan kantatzen da Ipar Kurdistanen. Erdialdean Newroz azaltzen du, kurduen urteberri eta egun nazionala, biak batera, martxoaren 21 ean ospatzen dute, udaberriko hasiera. Ekialde Hurbileko eta Asia Erdialdeko herri askotan daukate Newroz, zoroastroren eguzkiaren kultua gogoan. Erlijio horri eusten diote yezidi kurduek. Newrozen kurduek Kawa errementariak herri kurdua askatu izana ospatzen dute.

Herri kurduaren sorreraen mitoak Zohak errege ankerra eta Kawa errementaria jartzenditu aurrez aurre. Ileen ordez sugeak zituela buruan, goizero Mediako bi ume kurdu hiltzen zituen Zohakek buruko munstroak elikatzeko. Bere erresuma iluntasunean eta ankerkerian oinarritzen zen. Kondairak dio hiru zaldunek, medikuz jantzita, heriotza bat libratzea lortu zutela buruan akerburua jarrita. Mendietara ihesi joan eta beste iheslariekin jaio zen herri kurdua. Kawa eta beste matxinoak Newroz egunez abiatu ziren Zohak erregearen gaztelura. Jauregia inguratu eta gauez eraso zioten, Kawak zaindariak saihestea lortu eta lepoan sartu zion labana. Hala askatu ziren Mediako kurduak eta Kawak Kurdistanen askatasuna aldarrikatu zuen. Garaian hedabiderik ez eta, sua piztuten jakinarazi zieten auzoei askatasunaren berri. Eta oraindik martxoaren 21 en sua pizten ospatzen dute Newroz.

DILDAR

Ey Raqîb: Kurdistango ereserkia

Aizu, etsai, nazioa kurdua bizirik da bere hizkuntzarekin
inoizko armek ezin dute garaitu
inork ez dezala esan ez da kurdurik geratzen
kurduak bizirik dira
kurduak bizirik dira, haien bandera sekula ez da jausiko

Gu, gazteok, iraultzaren kolore gorria gara
begira bidean isurarazten diguten odolari
inork ez dezala esan ez da kurdurik geratzen
kurduak bizirik dira
kurduak bizirik dira, haien bandera sekula ez da jausiko

Media eta Keyhusrew-ko seme-alaba gara
Gure fedea eta erlijioa ditugu aberri
Gure fedea eta aberria kurduera eta Kurdistan dira
Inork ez dezala esan ez da kurdurik geratzen
kurduak bizirik dira
kurduak bizirik dira, haien bandera sekula ez da jausiko

Kurdu gazteak lehoien gisan jaiki dira
Bizitzaren koroa odolez apaintzeko
Inork ez dezala esan ez da kurdurik geratzen
kurduak bizirik dira
kurduak bizirik dira, haien bandera sekula ez da jausiko

Gazte kurduak beti daude hor eta
Beti egongo dira biziak sakrifikatzeko prest
Bakoitzaren bizia sakrifikatzeko, bakoitzaren bizia

Yonis Reuf, Dildar, 1917an jaio zen Koye hirian. Kirkukeko eskolatik Bagdadera joan zen zuzenbidea ikastera. 1938an idatzi zuen Ey Reqîb, *Irango espetxe batean preso zela.* Ey Reqîb-ek *"aizu, zaintzaile" esan nahi du hitzez hitiz, baina "aizu, etsaia" itzuli ohi da, esanahi zuzenagoa delakoan. Alde guztietako kurduen ereserki nazional bihurtu zen, Mahabadeko 1946ko errepublikak hala hartuta. Gero, Kurdistango Langileen Alderdiak ere (Partiya Karkarén Kurdistan, PKK) hala aldarrikatu zuen.*

ABDULLAH PESHEW

Soldadu ezezaguna

Atzerriko ordezkaritza bat herrialde batera doalarik
lore sorta bat eroan ohi dute
soldadu ezezagunaren hilobira.
Bihar
ordezkariren bat Kurdistanera badator
Eta galdetzen badit: non dago
soldadu ezezagunaren hilobia?
Esango diot, jauna
edozein erreka ertzetan
meskita bakoitzeko aulkian
etxe bakoitzaren atarian
eliza bakoitzaren ate aurrean
mendiko harkaitz bakoitzeko
haitzulo bakoitzean
zelaiko edozein zuhaitzetan
herrialde honetan
zeruko metro bakoitzean
zaude lasai, makur zaitez pixka bat
eta jar ezazu zure lore sorta

SEYIDE QAJI

Sustraiak

Belarra bere sustraietan hazten da
txoriek beren hizkuntzan kantatzen dute
jatorria ukatzen dutenak
hautsa altxatzen duten ibiltariak baino ez dira.
Bihotza erre egin daiteke aberriagatik
etsaiaren aurrean haserrez eta erabakimenez

Hortxe dago udaberria

Hortxe dago udaberria
Harkaitzen azpian,
Zuhaitzen azpian
neskatxa gazteak pozik daude
mendiak daude haien gainetik,
eta han gizon gazteak pozik daude.
Harkaitzen azpian
Atso zaharrak pozez daude
baina horiek guztiek itzaletan daukate
ezkongaien benetako poza.

Seyide Qaji, Sey Qaji izenez ezaguna (1871-1936), Ciwarik herrian bizi izan zen, Dersimen, eta peosia liriko eta abertzalea egin zituen.

MEHMET EMÎN BOZARSLAN

Gure poesia malkoz idazten da

Espetxeetan
espetxe ilun eta beteetan
gotorleku eta kasernetan
burdin astuneko atea eta barroteen atzean
arratoi eta kakarraldoen artean
gure literaturaren haziak hazten dira
eta gure historia umotzen ari da.

Malkoz
begietako malkoz
umeen malkoz
aitengana isurian
espetxean diren aitengana
gure poesia idazten da
eta gure historia umotzen ari da.

ROJEN BARNAS

Mila eta bat

Zu maitatzeko,
arrazoi bakarra dago,
baina mila arrazoi eta bat gehiago daude
zu ez maitatzeko.
Bakar hori,
beste mila eta batak baino astunagoak dira
bihotzaren eskalan.

Nire buruari galdetzen diot
nire bihotzeko eskalak ote diren desorekatuak
edo nire jakituria pentsamenduen gatibu ote den.
Ez baita arrazoizkoa,
mila eta bat bakar bat baino arinago izatea
bakar bat mila eta bat baino gehiago izatea.

1945ean Diyarbakirren jaio, eta 1970ean politikari kurdua izan zen. Suedian bizi da 1981etik. Gaur arte hiru poema liburu eta ipuin-bilduma bat argitaratu ditu.

S.T.

Nola maite ditudan mendi hauek
haien edertasun birjina
gure armekin ohoratu dugu
amaren umetokiak legez
aterpe eman diguten mendi hauek

Gure aurka diharduten turkiarren eta
arabiarren eta pertsiarren ezpatetatik
gure patua da, fusilaren kanoiaren
gainetik bi sumendi bikiren gisan
nire eskuak lotzen dituen pasio hau

Geroz eta gehiago borrokatu emakumeek,
ederrago bihurtzen dira.

S.T. emakume gerrillariak 1994an Beritan-en omenez idatzia.

MEHMED UZUN

Diyarbakir: muturrekoa aurpegian

Nire bulegoko txoko nagusian Euripideren esaldi bat dago: *Omnis hominum vita est plena dolore*. Zera esan nahi du: gizonaren bizi osoa sufrimenduz betea da. Esan gabe doa, maxima hori ez dagoela hor sufrimendua bultzatzeko. Aitzitik, lezio bat emateko dago, gizonaren zoriontasunari lagunduko dion aberastasun bihurtzeko sufrimendua, horren ikuspegia behin ere galdu gabe. Printzipio hori garrantzitsua da, ez agian denentzat, bai gutxienez sufritzera kondenatutako jendearen umearentzat.

Lau aholku erabakiak hobeto hartzeko. Nire borondatearekin zerikusirik ez daukaten arrazoiengatik, kurdu jaio nintzen mundura, eta ordutik nire bizitza bi gauzak markatu dute: sufrimenduak eta gezurrak. Eta esan daiteke, nire akatsak akats, bizitzako berrogeita zazpi urteak eman ditudala gizonak bi deabru horietatik libratzeko borrokan. Etengabe behartu dut nire burua gezurraren aurpegiera ezkutu, primitibo eta ankerra dezifratzera, sufrimendua oinarri hartuta gizonaren eta gizateriaren zerbitzura dauden arte lanak sortzeko ahaleginean. Ez dakit zein neurritan lortu dudan. Badakit, baina, heldu diodan ororen motibo zentrala hori izan dela. Ez dut asmorik, noski, nire bizitzako istorioa era sentimental baten hemen emateko, baina hala ere, labur hitz egin nahi nuke hiru gertakari atsekabetsuetatik ateratako hiru leziori buruz.

Lehen lezioa 1960ra doa, zazpi urte nituen orduan. Uda amaierako egun bero eta argi baten, goitik, behera arropa berriekin jantzita nengoela, gramatika eskola hartzen ari nintzela, muturreko bortitza hartu nuen aurpegian, hizkuntzaren eta hitzen garrantziari buruz. Tribu kurdu baten babesean jaio eta hazi nintzen. Nire familiak ez zeukan horman eskegitako Koranaz besteko libururik, ez eta irrati edo telebistarik ere. Etxe handi hartan, baratzea granada arbolekin eta beste horrenbeste mertxika arbolekin landatuta zeukala, arrosak loratzen ziren lorategia, ez zegoen ezer aitaren bilur-az haratago, aitonak kontatutako istorio eta kondairak, eta amonak zaza dialektoan kantatzen zituen kanta tradizional zora-

garriak. Kurdueraren sentimendu, ideia, arau eta balioetan oinarritutako unibertsoa zen.

Zazpi urte nituen eta maite nuen neuk ere osatzen nuen unibertso hura. Baina eskolako ataritik sartu nintzen lehen eguneko lehen ordutik aurpegian hartutako muturreko batek irakatsi zidan, halabeharrez txertatu zen oroimenean, nire unibertsoa zentzugabea, alferrikakoa, primitiboa eta debekatua zela, eta utzi egin behar nuela. Eskola kideen ilarara batu nintzelarik gramatika-eskolako patioan, zeinak Ibrahim Rafet poetaren izena zeukan, irakasleak, Anatolia erdialdetik zerbitzu zibila egitera etorria bera, deitu eta muturreko gogorra eman zidan ikaskidearekin ama-hizkuntzan ari nintzelako. "Debekatuta dago kurdueraz egitea". Turkieraz ahoskatutako agindu haren benetako esangura, zenbait urte geroago etorri zitzaidan.

Muturreko hartatik ateratako lezioa da hizkuntza eta hitza oso garrantzitsuak direla. Bigarren lezioa 1976ko udako eskolan etorri zitzaidan. Martxoaren 21ean atxilotu ninduten aldizkari kurduturkiar bateko zuzendari lanagatik, "separatismoa" leporatu zidaten eta Ankarako espetxe zentralean giltzaperatu ninduten. Denbora pixka bat pasatutakoan jabetu nintzen nire aurkako akusazioaren izaeraz, eta neure burua aurkeztu nuen Estatu Segurtasuneko Gortea zeritzon hartako lehen epaiketarako; gaur nire liburuak debekatzen dituen tribunalaren antzekoa zen. Ez dut egun edo hile zehatza gogoratzen, 1976ko udako egun txakurra zela soilik. Lau aldetan leihorik gabeko areto hartako giroa, erabat itogarria zen. Denok geunden izerdi patsetan, ni neu, Mehmed Uzun "akusatua", mahuka laburreko alkandora eta lihozko prakak jantzita; bost lagunez osatutako tribunala, arropa ofiziala eramatera behartutako bi soldadu eta hiru zibil, fiskala, geroago jakin nuenez Agriko kurdua zena, nire abokatua eta senideak, epaiketan egoteko etorriak; denak geunden izerdi bitsetan. Fiskalaren briefak ez zituen bi orri ere, eta nik hogeita sei orrialdeko erantzuna prestatu nuen, oso xaloan, kurduak eta kurduera bazirela frogatzeko asmoz. Fiskalaren argumentua zen kurduek eta kurduerak ez zeukatela izateko erarik. Aurkakoa zioenari separatista deitzen zioten eta zigorra merezi zuen.

Fiskalak bere argumentuak bota zituen begietara zuzen begiratzen zidala. Nik, bata bestearen atzetik, kurduerazko hitz batzuk ahoskatu eta hala esan nion: "Hori da zuk ukatzen duzun hizkuntza. Nire ama-hizkuntza ere bada. Ulertu duzu ezer?" Fiskalak, bistan da, erantzuteari uko eta bere argumentuak errepikatu zituen. Epaiketa atzeratu egin zen. Espetxera ninderaman armadako furgoneta blindatuan utzi zioten nire begiek izerditzeari. Ez horrenbeste bero sapagatik, nire ezintasunagatik baizik, inpotentziagatik, fiskalarekin eta tribunalarekin eztabaidatzeko ezintasunagatik; ez nintzelako gai izan botereak, indarkeriak, legeak eta balio ofizialek egia bezala aurkeztutako gezur handi bat desegiteko, egun hartatik ateratako lezioa izan zen hitzak duintasuna, begirunea gorde behar dituela.

Hirugarren lezioari dagokionez, erbesteko urteek zedarritu zuten. Zortzi hile espetxean eman ostean askatu ninduten azkenean. Hala ere, egunkari bateko zuzendari ardurak zirela-eta akusazio berri baten arriskuan egonik, erbestea hautatu eta Suediara joan nintzen, 1977an hasi nintzen han bizitzen. Garai hartan Turkian zeuden legediek ezinezko egiten zuten nire sorlekura itzultzea. Horren ondoren, 1981ean, erregimen militarraren erabakiz, beste hainbat turkiar eta kurduri legez, naziotasuna, nire eskubiderik oinarrizkoena, kendu zidaten. Bizkor ikasi nuen erbestea hondorik gabeko zuloa zela edo, Gombrowicz-en hitzetan, "bizidunen hilobia".

Nola bizi erbestean eta hilobi hari itzuri? Nola gauzatu gizateria osoa aberasteko gai izango zen bizimodu emankor eta errespetagarria? Horiek izan ziren, beste askoren artean, inoiz kitzikatu ez ninduten galderak. Mendebaldera iritsi berria izanik, mendebaldeko idazle erbesteratuak ikertzeari eta irakurtzeari ekin nion, haien esperientzien eta galdera horiei emandako erantzunen berri izateko. Homero, Euripides, Ovidio, Virgilio, Dante, Cervantes, Hugo, baita gure mende kriminaleko idazleak ere: Mann, Zweig, Broch, Canetti, Bunin, Berberova, Celan, Sachs, Singer, eta sustrairik ezaren eta sufrimenduaren literatura estetikoaren beste hainbat sortzaile.

Gaur, hamabost edo hogei urte beranduago, nire idazle kuttunei buruzko saioa idazten ari naiz, "Fenix berdea naiz" izenburua

daukana. Haietako bakoitza errautsetatik berriz sortutako Fenixa izan baitzen. Erbesteko bizitzatik ikasi nuen lezioa, bizi osoa bezain luzea izan baitzen egun bakoitza, hitz gutxi batzuetan laburbil daiteke: hizkuntzak ederra, sinplea eta gizatiarra behar du. Esperientziaz ikasi dut hitz eder eta gizatiar batek edozein zapalkuntza, tirania edo zorigaitz baino indar handiagoa daukala. Haien sormenei esker, nire "Fenix berdeetako" bakoitza garaiko Sardanapalusak ziren buruzagi sakratu eta absolutuak baino askoz hilezkorragoa eta gizatiarragoa da.

Edertasuna, indarra, duintasuna. Nire bizitzan ere denbora pixka bat behar izan nuen hizkuntzaren hiru ezaugarri horiek aurkitzeko. Hitzetan aterpe hartzen hasi nintzen, nik neuk bakarrik erabiltzeko leku beroa sortuz, herrialde, muga, aurreiritzi eta hainbat leialtasunetatik haratago zegoen lekua, eta beraz nire burua hitzen unibertsoan erabat murgilduz. Gero nire hitzak bilatzeari eta pilatzeari ekin nion, azkenik hitzok ordenatuz literatur lanak egiteko, kurduei, Turkiari, Ekialde Hurbilari eta Europari eskaini nizkien. Kurduek hitzok bozkarioz eta jelosiaz hartu zituzten. Hitz zauritu horiek haienak baitziren, haien ondare kulturalari zegozkien eta haien malenkoniaren, haien sufrimenduen ahotsa gorpuzten zuten.

2000ko urtarrilaren 15ean, Diyarbakirrren, hizkuntzaren indar paregabea baieztatzeko aukera izan nuen. *Roni mina evine-tari mina mirina* (*Maitasuna bezain argia, heriotza bezain iluna*) eleberria turkieraz argitaratu zela-eta, nire argitaratzaile kurdu eta turkiarrekin batera aurkitu nuen nire burua. Turkiako Bar Elkartea, fisikoen elkartea, hainbat langile sindikatu eta beste hainbat elkarte zibilek osatzen zuten Plataforma Demokratikoak gonbidatuta, udaletxeko eraikinean "Hizkuntza, Nortasuna, Literatura" izeneko hitzaldia eman nuen. Plataformako arduradunek osatutako informazioaren arabera, sei mila lagun egon ziren: gazteak, zaharrak, umeak, intelektualak, nekazariak, langileak, negozioetako jendea, denak ere gutxietsiak, zapalduak, irainduak izan zirenak hizkuntzagatik, kulturagatik, nortasunagatik eta itxaropen, kontsolamendu eta harrotasunaren antzeko zerbait zirudien zerbait aurkitzen edo aurkitu nahian literaturako hitz batean. Biharamunean liburuak sinatzen egon nintzen Avesta liburudendan, etenga-

be eskaintzak idazten nire liburuan sei edo zazpi orduz. Han ere, kaleko espaloiraino zihoan ilara luzean itxaron zuen jendeak.

Nola azaldu jende horren bozkario hori, egonarri hori? Egun bian iritsi zitzaizkidan ehunka gutun, galdera, kritika eta aholkuetatik bi baino ez ditut gorde, gainontzekoak Plataforma Demokratikoari pasa dizkiot, beranduago irakurri eta patxadaz azter ditzaten: amama batek bilobari kurdueraz diktatutako gutun bat, eta Omer izeneko sei edo zazpi urteko mutiko txiki batek emandako argazkia.

Amama zaharrak bilobari *Bira Qedere* nire eleberria kurdueraz irakurrarazi zion ahoz gora, eta idatziz bere inpresioak adierazi zitzala eskatu zion. Gutuna irakurtzean egiak lausotu egin zitzaizkidan, atsekabe eta poztasuneko sentimendu nahasiekin. Omerrek, liburuak izenpetzeko egunean, hainbat jenderi sinatu beharreko liburu pila baten gainean bere argazkia utzi zuen, atzeko aldean hitzok zituela: *Umearen sentimendu garbienekin agur egiten dizut. Agur! Agur zuri, horrenbesteko sufrimenduz idazten duzun egile ohoretsu, zure herrialdetik urrun bizitzera derrigortua. Zuri irakurtzen jabetzen naiz zenbat zor dizudan nitaz hitz egiteagatik, gure jendeaz, eta tristatu egiten naiz. Bizitza mingarriago bihurtzen da ipuin baten gisan kontatzean. Baina sufrimenduak bizitza sentimendua ere ematen du eta hazten laguntzen du ... - Omer.*

Hitzok irakurri ostean Plataforma Demokratikoko lagunei deitu eta Omer aurki zezatela eskatu nien; ez nuen bere nortasun edo abizenaren berri, eta eskatu nien esateko neu nintzela benetan berarekin zorretan nengoena. Omerrekiko neukan zorra bere adierazpen literarioaren edertasuna, indarra eta duintasuna ziren.

Diyarbakirdik Istanbulera ninderaman hegazkinean nire aztoramendua lagunekin banatu nuen. "Hori da hizkuntzaren indarra!" esan nien. "Esanahia galdu duela diotenak beren burua engainatzen ari dira. Hizkuntza indartsua da oraindik ere".

Hala ere, hizkuntzaren gutxiespenaren esperientzia historikoa beti eta edonon errepikatzen da. Ahotsak isilarazten dizkietenek, desberdintasuna ukatzen zaienek, beren buruak adierazteko horrenbeste zailtasun dituztenek, eta hizkuntza ura edo ogia beste behar dutenek, bere egiten dute. Besteek, gizaki guztiak berdinak

izatea aldarrikatzen dutenek, sentimendu berbera dute, berdin bizi eta pentsatzen dute, eta aukera hori indarrez ezarri nahi dutenek, hizkuntzari berari beste inork baino beldur handiagoa diote, eta kontrolatzen saiatzen dira. Historia Diyarbakirren errepikatu zen. Nire liburuetatik zazpi, sei kurdueraz eta turkieraz bat, debekatu zituen 2000ko otsailaren 4ko Diyarbakirgo Estatu Segurtasunerako Laugarren Gortearen 200/39 epaiak. Halaber, martxoan hasita, polizia sistematikoki hasi zen Ankara, Bingol, Batman eta Nusaybinen errondak egiten, nire liburuak atzemateko eta haiek edukitzea edo saltzea debekatzen zuten agiriak izenpetzera behartzen dendariak. Nire irakurraldian zehar esan nuen Turkiako batasuna eta osotasuna oso garrantzitsuak zirela kurduen begietan, indarkeriari ezetz esan behar ziotela, eta ezetz esan halaber Iran, Irak edo Siria gisako erregimen totalitarioekin harremanak izateari; esan nuen turkiarrek, baita kurduek ere, beren lekua hartu behar zutela nazio demokratikoen artean eta kurduek Turkiari lagun ziezaioketela demokratizazio bidean. Poliziak nire hitzaldia osorik filmatu bazuen ere, nire liburu guztiak, tartean eleberriaren original kurdua eta turkierazko itzulpena, debekatu egin zituzten.

Kurduk, Mesopotamiako gainontzeko komunitate zaharrek legez, hala nola asiriarrak, siriarrak, armeniarrak, juduak, kaldeoak, nestoriarrak, yazidiak edo aleviak, zeinak kurduak baino askoz egoera zailagoan dauden, bizimodua mugatuta dute. Komunitate horiei, nik zazpi urte nituenean hartutako muturrekoa bezalakoa eman die historiak, eta desagertzera kondenatuta daude. Dagokien rol demokratikoa, giza eskubideak, berdintasun eskubidea, kontzientzia askatasuna erabat ukatuta, legeaz eta justiziaz gutxiago arduratzerik ez zeukaten diktadore militar ezjakinen menpe, erlijio kontserbadorismoa muturrera daramaten buruzagi erlijioso lotsagabeen menpe, zibilizazio, etorkizun zoriontsu eta justizia hitzei hitzezko zerbitzua soilik ematen dieten politikari harroek gobernatutako eskualdean, nahiz eta gero egiaz gutxieneko sentiberatasunik ez izan beren herrikideen benetako beharrekiko, populazio horiek behin eta berriz mezu bera entzuten dute: *"Onartu zuen patua. Zuen bekokia heriotzaren zigiluak markatu du. Ez egin alferrik borrokan, historiaren kolpea hilkorra da. Ez espero kanpoko lagun-*

tzarik, bakarrik zaudete, inork ez du entzungo zuen negar luzea. Ez espero zuek mundura irekitzerik, hain gutxi harekin bat egitea. Ez duzue beste aukerarik zuen ingurukoak eskorpioi baten legez ziztatzea baizik, zuen buruak ziztatu eta desagertu baino lehen. Daukazuen guztia - zuen hizkuntz eta kultur ondarea tartean- jakituria hila baino ez da izango. Hitz egin zuen hizkuntza familian nahi baduzue, are, sortu zapalduen literatura, besteengan atsekabe sentimendua pizteko gai. Zuen mundu mugatuan garrasi egin dezakezue, oihu, auzoekin borrokatu. Baina ez saiatu mundura irekitzen edo hari ezer eskaintzen. Biziraupenerako daukazuen aukera bakarra dena ahaztea da, zuei dagokizuen dena uztea eta zuek definitzen zaituzteten ikuspegi ofizialarekin bat egitea. Lotsa zaitezte zuen hizkuntzaz, nortasunaz, kultur ondareaz, eta onar ezazue primitiboak eta aurrerantzean alferrekoak direla. Itzul zaitezte dirura, plazerera, erosotasunera, hil ezazue zuen gogoan, buruan, bihotzean daukazuena. Zatozte, bat egin gurekin...".

Hori errepikatu diete gizateriaren kultur ondare zaharrenaren zaintzaileei. Gilgamesh-en Epika, Bibliako istorioak, Profeten parabolak, Eufrates eta Tigrisko paradisuko baratzeak, Zoroastroren ghat-ak, Babilonia, Ninive, Ur, Adan, Eva, Noe, Abrahan, Jakob, eta giza altxor kopuru zenbakaitza haienak dira. Hala eta guztiz, beharrezkotzat jotzen da hori guztia iragana gogorarazten duen apaingarri gisa gordetzea, baina ez ahots berriek, arnas berriek aberastutako iragan bat.

Ovidio ekarriz, zer gertatuko litzateke ulertuko bazenu gezurren zapi bat dela azaltzen dizuten errealitatea, eta zuk ekingo bazenio kultur ondare horri, oraindik berpizteko gai diren hizkuntz horietakoei, ahots berria, beraien izpirituarekin bat datorren arnas berria ekarriz? Erantzuna Ovidio berak ematen digu Tristian: jainkoek ez dute inoiz barkatzen -jakin gabe izan arren- haien aurka altxatzen direnak. Eta hala da, zu blokatzeko asmoz abiarazten dituzte armada osoak, polizia, legeak, informazio zerbitzuak, heriotzaren eskuadroiak, unibertsitateak, egunkariak, telebista eta irrati sarea, zentsura bulegoak, buru eta gogoetan altxatutako hormak, tribunalak, fiskalak, epaileak, espetxeak, tortura guneak, denak arauz gezurra ezartzeko errealitate bakar gisa, eta gezur hori garaile izan dadin.

Hori da Diyarbakirren berriz errepikatutako historia. Niretzat, argi izanik hizkuntzaren eta literaturaren misioa dela gizakiak elkartzea zatitzea baino, gauzen egoera hori tamalgarria da. Hizkuntza leku epela da, egiazkoa, desberdintasun guztientzat dauka lekua, desberdintasun guztiek aberastasun paregabea osatzen dute. Zer egin dezaket? Niretzat, noski, ez da posible egoera hori onartzea, literatura kriminalizatuz, edo onartzea pentsamolde totalitario eta zapaltzailea. Zein alternatiba daukat? Mesopotamiako hizkuntzarik zaharrenetakoa transmititu zidan amama zaharrarekiko zorra itzul dezaket, eta Omer umearekikoa, zeinak, nik bezala, irakaslearen muturrekoa jasoko zuen aurpegian. Eurentzat hitz berrien oparia egin dezaket, ederrago, duinago. Ez bedi zalantzarik egon zorretan nagoela amama zahar horrekin eta Omer txikiarekin.

(Mehmed Uzun Diyarbakirren hil zen 2007ko urrian)